

TXOSTENA 2012



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

www.emakunde-euskadi.net



TXOSTENA 2012

EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEA 2012KO JARDUEREN MEMORIA



Eusko Jaurlaritzako erakunde autonomiaduna
Organismo Autónomo del Gobierno Vasco

Izenburua: txostena. Emakunde, 2012

Egilea: Emakunde / Emakumearen Euskal Erakundea
Manuel Iradier, 36 - 01005 VITORIA-GASTEIZ
Tfnoa.: 945 01 67 00
Faxa: 945 01 67 01
e-mail: emakunde@ej-gv.es
www.emakunde.es

Diseinua: xb

aurkibidea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea	7
Aurkezpena	16
1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-organoek egindako jarduerak	17
1.1 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-kontseilua	18
1.2 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak eae-ko botere publikoen alorrean egindako jarduerak	19
1.2.1. Eusko Legebiltzarra	19
1.2.2. Eusko Jaurlaritzako sailak	19
1.2.3. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza	20
1.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea	21
1.2.5. Foru-aldundiak eta udalak	21
1.3 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasun-erakundeekiko lankidetzaren alorrean egindako jarduerak	23
1.4 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak elkarte-sarearen eta gizarte-eragileen alorrean egindako jarduerak	25
1.4.1. Emakumeen elkarte-sarea	25
1.4.2. Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk	26
1.5 Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak komunikabideen alorrean egindako jarduerak	28
1.6 Emakunde-emakumearen euskal erakundeko zuzendaritza-taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan egindako jarduerak	35

2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeek egindako jarduerak	41
2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea	42
2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea	43
2.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordea	44
2.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea	45
3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko arlo funtzionalek egindako jarduerak	46
3.1. Sustapena, Aholkularitza Eta Erakundearen Koordinazioa	47
3.1.1. EAEko Administrazio Orokorra	47
3.1.2. Foru- eta toki-administrazioak	50
3.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetzak	56
3.1.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko erakundearen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Erakunde arteko Talde Teknikoa eta harrera-baliabideen lantaldea	59
3.2. Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa	61
3.3. Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza	63
3.4. Sektore-planen buruzko txostenak	64
3.5. Prestakuntza	65
3.5.1. Aholkularitza espezializatua	65
3.5.2. Barne-prestakuntza	66
3.5.3. Kanpoko prestakuntza	70
3.6. Jarraipena eta ebaluazioa	80
3.7. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak bultzatzea eta indartzea	83
3.7.1. Aholku Batzordea	83
3.7.2. Emakume-taldeen emandako aholkularitza eta laguntza	84
3.7.3. Laguntza ekonomikoa	87

3.8.	Enpresentzako aholkularitza eta laguntza	99
3.8.1.	Berdintasun-planak: aholkularitza	99
3.8.2.	Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak . .	99
3.8.3.	Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundeak	100
3.8.4.	Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena .	101
3.8.5.	Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk	101
3.9.	Programak gauzatzea	102
3.9.1.	Nahiko	102
3.9.2.	Gizonduz	104
3.10.	Aholkularitza juridikoa	107
3.11.	Azterlanak, ikerketak, argitalpenak	110
3.11.1.	Azterlanak	110
3.11.2.	Diru-laguntzen eta beken deialdiak	113
3.11.3.	Argitalpenak	115
3.11.4.	Dokumentazio Zentroa	117
3.12.	Gizartearen sentsibilizazioa	123
3.12.1.	Kanpainak	123
3.12.2.	IX. Berdintasunerako Gunea	127
3.12.3.	Emakunde aldizkariaren argitalpena	128
3.12.4.	Berdintasunerako Emakunde Saria	129
3.12.5.	Emakunde ataria	132
3.12.6.	Sare sozialak	132
4.	Berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzea sektore pribatuan	133
4.1.	Herritarrei arreta emateko jarduerak	135
4.1.1.	Espedienteen esparrua eta arrazoia	141
4.1.2.	Beste erakunde batzuetara bideratutako espedienteak.	142
4.1.3.	Telefono bidezko eta aurrez aurreko arreta	142
5.	Emakunde-emakumearen euskal erakundearen IX. Legegintzaldirako komunikazio-plana	143

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL
ERAKUNDEA. IZAERA, ARAUBIDE
JURIDIKOA ETA EGINKIZUNAK



Otsailaren 5eko 2/1988 Legeak Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortu zuen, izaera administratiboa duen erakunde autonomiadun gisa, berezko nortasun juridikoarekin eta Eusko Jaurlaritzaren Lehendakaritzara atxikita.


Erakundearen helburu nagusia da emakumeen eta gizonen artean benetako berdintasun eraginkorra lortzea, EAEko bizitza politikoaren, ekonomikoaren, kulturalaren eta sozialaren esparru guztietan. Dagozkion lan-helburuak bete ahal izateko, Euskal Autonomia Erkidegoko berdintasun-politikak sustatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakunde gisa eratu zen Emakunde.

Erakundearen eginkizunak aipatutako 2/1988 Legean zehaztu ziren. Dena den, otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoak, aldatu egin ditu, eta adierazi du honako hauek direla Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen eginkizunak:

- Arestian proposatu diren xedeak erdiesteko gidalerroak gertatzea eta Autonomia Erkidegoko herri-aginte guztiek aplikatu dituzten bultzatzea.
- Berdintasunerako politiken eta Autonomia Erkidegoko legeriaren jarraipena egitea, emakumeen eta gizonen berdintasun-printzipioarekin egokitzeari dagokionez; alde batera utziko da bereizkeriaren aurkako araudia.
- Legegintzako eraldaketa-proposamenak gertatzea, bi sexuen arteko benetako berdintasun iraunkorra tratatzen edo galarazten duten oztopoak ezabatzeke; eta 4/2005 Legea garatzeko araudia proposatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunari dagozkion txostenak egitea eta irizpenak ematea, Autonomia Erkidegoko Administrazioak proposatzen dituen xedapen orokorrak gertatzeko prozedurak irauten duen artean.
- Genero-ikuspia arlo politiko guztietan integratzeko metodoak diseinatzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunean eskudunak diren entitate, organo eta unitateetako langileen eginkizunei eta gaikuntzari dagokionez, oinarritutako eta komunak diren baldintzak proposatzea euskal herri-administrazioetan horretarako ardura dutenei.
- Euskal herri-administrazioei emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean prestakuntza-planak diseinatzen eta proposatutako helburuak lortzen laguntzea, eta horri buruzko aholkuak ematea.

- Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearen zereginak bultzatu eta koordinatzea; halaber, emakumeen egoeran eta emakumeen eta gizonen berdintasunean eragina duten programei dago-kienez Autonomia Erkidegoko herri-aginteen artean izan beharreko koordinazio-neurriak bultzatzea.
- Emakumeen eta gizonen baldintza, beharrizan eta interesak aztertzea, bai eta horren guztiaren ondorioz bizitza politiko, ekonomiko, kultural eta sozialean gertatzen diren ezberdintasunak ere. Horretarako, jarduketa-arlo guztietan egin beharreko politikak taxutzeko azterlanak egitea bul-tzatuko da.
- Aholkua ematea eta sustapen-neurriak ezartzea, enpresek eta erakundeek bitarteko materialak eta ekonomikoak eta giza baliabideak eduki ditzaten emakumeen eta gizonen berdintasuna erdiesteko diseinatzen diren programak eta jarduerak garatu ahal izateko.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan zerbitzuak eskaintzen dituzten entitateak homologatzeari aplikatuko zaizkion betekizunak eta baldintza oinarrizkoak eta komunak proposa-tzea, hain zuzen, eskumena duen organoari.
- Bereizkeria anizkoitza jasaten duten emakumeei oinarrizko gizarte-eskubideetarako sarbidea izan dezaten bermatzeko zerbitzuak eskaintzea bultzatu eta proposatzea.
- Emakumeek eta gizonen bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzea erraztuko dituzten zerbitzu soziokomunitarioak eskaini eta egoki daitezela bultzatu eta proposatzea.
- Herritarrak sentsibilizatzea. Horretarako, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esanguraren eta garrantziaren gainean eta berdintasun hori lortzeko lan egin beharraren eta emakumeen jabekun-tzaren gainean bidezkoztat jotzen diren sentsibilizazio-, sustapen- eta zabalkunde-jarduerak eta -kanpainak egingo dira.
- Elkarte, fundazio eta beste ente eta erakunde batzuekin harremanak eta parte-hartze bideak ezar-tzea, baldin eta erakundeon xedeak edo eginkizunak Emakunderen helburuak lortzeko lagungarri badira.
- Beste autonomia-erkidego batzuetako, Estatuko eta nazioarteko antzeko erakundeekin harremanak eta parte-hartze bideak ezartzea.
- Eta, azkenik, beraren xedeen arloan agintzen zaion beste edozein eginkizun betetzea.

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluaren osaketa



- Lehendakaria
- Emakundeko zuzendaria
- Emakundeko idazkari nagusia
- Eusko Jaurlaritzako sailak (6 kide)
- Foru Aldundiak (3 kide)
- Udalak (3 kide)
- Eusko Legebiltzarrak zuzenean izendatuta (6 kide)
- Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politikak, Lana eta Berdintasunaren Batzordea
- Aholku-batzordeko ordezkaria

EGITURA ORGANIKO ETA FUNTZIONALA

1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-organoak

Hauek dira Emakundeko zuzendaritza-organoak, 2/1988 Legeak arautzen duenaren arabera:

- Zuzendaritza Kontseilua.
- Emakundeko zuzendaria.

1.1. Zuzendaritza Kontseilua

Emakunderen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak arautzen du Zuzendaritza Kontseilua. Dekretu horrek xedatzen duenez, honako eginkizun hauek ditu, besteak beste, Zuzendaritza Kontseiluak: Emakunderen jardunari buruzko urteko txostena onestea, eta onestea, halaber, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Plana, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen egoerari buruzko ebaluazio-txostena, EAEko botere publikoek arlo horretan izandako jardunari buruzko txostena eta berdintasunaren arloko arau-proiektuak, gero Jaurlaritzari aurkezteko.

Zuzendaritza Kontseilua Emakundeko zuzendaritza-organoa da, eta osaera hau du:

- Kontseiluburua: Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria.
- Kontseiluburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Kontseilukideak:
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioak sei ordezkari izango ditu, hain zuzen ere hezkuntza, enplegua, osasuna, industria, kultura eta gizarte-arazoen arloetako sei sailburuorde.
 - Foru-administrazio bakoitzak hiru ordezkari izango ditu: organo eskudunek izendatutako foru-diputatuak izango dira.
 - EAEko udalek hiru ordezkari izango dituzte.
 - Eusko Legebiltzarrean emakumeen eta gizonen berdintasunaren arloan eskuduna den Batzordeak ordezkari bat izango du.
 - Eusko Legebiltzarrak sei ordezkari izendatuko ditu; izendapenerako, pertsona horiek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde arlo pertsonalean edo profesionalean egindako lana hartuko da kontuan.
 - Emakunderen Aholku Batzordeak ordezkari bat izango du.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.

1.2. Emakundeko zuzendaria

Emakundeko Zuzendaritzaren eginkizunak lehen aipatu dugun 214/2006 Dekretuan araututa daude. Emakundeko zuzendariari honako eginkizun hauek dagozkio, besteak beste: Emakunderen lege-ordezkaria izatea, EAEko berdintasun-politikak zuzentzea, erakundearen zuzendaritza administratiboa eramatea eta erakundearen kudeaketa eta barne-ikuskaritza zuzentzea, langileria-politika zuzentzea, eta Emakunderi esleitzen zaion beste edozein eginkizun gauzatzea, baldin eta eginkizun horiek ez badaude berariaz Zuzendaritza Kontseiluari edo Idazkaritza Nagusiari esleitura.

2. Kudeaketarako administrazio-organoa: idazkaritza nagusia

Emakunderen Idazkaritza Nagusiaren eginkizunak ere 214/2006 Dekretuan araututa daude, eta honako hauek dira, besteak beste: lehenik eta behin, Emakunderen zerbitzuak bultzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea ekonomiaren eta finantzen kudeaketan; ondarearen eta aurrekontuaren kudeaketan; plangintza, azterketa eta dokumentazioetan; lege-aholkularitzan eta informazioan; eta programazioan eta beste erakunde batzuekiko lankidetzan; bigarrenik, bultzatzea, koordinatzea eta gainbegiratzea kudeaketa-prozedurak eta laguntza informatikoak, bai eta Emakunderen azpiegiturak eta baliabide materialak beharrianetara egokitzen direla ere; eta, azkenik, barne-prozedurak prestatzea, gastuak baimentzeko eskumena erabiltzea, Emakundeko langileak administratzea eta kudeatzea, eta haiek trebatzeko eta hobetzeko planak eta programak prestatzea.

3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeari atxikitako batzordeak

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak adierazten du Emakunderi atxikita eta/edo lotuta daudela honako organo hauek, haien sorrera eta funtzionamenduko arauak ezartzen duten moduan:

- 3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.
- 3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.
- 3.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea.
- 3.4. Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

3.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea.

4/2005 Legeak sortu zuen Batzorde hau, Emakundera atxikia, Autonomia Erkidegoko administrazioek eta foru- eta udal-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituzten politika eta programak koordinatzeko.

Urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuak arautzen du Batzordea, eta ezartzen du honako osaera hau izango duela:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Alde batetik, Eusko Jaurlaritzaren ordezkari gisa, hiru pertsona, sailburuorde-maila dutenak, eta honako arlo hauen ardura dutenak: herri-administrazioa, lana eta gizarte-gaiak; eta, bestetik, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.
 - Foru-aldundien ordezkari gisa, bi pertsona foru-aldundi bakoitzeko, foru-diputatu direnak.
 - Sei pertsona udal-administrazioaren ordezkari gisa, zinegotzi-kargua dutenak.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.

3.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea.

Sail arteko Batzordea 1993an eratu zen formalki, dekretu bidez. Hala ere, Eusko Jaurlaritzaren berdintasun-politikek eta Batzordearen lanek izan duten garapenaren ondorioz, egokitu egin behar izan da pixkanaka-pixkanaka dekretu hori.

Batzordea, 4/2005 Legean jasoa eta gaur egun abenduaren 26ko 261/2006 Dekretuaren bidez arautua, Eusko Jaurlaritzak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean gauzatzen dituen jarduerak koordinatzeko organoa da.

Batzordea Emakunderi atxikita dago, eta osaera hau dauka:

- Batzordeburua: Eusko Jaurlaritzako Lehendakaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekideak:
 - Lehendakaritzako idazkari nagusia.
 - Eusko Jaurlaritzako sail bakoitzeko pertsona bat, dagokion saileko sailburuordea dena.
- Idazkaria: Emakundeko idazkari nagusia.

3.3. Emakunde–Emakumearen Euskal Erakundearen Aholku Batzordea.

Aholku Batzordea 1998an sortu zen, ekainaren 9ko 103/1998 Dekretuaren bidez. Emakunderi atxikitako Batzorde hau, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean esku hartzen duten elkartearen sareari informazioa eta aholkuak emateko eta proposamenak egiteko organoa da.

Emakundeko zuzendariak eta teknikariek ez ezik, Euskal Autonomia Erkidegoko emakumeen elkarte eta fundazioek ere osatzen dute, baldin eta, beren estatutuetan jasotzen denaren arabera, berdintasun-printzipioa sustatzea badute xede bakarra. Aholku Batzordearen barnean, elkarte eta fundazio horiek honako lau jarduera-arlo hauetako bati atxikita geldituko dira, beren xedeen arabera: arlo soziokulturala, hezkuntza arloa, asistentzia-sanitate arloa eta feminismoari buruzko azterketarako arloa.

Osaera hau du Batzordeak:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordeburuordea: Emakundeko idazkari nagusia.
- Batzordekideak:
 - Hamabi kide, elkarte eta fundazio partaideen ordezkari gisa; hau da, bat jarduera-arlo bakoitzeko, lurralde historiko bakoitzean.
 - Emakundeko Ikerketa, Planifikazio eta Agirien arduraduna.
 - Emakundeko Hezkuntza arduraduna.
- Idazkaria: Emakundeko Informazio eta Elkarleen arduraduna.

3.4. Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundeen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea.

2009ko otsailaren 3an, Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobe egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zen, eta Jarraipen Batzordea eratzeke erabakia hartu zen bertan. Akordioaren arabera, honako hauek dira, besteak beste, Batzordearen eginkizunak: Akordioan adierazitako neurriak eta jarraibideak behar bezala aplikatzen direla bermatzea, jarduera bateratuak proposatzea, erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko proposamenak egitea, eta jarduera-protokoloaren edukiak sor daitezkeen egoera berrietara egokitzeko proposamenak egitea.

Hau da, gaur egun, Jarraipen Batzordearen osaera:

- Batzordeburua: Emakundeko zuzendaria.
- Batzordekide dira instituzio hauetako kideak (sailburuordeak edo antzeko kargudunak izan behar dute):
 - Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia.
 - Euskal Autonomia Erkidegoko Fiskaltza Nagusia.
 - Arartekoa.
 - Gai hauetan eskudun diren Eusko Jaurlaritzako sailak:

- Osasuna	- Herritarren segurtasuna
- Justizia	- Gizarte-zerbitzuak
- Gizarte-bazterketa	- Enplegua
- Etxebizitza	- Hezkuntza
 - Arabako Foru Aldundia.
 - Bizkaiko Foru Aldundia
 - Gipuzkoako Foru Aldundia.
 - Eudel – Euskadiko Udalen Elkartea.
 - Legelarien Euskal Kontseilua.
 - Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

- Idazkaria: Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.

Arartekoa 2011. urtetik da Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeko kide. Batzordearen kideen artean Arartekoaren erakundea sartzeko eskaera egin zuen Arartekoak 2010. urtean, eta eskaera hori Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zuten instituzio eta erakundeetako agintari gorenei igorri zitzairen, eskaera aztertu eta erabaki bat hartu zezaten. Ados azaldu ziren guztiak erakunde hori Jarraipen Batzordean sartzeko proposamenarekin, eta, horrenbestez, Batzorde horretako kide da Arartekoa, Batzordeak 2011ko maiatzaren 2an egin zuen ohiko bilkuratik aurrera.

4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea

4/2005 Legeak sortu zuen Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea, herritarrak sexu-bereizkeriako egoeren aurrean defendatzeko eta Autonomia Erkidegoan emakumeen eta gizonen arteko tratu-berdintasunaren printzipioa bete dadin sustatzeko.

Otsailaren 16ko 3/2012 Legeak 4/2005 Legea aldatzen du, eta adierazten du Berdintasunerako Defentsa Erakundeak Emakunderi atxikita jarraituko duela, baina hortik aurrera zerbitzu bat izango dela. Horrez gain, azaltzen du zuzendaritza bakarra egongo dela, eta Emakundeko zuzendariak hartuko duela bere gain zuzendaritza hori.

5. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen kudeaketako arlo funtzionalak

Emakunde bost kudeaketa-arlo funtzionaletan banatuta dago, eta langileak ere horien arabera daude taldekatuta.

- Administrazioa.
- Aholkularitza Juridikoa eta Informazioa.
- Lankidetzak.
- Azterketak, Dokumentazioa eta Plangintza.
- Programak eta Prestakuntza.

Aipatutako arlo horietan ardurak bete eta lanak egiten dituzten langileez gainera, administrazio- eta harrera-lanak egiteko talde bat dauka Emakundek.

Azkenik, adierazi behar da Emakundeko zuzendariak aholkulari bat eta idazkari bat dituela laguntzeko. Eta Emakundeko idazkari nagusiak ere idazkari baten laguntza du.

Aurkezpena

Txosten honek Emakunderen 2012ko Jarduera Planaren berri ematen du. Plan hori egin da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeak, Defentsa Erakundea Emakundera atxikitzen duen 3/2012 Legeak eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organiko eta funtzionala ezartzen dituen urriaren 31ko 214/2006 Dekretuak Emakunderi esleitzen dizkioten eginkizunak betetzeko. Horrez gain, EAEko botere publikoek legegintzaldi honetan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean bete beharreko jarraibide orokorrak ezartzen dituen EAEko emakumeen eta gizonen berdintasunerako plangintza orokorrak Emakunderi ezartzen dizkion konpromisoak betetzen ditu Jarduera Planak.

Aintzat hartu behar da, batetik, EAEko berdintasun-politikak sustatzeko, aholkatzeko, planifikatzeko eta ebaluatzeko erakundea dela Emakunde, eta, bestetik, bere egitekoa dela 4/2005 Legeak arautzen dituen edukiak berdintasunari buruzko planifikazio orokor baten bidez lehenestea eta zehaztea. Horrenbestez, oso normala da bi jarduera horiek gainjartzea Emakunderen eguneroko lana egitean eta kudeatzean.

214/2006 Dekretuaren arabera, beharrezkoa da Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak onartzea Jarduera txostena. Hori dela eta, Zuzendaritza Kontseiluak Emakunderen 2012ko lanari dagokion Jarduera txosten hau onartu du 2013ko maiatzaren 27ko bilkuran.

txosten hau IX. legegintzaldiaren amaieran egin da, eta Emakundek 2012an egin dituen jardueri buruzko ikuspegi orokorra ematen du, haien testuingurua aintzat hartuta. Horrez gain, Emakunde zuzentzen duten organoek (Zuzendaritza Kontseilua eta Emakundeko zuzendaria), Idazkaritza Nagusiak, erakundera atxikitako batzordeek eta Emakunde osatzen duten arlo funtzionaletako teknikariek eta administrariek egindako lana deskribatzen du.

1

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ZUZENDARITZA-ORGANOEK EGINDAKO JARDUERAK



1.1. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-kontseilua

Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluak ohiko bilkura bat egin zuen 2012ko ekainaren 14an. Gai hauek aztertu ziren bilkura horretan:

1. 2011ko abenduaren 13an egindako bilkuraren akta aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2011n egindako Jarduera txostena aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2012rako Jarduera Plana aurkeztea.
4. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ebaluazio-prozesuari buruzko informazioa ematea.
5. Deialdiei eta diru-laguntzei buruzko informazioa ematea.
6. «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortpena arautzen duen dekretu-proiektua aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
7. BEGIRA / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea arautu eta haren funtzionamendua ezartzen duen dekretu-proiektua aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
8. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua aurkeztea eta, hala badagokio, onartzea.
9. Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekiditeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea aldatzeari buruzko informazioa ematea.



Zuzendaritza Kontseilua

1.2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak EAE-ko botere publikoen alorrean egindako jarduerak

1.2.1. Eusko Legebiltzarra

Eusko Legebiltzarreko taldeek egindako zenbait galderari idatziz erantzuteaz gainera, Emakundeko zuzendariak agerraldi bat egin du Eusko Legebiltzarrean 2012. urtean, berak hala eskatuta. Zehazki, Eusko Legebiltzarreko Gizarte Politika, Lan eta Berdintasun Batzordearen aurrean agertu zen 2012ko maiatzaren 2an, «Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2011» txostena aurkezteko.

1.2.2. Eusko Jaurlaritzako sailak

Emakundeko Zuzendaritzak, Lehendakariarekin aldian behin egiten dituen bilerez gainera (Lehendakariaren kudeaketa arruntari loturiko jarduerak elkarri jakinarazteko eta koordinatzeko), lankidetzak eta koordinazio-lanak egin ditu Eusko Jaurlaritzako sailekin, Jaurlaritzaren politika publikoetan genero-ikuspegia txertatzeko neurriak sustatzeko.



Emakunde Eusko Legebiltzarrean

Bestalde, Emakundeko Zuzendaritza sail arteko edo erakunde arteko batzordeetako kide da, bai eta beste organo batzuetako ere; adibidez, Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak sustatutako organo batzuetakoa (Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseilua; Familiaren Erakunde arteko Batzordea; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseilua; Droga-mendetasunen Euskal Kontseilua; Ijito Herriaren Kontseilua; Herritar Etorkinen Integratziorako eta Partaidetza Sozialerako Foroa; Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektoriala), Kultura Sailak sustatutako organo batzuetakoa (EAEko Gazte Planaren Zuzendaritza Batzordea; EAEko Hizkuntza Ofizialen Batzorde Iraunkorra) eta Herrizaingo Sailak sustatutako organo batekoa (Emakumeen aurkako indarkeriari aurre egiteko sail arteko batzordea).

Eusko Jaurlaritzako sailekiko lankidetzaren baitan, adierazi behar da Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Sailak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak parte hartu dutela Emakundek genero-ikuspegidun aurrekontu publikoak egiteko antolatutako proiektu batean. Proiektu hori lantzeko, Emakundeko Zuzendaritzak bilera bat egin zuen, ekainaren 12an, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantzako sailburuarekin. Era berean, Emakundeko Zuzendaritzak bilera bat egin zuen, 2012ko uztailaren 3an, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saileko Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearekin.

Bestalde, Emakundeko Zuzendaritzak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarekin lan egin du, Familiei Laguntzeko Erakunde arteko III. Plana egiteko, eta, bereziki, bateratze erantzukidearen politikak egiteko. Era berean, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailarekin lan egin du, Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen araudia egiteko.

1.2.3. Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza

Emakundeko Zuzendaritzak eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Eusko Jaurlaritzaren Herrizaingo Sailari atxikita dagoenak, bi aldeko zenbait bilera egin dituzte. Izan ere, beharrezkoa da bi organismoek modu koordinatuan jardutea, emakumeen aurkako indarkeriaren gaian egin behar duten lana koherentea eta osagarria izan dadin.

Emakundeko Zuzendaritzak zenbait bilera egin ditu Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin, Emakumeen kontrako indarkeria matxistaren prebentzioari eta biktima horien arreta eta berreskuratze integralari buruzko lege-aurreproiektuaren esparru orokorrak eta artikulua aztertu eta adosteko. Herrizaingo Sailak egin du lege-aurreproiektu hori.

Horrez gain, Justizia eta Herri Administrazio Sailarekin lan egin du, genero-indarkeriaren prestakuntzari buruzko aholkuak emateko Bulego Judizialari.

Emakundeko Zuzendaritzak, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako eta beste instituzio eta erakunde batzuetako ordezkariekin batera, Maria Caridad de los Ángeles eta María Teresa Egurrola emakumeen hilketak salatzeke antolatu diren ekitaldi guztietan hartu du parte; martxoaren 25ean eta azaroaren 27an hil zituzten, hurrenez hurren.

1.2.4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundea

Martxoaren 2ko 2/2010 Dekretuari jarriki, Emakundeko zuzendariak bere gain hartu ditu, 2010eko martxoaren 15etik aurrera, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeari dagozkion eginkizunak.

Eusko Legebiltzarrak otsailaren 16ko 3/2012 Legea onartu du; Lege horrek aldatu egiten ditu 2/1988 Legea, otsailaren 5ekoa, Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzkoa, eta 4/2005 Legea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerakoa. Azken horrek Berdintasunerako Defentsa Erakundea sortu zuen, sexuagatiko bereizkeriaren kasuetan biztanleak defendatzeko eta esparru pribatuan emakumeen eta gizonen lanerako berdintasun-printzipioa bete dadin sustatzeko. Arautu zuen Defentsa Erakundeak erabateko autonomia izango zuela Administrazioaren beste atalekiko, bere eginkizunak betetzeko, eta Emakunde-Emakumenaren Euskal Erakundeari atxikita egongo zela, Administrazioaren egitura hierarkikoan txertatu gabe. Otsailaren 16ko 3/2012 Lege berriak, Emakunderi atxiki dio Defentsa Erakundea, ez egoteko arazorik Emakunderen eta Berdintasunerako Defentsa Erakundearen eskumenen artean, eta ez gainjartzeko haien eginkizunak. Horretarako, ezarri du zuzendaritza bakarra egongo dela, eta Emakundeko zuzendariak hartuko duela bere gain zuzendaritza hori.

1.2.5. Foru-aldundiak eta udalak

Emakundeko Zuzendaritzak lan-bilerak egin ditu EAEko Foru-Aldundiekin eta Udalekin, zenbait bilkuraren bidez: Emakundeko Zuzendaritza Kontseiluarena (ekainaren 14a), Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordearena (ekainaren 18a), eta Etxeko tratu txar eta sexu-erasoen biktime diren emakumei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakundearen arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearenak (uztailaren 13a eta azaroaren 5a). txosten honetan adierazita daude guztiak.

Bestalde, Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiko partaide da Emakundeko Zuzendaritza.

Berdinsareari dagokionez (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea), Emakundek beharrezko lan-bilerak egin ditu, 2005ean Emakundek eta EUDELek Berdinsarea martxan jartzeko sinatu zuten Lankidetzaren Hitzarmenaren jarraipena egiteko. Ondoren, 2009an Eusko Jaurlaritzak Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza sortu zuenean, Zuzendaritza hori Hitzarmenean sartu zen, bai eta Berdinsarearen lan-esparruan ere. Berdinsarearen esparruan, Emakundeko Zuzendaritzak foru- eta toki-administrazioekin lan egin du, kanpaina bat antolatzeke azaroaren 25ean, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean, bai eta biztanle gutxiko udalerrietan berdintasun-politikak ezartzea errazteko neurriak martxan jartzeko ere.

Era berean, Emakundeko Zuzendaritzak, EUDELekin eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin batera, EAEko Gizon eta Emakumeen arteko Berdintasun Esparruko Ordenantza egin eta zabaldu du. Gida didaktiko bat da, eta haren helburua da EAEko udaletan irizpide komunetan oinarritutako berdintasunerako udal-ordenantzak egin daitezen bultzatzea.

Azkenik, EUDELekin batera lan egin du, Berdinlan Protokoloak proiektuan (etxeko tratatu txarren eta sexu-erasoen biktime diren emakumeei laguntzeko tokiko protokoloak).

1.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak estatuko eta nazioarteko berdintasun-erakundeekiko lankidetzaren alorrean egindako jarduerak

Emakumeen eta Gizonen Berdintasun Eragingarrirako martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoak adierazten du beharrezkoa dela Estatuko Administrazio Orokorra eta autonomia-erkidegoetako administrazioak lankidetzan aritzea, emakumeen eta gizonen berdintasunerako eskubidea integratzeko dagozkien eskumenetan eta, bereziki, plangintza-jardueretan.

Bestalde, Emakundeko Zuzendaritza Observatorio de la Igualdad de Oportunidades entre Mujeres y Hombres behatoki kide ere bada. Behatoki hori urriaren 6ko 1686/2000 Errege Dekretuak sortu zuen, emakumeen egoerari buruzko informazioa biltzeko, aztertzeko eta ezagutarazteko, bai eta zenbait esparrutan emakumeen egoera hobetzeko helburua duten politikak proposatzeko ere.

Hori dela eta, Emakundeko Zuzendaritzak Berdintasunerako Batzorde Sektorialean parte hartu zuen, maiatzaren 21ean. Honako hau izan zen gai-zerrenda:

- Aurreko akta onartzea.
- Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren araudia aldatzea.
- Berdintasunerako Konferentzia Sektorialaren Presidenteordetza berritzea.
- Genero-indarkeriaren aurka borrokatzeko eta berdintasunerako jarduerak aurkezteak.
- Genero-indarkeriaren biktimei eta gizarte-laguntza osoa emateko eta adingabeei arreta emateko kredituak banatzea.
- Koordinazioaren alorreko proposamena: arreta pertsonalizatua eta protokoloak.
- Genero-indarkeriari buruz sentsibilizatzearen alorreko proposamena.
- Ezagutzaren alorreko proposamenak.
- Emakumeen salerosketa sexu-esplotaziorako.
- Tratu-berdintasuna eta pertsonak arraza- edo etnia-arrazoiengatik ez diskriminatzea sustatzeko kontseiluaren osaera, eskumenak eta funtzionamendu-araubidea arautzen dituen irailaren 21eko 1262/2007 Errege Dekretuaren proiektuari buruzko txostena.

Nazioarteko lankidetzari dagokionez, berriz, honako jarduera hauek egin dira:

- **Maiatzaren 29a** NBE-Emakumeak erakundeak generoak lege-prozeduretan duen eragina ebaluatzeari buruzko lantegi batean parte hartzera eta esku hartzera gonbidatu zuen Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea. Euskadik alor horretan izandako esperientzia adierazi zen lantegi horretan. Lantegian, Latinoamerikako zenbait herrialdek parte hartu zuten: prozedura hori beren legegintzarako hartzea aztertzen ari dira, eta, beraz, Eusko Jaurlaritza eta Emakunde erreferentziazko erakundeak dira haientzat. Emakundeko Zuzendaria (María Silvestre) eta Idazkari Nagusia (Arantxa Elizondo) arduratu ziren Euskadiko esperientzia aurkezteaz. Emakundek NBE-Emakumeak erakundearekin lan egiten du administrazioan genero-ikuspegia aplikatzeko zenbait proiektutan, 2011ko otsailean Emakundeko ordezkariak NBE-Emakumeak erakundeko presidente Michele Bacheletekin elkartu zirenetik New Yorken.
- **Ekainaren 4a** Emakundek bilera bat egin zuen NBE-Emakumeak erakundeak Mexiko, Erdialdeko Amerika, Kuba eta Dominikar Errepublikarako duen eskualde-zuzendari Ana Guezmesekin, lankidetzaprogramaren jarraipena egiteko.
- **Urriaren 7a** Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Ahalduntzerako Nazio Batuen Entitateak (NBE-Emakumeak), Emakumeen Institutu Nazionalak (INMUJERES), Latinoamerikarako eta Kariberako Batzorde Ekonomikoko (CEPAL) Genero Gaietako Dibisioak eta Estatistika eta Geografia Institutu Nazionalak (INEGI) Emakundeko Zuzendaritza gonbidatu zuten honako topaketa honetara: «XIII Encuentro Internacional de Estadísticas de Género: Bases empíricas para Políticas Públicas orientadas al Empoderamiento Económico de las Mujeres». Topaketa Aguascalientes hirian egin zen, Mexikon.
- **Azaroaren 21a** Emakundek bilera bat egin zuen Miosotis Rivas Peñarekin; hau da, Erdialdeko Amerikaren Integrazio Sistemako Erdialdeko Amerikako eta Dominikar Errepublikako Emakumeen Ministro Kontseiluko Emakumearen Idazkaritza Teknikoaren (STM-COMMCA/SICA) arduradunarekin. Esperientziak elkarri adieraztea eta etorkizunean elkarlanean aritzeko harremanei ekitea izan zen bileraren helburua.

1.4. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak elkarte-sarearen eta gizarte-eragileen alorrean egindako jarduerak

1.4.1. Emakumeen elkarte-sarea

Emakundeko Zuzendaritzak, EAEn berdintasuna lortzea helburu duten eta Zuzendaritzarekin elkartzeko eta hitz egiteko bilera bat izatea eskatu duten elkarte guztiekin egindako bi aldeko bilerez gainera, Emakundeko Aholku Batzordearen bilera bat deitu zuen urriaren 31n, eta bilera horretan parte hartu zuen.

Hona hemen azpimarratu beharreko beste bilera batzuk:

- Euskadiko Emakume Gazteak Elkartearekin (otsailaren 8an), elkarte eta haren helburuak eta jarduerak aurkezteko.
- Saharako Emakumeen Elkartearekin (irailaren 21ean), egun horretan antolatutako jardunaldietan laguntza logistikoa emateko.
- Emakumeen elkarteekin, azaltzeko zer ikuspegi duen Emakundek Genero-indarkeriaren biktimei laguntza osoa emateko lege-aurreproiektuaren zirriborroari buruz (otsailaren 21a).



Emakume saharaiak

- Bilbao Metropoli-30 elkartearen profesionaltasun-proiektuaren esparruan, Bilboko emakume profesionalen taldearekin, Bilboko emakume profesionalen profila aztertzeko elkarrekin, eta aztertzeko, halaber, emakume horien aktiboak, gaitasunak eta landu beharreko alderdiak.

1.4.2. Enpresak eta beste gizarte-eragile batzuk

2012. urtean, 8 entitateri eman zaie, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendariaren ebazpen bidez, Emakumeen eta Gizonezkoen Aukera Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde izendapena. Beraz, 72 lankidetzak-erakunde daude orain guztira EAEn. Azaroaren 8ko 424/1994 Dekretuak sortu zuen figura hori, gizartean eta lan-munduan emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde sor daitezkeen ekimenak bultzatzeko eta entitate horiek guztiek berdintasunaren alorrean egiten duten lana aitortzeko.

- MUTUALIA
- MUNDUKIDE FUNDAZIOA
- FONDO FORMACIÓN EUSKADI, S.L.L.



Erakunde laguntzaileei plaka ematea

- CEAR EUSKADI
- ASKORA PLUS, S.L.
- EMUN KOOPERATIBA ELKARTEA
- TXINDORRA KONTSULTORIA S.L.

Izendapen hori lortzean, Emakundeko Zuzendaritzak ziurtagiri bat eta plaka bat ematen dizkie erakundeei, lankidetza-erakundeak direla egiaztatzeko. 2012. urtean, ekitaldiak egin dira, enpresa hauei ziurtagiria eta plaka emateko:

- IZENPE
- AUTOBUSES CUADRA
- ASKORA PLUS, S.L.
- FONDO FORMACIÓN EUSKADI, S.L.L.
- CEAR EUSKADI
- MUNDUKIDE FUNDAZIOA
- GALANT GARBITASUNA
- MUTUALIA

Azkenik, adierazi behar da saregileei «Tresneria eta aparailuak egitea eta mantentzea» profesionaltasun-ziurtagiria emateko ekitaldian parte hartu duela Emakundek. Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak ematen du ziurtagiri hori.

1.5. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak komunikabideen alorrean egindako jarduerak

Herritarrak Emakunderen helburuez sentsibilizatzeko eta egindako jarduerak ezagutarazteko, Emakundeko Zuzendaritzak sentsibilizazio- eta informazio-lan handia egiten du komunikabideetan. Horretarako, iritzi-artikuluak eta prentsa-oharrak bidali ditu, eta prentsaurrekoak, elkarrizketak eta bestelako ekintza batzuk antolatu ditu.

Ezinezkoa denez Emakundeko Zuzendaritzak komunikabideetan egindako informazio-jarduera guztiak azaltzea, jarraian, iritzi-artikuluak, prentsaurrekoak eta prentsa-oharrak soilik adieraziko ditugu:

IRITZI-ARTIKULUAK:

- **Azaroak 25.** Iritzi-artikulua. Indarkeria, feminismoa eta berdintasun-politikak. María Silvestre Cabrera.

PRENTSAURREKOAK:

- **Martxoak 5.** Martxoaren 8ko kanpainaren aurkezpena. Bertan, Emakundek defendatu du berdintasuna krisitik irteteko estrategia bat dela.
- **Martxoak 19.** Emakunderen diru-laguntzei esker argitaratu diren ikerketa hauen aurkezpena: «Maternidad, paternidad y conciliación en la CAE», «Situación penitenciaria de las mujeres presas



Martxoaren 19a. Argitalpenen aurkezpena



Ekainaren 6a. NAHIKO programa

en Saturraran» eta «Generoaren trataera irakasleen formazioan».

- **Apirilak 2.** Berdintasun-diagnostikoak eta -planak egiteko metodologiaren aurkezpena.
- **Maiatzak 7.** IX. Berdintasunerako Gunearen aurkezpena. Gunea maiatzaren 7tik 28ra bitartean egin da, EAEko hiru hiriburuetan eta beste hamahiru udalerritan.
- **Ekainak 4.** «Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduztze-prozesuei egin dien ekarpena» azterlanaren aurkezpena.
- **Ekainak 6.** Mila bat ikaslek Emakunderen NAHIKO programaren bidez berdintasunaren alde egindako lana erakutsi dute.
- **Uztailak 2.** EAEko atzerriko emakume etorkinei buruzko ikerketa baten aurkezpena.
- **Urriak 15.** Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko nazioarteko biltzarraren aurkezpena.
- **Azaroak 12.** Emakumeen aurkako indarkeriari buruzko Beldur Barik kanpainaren aurkezpena.



Otsailaren 2a. Berdintasun esperientziak ekonomiaren esparruan

PRENTSA-OHARRAK:

- **Urtarrilak 2.** Emakundeko Zuzendaritzak Martuteneko kartzelako emakume presoetara bisita egingo die gaur.
- **Urtarrilak 23.** Hondarribiko eta Irungo alarde mistoentzako Berdintasunerako Emakunde Saria.
- **Otsailak 2.** «Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan» mintegia antolatu du Emakundek.
- **Otsailak 11.** Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko ezinbestekoak dira berdintasun-politikak, Emakunderen iritziz.
- **Otsailak 21.** Soldata-diferentziak emakume eta gizonen arteko berdintasun-eza eragin eta betikotzen duela gogoratu du Emakundek.
- **Martxoak 6.** Krisialditik irteteko berdintasuna lantzea proposatu du Emakundek martxoaren 8ko kanpainaren bitartez.
- **Martxoak 7.** Emakundeko Zuzendaritzak Martuteneko emakume presoekin ospatuko du Martxoaren 8a.
- **Martxoak 19.** Emakundek Amaia Azkueren familiari elkartasuna adierazi dio kasua epaiaren zain geratzen den egunean.



Martxoaren 28a. «Emakumeak jasangarritasunaren alde» lehiaketa

- **Martxoak 28.** Eusko Jaurlaritzak emakumeek planetaren jasangarritasunari egindako ekarpena goraiatu du lehiaketa baten bitartez.
- **Apirilak 2.** Enpresetan berdintasun-planak egiten laguntzeko metodologia argitaratu du Emakundek.
- **Apirilak 11.** Elena Arzak zoriondu du Emakundek munduko sukaldari onenaren saria jasotzeagatik.
- **Apirilak 18.** Hondarribiko eta Irungo alarde mistoek Donostiako Kursaal-en jasoko dute Emakunde Saria.
- **Apirilak 18.** Eli Tolaretxipi zoriondu du Emakundek Londresko olinpiada kulturaletako poesia festibalean parte hartzeko hautatua izateagatik.
- **Apirilak 20.** Euskal emakume idazleen lanak ikusaraziz ospatuko du Emakundek Liburuaren Eguna.
- **Maiatzak 2.** Berdintasun-eza erakusten duten zifrak aurkeztu ditu Emakundek Legebiltzarrean.
- **Maiatzak 9.** Emakundek Indusal enpresako langileak hartu ditu eta kasua aztertuko du Berdintasunerako Defentsoriaren bitartez.

- **Maiatzak 16.** Príncipe de Asturias Saria Martha Nussbaum filosofoari eman izana goraipatu du Emakundek.
- **Maiatzak 18.** Bilboko Udaleko emakumeen kontrako indarkeriaren programak Nazio Batuetatik jasotako aitorpena goraipatu du Emakundek.
- **Maiatzak 21.** Emakumeak enplegatzeko planak eta lan-erreformaren arteko inkoherentzia ekiditeko eskatu dio Osasun, Gizarte, Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioari.
- **Maiatzak 26.** Emakundek Bilbon emakume bat sexualki erasotzeko saiakera gaitzetsi du eta honen aurka agertzeko dei egiten die hiritar guztiei.
- **Maiatzak 31.** Legegintza-arloan genero-eragina ebaluatzeko euskal esperientzia erreferente Nazio Batuetan.
- **Ekainak 4.** 65 urtetik gorako emakumeen autonomia-maila ikertu du Emakundek.
- **Ekainak 11.** Abian da Beldur Barik 2012, gazteei zuzendutako ikus-entzunezko lehiaketarekin.
- **Ekainak 18.** Enpresetan berdintasuna sustatzeko erronka aztertuko du Emakundek EHUren udako ikastaroetan.
- **Ekainak 19.** Euskal Herria eta Eslovakiaren arteko emakumezkoen futbol-partidara joateko deia egin du Emakundek.
- **Ekainak 27.** Laura Arroyo saskibaloj-jokalaria zoriondu du Emakundek Kirol Kontseilu Gorenak eman dion sariarengatik.
- **Ekainak 29.** Emakundek beste behin erakutsi dio baldintzarik gabeko bermea Irungo alarde mistoari.
- **Uztailak 2.** Emakume etorkinek hein handi batean euskal gizartearen beharrei erantzuten dietela egiaztatu du Emakundek.
- **Uztailak 12.** Berdintasunerako Emakunde Sariaren 2012ko deialdia ireki da.
- **Uztailak 23.** Gallardón ministroak proposatutako abortuaren legearen aldaketen aurka agertu da Emakunde.
- **Abuztuak 3.** Emakundek Maialen Chorrut zoriondu du Joko Olinpikoe-tan lortutako brontzezko dominagatik.
- **Abuztuak 4.** Emakundek Castro Urdialesen gertatutako emakume bizkaitarraren erailketaren aurrean gaitzespena azaldu du.
- **Abuztuak 10.** Emakundek Maider Unda zoriondu du lortutako brontzezko dominagatik.

- **Abuztuak 12.** Emakundek Joko Olinpikoetan brontzea lortu duten esku-baloiko jokalaria euskaldunak zoriondu ditu.
- **Irailak 6.** Emakundek beste behin erakutsiko dio baldintzarik gabeko bermea Hondarribiko alarde mistoari.
- **Irailak 24.** Emakundek Elgoibarren neska batek jasan duen sexu-erasoa gaitzetsi du eta aurka agertzeko dei egin die hiritar guztiei.
- **Irailak 26.** «Emakumeak goi-mailako kirolean» III. jardunaldia antolatu du Emakundek.
- **Urriak 2.** Emakundek Desgaitasuna duten Europako Emakume eta Nesken Eskubideen II. Manifestua argitaratu du.
- **Urriak 5.** Legebiltzarrean ordezkaritza izateko aukera duten alderdi politikoetako lurralde-zerrendetan sei emakume dira buru.
- **Urriak 8.** Emakundek bere esperientzia azalduko du Mexikon ospatuko den genero-estatistiken XIII. nazioarteko bilkuran.
- **Urriak 24.** Enpresetako administrazio-kontseiluetan emakumeen %40ko kuota proposatzen duen Europako planaren alde agertu da Emakunde.
- **Azaroak 13.** Emakundek emakume profesionalen ikustaraztea eta aitormen soziala bultzatzeko aplikazio informatiko bat jarri du abian.
- **Azaroak 15.** Emakundek Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzak Erakunde izendatzen duen bereizgarriaren entrega egin die gaur goizean Cear, Cuadra, Mutualia, Askora, Fondo Formación, Gureak, Izenpe eta Mundukide entitateei.
- **Azaroak 20.** Eusko Legebiltzar berriko parlamentarietako 37 emakumeak izango dira eta 38 gizonak.
- **Azaroak 21.** Emakundek Erdialdeko Amerika eta Dominikar Errepublikako Emakumeen Ministria Kontseiluko ordezkariak hartu ditu gaur.
- **Azaroak 22.** Genero-indarkeriaren kontra egiteko ezinbestekotzat jo ditu berdintasun-politikak Emakundek.
- **Azaroak 26.** Emakundek Yolanda Gutiérrez zoriondu du Donostiako maratoian lortutako garaipenagatik.
- **Azaroak 27.** Emakundek Asparrenan gertatutako emakume baten hilketaren aurrean gaitzespina agertzeko deia egin die hiritar guztiei.



Emakumeak politikan

- **Abenduak 10.** Emakume politikariak pretsan duten irudiaren ikerketa argitaratu dute Deustuko Unibertsitateak eta Emakundek.
- **Abenduak 12.** Emakundek EB-Emakumeak Madrilen duen bulegoa itxi izana salatu du eta krisiarekin berdintasun-politikak duten arriskuaz ohartarazi du.
- **Abenduak 14.** Bilboko asistentzia psikosozialerako moduluentzako Berdintasunerako Emakunde Saria.

1.6. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaritza-taldeak ekitaldi, jardunaldi eta kongresuetan egindako jarduerak

Emakundeko Zuzendaritzak ekitaldi publiko ugarian parte hartu du 2012. urtean:

- **Urtarrilak 18.** NAHIKO mintegia inauguratu du; hau da, hezkuntzara bideratutako programa bat, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak diseinatua eta gauzatua.
- **Urtarrilak 19.** OSALANek Laneko Segurtasun eta Higieneko Institutu Nazionalarekin batera antolatutako «Lanean amatasuna babestea» jardunaldietan parte hartu du Emakundek.
- **Urtarrilak 20.** Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultateak antolatutako «Ingenieritza eta generoari buruzko mintegia» eztabaidan parte hartu du.
- **Otsailak 2.** «Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan» NAHIKO mintegia inauguratu du.
- **Otsailak 8.** Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak hezkuntzari buruz antolatutako konferentzian izan da.
- **Martxoak 6.** Bizkaiko Emakumezko Enpresari eta Zuzendarien Elkar-teak ematen duen enpresari-sariaren VI. edizioaren epai-mahaian parte hartu du.
- **Martxoak 14.** Berdinbidean Bizkaia proiektuaren aurkezpenean parte hartu du.
- **Martxoak 15.** Emakumeei, enpleguari eta krisiari buruzko konferentzia batean parte hartu du EHUn, Leioako Lan Harremanen Unibertsitate Eskolan, «Lan-zuzenbidea eta emakumeen enplegua» jardunaldiaren barruan.
- **Martxoak 21.** Deustuko Unibertsitateak antolatutako «Emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna, krisi-garaian» mahai-inguruan parte hartu du.
- **Martxoak 26.** Eusko Jaurlaritzako Garraio Azpiegituraren Zuzendaritzak Europa Jauregian antolatutako «Gasteizen zehar, berdez eta morez» konferentzian parte hartu du.



EUEDEL-en jardunaldia

- **Martxoak 28.** EAEko Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleen artean Emakumeak Jasangarritasunaren Alde sariak banatzeko ekitaldian parte hartu du. Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak eta Emakundek antolatu dute lehiaketa, emakumezko zientzialarien nazioarteko urtean.
- **Martxoak 30.** EUEDELek antolatutako «EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza» jardunaldian parte hartu du.
- **Apirilak 17.** UNRWA Euskadik antolatutako «Haurtzaroa, generoa eta laguntza humanitarioa: eskubideetan oinarrituz Palestinako lurralde okupatuetako biztanleria zaurgarrienari zuzendutako begirada» jardunaldietan parte hartu du.
- **Maiatzak 14.** Eusko Jaurlaritzak antolatu duen Oroimenari eta Bizikidetzari buruzko Biltzarrean izan da.
- **Apirilak 27.** FETE-UGTko gizarte-politiken atalak antolatutako «Berdintasunean hezten» proiektuaren aurkezpenean parte hartu du.
- **Maiatzak 11.** «Emakume profesionalak: lidergoa eta enpresagintza» jardunaldia aurkeztu du, IX. Berdintasunerako Gunearen barruan.

- **Maiatzak 18.** Muskizko Emakume Elkarteak antolatutako «Zer ote da berdintasunaren kontu hori?» hitzaldian parte hartu du.
- **Maiatzak 17-18.** Q-EPEAk (Erakunde Publikoen Elkargune Aurreratua) BEC-en antolatutako Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko IV. Kongresuan parte hartu du.
- **Maiatzak 23.** ORP. CONFERENCE 2012. OSALANek antolatutako «Mujer, gestión y prevención: el valor de la diferencial» lantegian parte hartu du Bilbon.
- **Maiatzak 25.** Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak antolatutako «Joan-etorriko bidalketak: emakume migratuen dirua, maitasunak eta erruak» jardunaldiak aurkeztu ditu.
- **Maiatzak 28.** «Osasun laborala eta generoa» jardunaldiak antolatu ditu, IX. Berdintasunerako Gunearen barruan.
- **Ekainak 17.** «Evaluación de políticas de igualdad de mujeres y hombres en la CAE» komunikazioa aurkeztu du, Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak antolatutako IX. Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresuaren barruan.



«Lan-osasuna eta generoa» jardunaldiak



EHUren Udako Ikastaroa «Enpresetan berdintasuna sustatzeko erronkak»

- **Ekainak 19-20.** «Retos para la igualdad en las empresas» EHUren udako ikastaroa. Miramar Jauregia.
- **Ekainak 21-22.** «Los presupuestos como objeto de estudio» hitzaldia aurkeztu du, «IV Congreso Universitario Internacional: Investigación y Género» biltzarrean, Sevillan.
- **Ekainak 21.** Publikoa erakundeak antolatutako Berdintasuna jardunaldian parte hartu du, Bilboko Euskalduna Jauregian.
- **Uztailak 5.** Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak antolatutako «Mundua aldatzeko ideiak» jardunaldiko mahai-inguruaren moderatzailea izan da.
- **Uztailak 10-12.** Chair eta Discussant gisa hartu du parte IPSAk (International Political Science Association) antolatutako XXII World Congress of Political Science biltzarrean, Madrilen.
- **Uztailak 16.** Euskal Soziologia eta Zientzia Politikoaren Elkarteak antolatutako IX. Soziologia eta Zientzia Politikoaren Kongresuaren inaugurazioan parte hartu du.
- **Uztailak 24.** Maribel Martínez de Murgiarene lantegia aurkeztu du eta bertan parte hartu du, FEDEPEK (Emakumezko Zuzendarien, Exekutiboaren, Profesionalen eta Enpresarien Espainiako Federazioa) antolatutako Evolucion II jardunaldien barruan.

- **Irailak 8.** Hondarribiko Alardean izan da.
- **Irailak 28.** «Emakumeak goi-mailako kirolean» III. jardunaldia antolatu du, Donostian.
- **Urriak 1.** «Emakumeen elkartegintza prebentzio-iturri gisa» bigarren ikastaroa inauguratu du, Zumarragako Zelai Arizti kultura-etxean.
- **Azaroak 30.** Gizonduz on line ikastaroaren saio presentziala aurkeztu du, Emakunden.
- **Urriak 4.** Portugaleteko Udaleko Gizarte Ongizatearen Sailak antolatutako «Bikote gazteen genero-indarkeria. Ez zaitez maitasunaz itsutu, Ikas ezazu tratu txarra sumatzen» jardunaldia aurkeztu du, XII. Berdintasun Jardunaldien barruan.
- **Urriak 4.** Kultura Communication Desarrollo GKEk antolatutako «Filme Sozialak» Zinema Ikusezinaren Nazioarteko Jaialdiaren amaieran parte hartu du.
- **Urriak 10.** Inmujeres, NBE-Emakumeak eta CEPAL erakundeek antolatutako «XIII Encuentro Internacional de Estadísticas de Género: bases empíricas para políticas públicas orientadas al empoderamiento económico de las mujeres» topaketan parte hartu du.
- **Urriak 15.** «Erantzunkidetasuna Berdintasunerako» jardunaldiak aurkeztu ditu, Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak sustatutako Landa Eremuko Emakumeen Batzordeak Urduñan antolatu duen Landa Eremuko Emakumeen Nazioarteko Egunaren IX. Edizioaren barruan.
- **Urriak 17-19.** Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Politikak Bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra antolatu du Euskalduna Jauregian.
- **Urriak 23.** Donostiako Udalak antolatutako «Feminismoa eta estrategia globalak indarkeria matxistaren aurka» jardunaldietan izan da.
- **Urriak 23.** Cibervoluntarios Fundazioak antolatutako «Emakumeak, Teknologia eta Demokrazia gizarte-aldaketarako» jardunaldien inaugurazioan parte hartu du.
- **Azaroak 8.** Caritasek adineko emakumeei buruz antolatutako jardunaldietan parte hartu du.
- **Azaroak 9.** Plataforma Andaluza de Apoyo al Lobby Europeo de Mujeres Plataformak antolatutako «¿Qué es la violencia estructural contra las mujeres?» XXIII. feminarioan izan da.

- **Azaroak 15.** «Soldata-berdintasuna eta enpresako bikaintasuna» jardunaldian parte hartu du, XVIII. Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astearen barruan.
- **Azaroak 27.** «Generoa eta osasuna» Galdakaoko VIII. Bardintasun Jardunaldiak aurkeztu ditu.

2 EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEARI ATXIKITAKO BATZORDEEK EGINDAKO JARDUERAK



2.1. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin du 2012ko ekainaren 18an. Gai hauek aztertu dira bilkura horretan:

1. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ebaluazio-prozesuari buruzko informazioa ematea.
2. Lantalde teknikoek egindako lana aurkeztea eta, hala badagokio, lan horri laguntzeko akordio-proposamen bat onartzea.
3. Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua aurkeztea.
4. Foru- eta toki-administrazioek Erakunde arteko Talde Teknikoan parte hartzeko kideak izendatzea, urtarrilaren 16ko 5/2007 Dekretuaren 9.1 artikuluan xedatutakoari jarraituz.

2.2. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordeak ohiko bilkura bat egin du 2012ko uztailaren 5ean. Gai hauek aztertu dira bilkura horretan:

1. Emakundeko zuzendariaren txostena:
 - Emakunderen 2012rako Jarduera Plana aurkeztea.
 - Genero-ikuspegidun aurrekontuen proiektuari buruzko informazioa ematea.
 - Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Talde Teknikoak egindako lana aurkeztea.
2. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ebaluazio-prozesuari buruzko informazioa ematea, eta Jaurlaritzak 2010ean eta 2011n egindako lanaren jarraipena egiteko dokumentua aurkeztea.
3. Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibide berriak aurkeztea.
4. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Erakunde arteko Batzordeko lantalde teknikoek egindako lana aurkeztea eta, hala badagokio, lan horri laguntzeko akordio-proposamen bat onartzea.
5. Jaurlaritzako sailek 2012ko programa-dokumentua aurkeztea eta entregatzea.

2.3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordea

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko Aholku Batzordeak bilera bat egin du 2012ko urriaren 31n. Gai hauek aztertu dira bilera horretan:

1. Aholku Batzordearen bileraren akta onartzea, hala badagokio.
2. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak 2011n egindako Jarduera txostena aurkeztea eta onartzea.
3. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen 2012rako Jarduera Plana aurkeztea.
4. Aholku Batzordeak Emakunde Sariaren epaimahaian izango duen ordezkaria aukeratzea. Aholku Batzordeak 2013ko Emakunde Sariaren epaimahaian izango duen ordezkari berria eta ordezkoa aukeratzea.
5. Informazioa ematea emakumeen elkarteentzako eta taldeentzako «Emakumeak Sarean» prestakuntza digitalari buruz, bai eta Emakundeko Aholku Batzordearentzako tresna teknologikoei buruz ere.
6. Deialdiei eta diru-laguntzei buruzko informazioa ematea.
7. EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ebaluazio-prozesuari buruzko informazioa ematea.
8. «Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» aitortzea arautzen duen dekretu-proiektua aurkeztea.
9. BEGIRA / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea arautu eta haren funtzionamendua ezartzen duen dekretu-proiektua aurkeztea.
10. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua aurkeztea.
11. Genero-eraginaren aurreko ebaluazioa gauzatzeari buruzko jarraibideak eta gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ekiditeko eta berdintasuna sustatzeko neurriak hartzea aldatzeko buruzko informazioa ematea.
12. Boluntariotzaren Estatuko XV. Biltzarrari buruzko informazioa ematea.
13. Galde-eskeak.

2.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordea

Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeak bi bilkura egin ditu. Gai hauek aztertu dira bilkura horietan:

2012ko uztailaren 13ko bilkura:


1. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen eta Ebaluazio txostena aurkeztea.
2. Tolosako Udalak 2012ko martxoaren 24an Caridad de los Ángeles Rodríguez Arrieta erailtzearen ondorioz egindako bilkuraren akta aurkeztea.
3. Etxeko tratu txarren eta sexu-erasoen biktima diren emakumeentzako protokoloen ebaluazio-prozesuari buruzko informazioa ematea.
4. Erakunde arteko Taldeak eta harrera-baliabideen lantaldeak egindako lana aurkeztea eta, hala badagokio, prestatutako dokumentuak eta lan horri laguntzeko akordio-proposamen bat onartzea.

2012ko azaroaren 5eko bilkura:

1. Iñaki Parientek, Datuak Babesteko Euskal Bulegoko zuzendariak, datu-ba-seak partekatzeko eta hartara erakundeen arteko koordinazioa hobetzeko aukeren aurkezpena egitea.

3

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEKO ARLO FUNTZIONALEK EGINDAKO JARDUERAK



3.1. Sustapena, aholkularitza eta erakundeen koordinazioa

3.1.1 EAEko Administrazio Orokorra

Emakundek Sail arteko Talde Teknikoaren bidez betetzen du, nagusiki, Eusko Jaurlaritzaren barnean berdintasun-politikak sustatzeko eta aholkatzeko eginkizuna. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordea arautzen duen Dekretuak xedatzen duenaren ildotik¹, Talde horren helburua da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea, eta esleitzen zaizkion gaietan azterlanak, txostenak eta proposamenak egingo ditu horretarako. Emakundek sustatzen eta koordinatzen du Taldea eta, sail arteko bileren bidez nahiz alde biko bileren bidez, sail bakoitzari dagozkion sektoreko politikak aztertzen laguntzen du; horretarako, berdintasuna bultzatzen duten helburuak identifikatzen ditu, jarduer-estrategiak zehazten ditu, eta sail bakoitzaren eta Jaurlaritza osoaren berdintasun-politiken plangintzarako, garapenerako eta jarraipenerako tresnak proposatzen ditu. Ildo horretatik, lankidetzak eta aholkularitza eskaini zaie 2012. urtean Jaurlaritzako sailei, beren 2012ko programa-dokumentua egiteko, otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 15.2. artikuluan xedatutakoari jarraituz.

Aholkularitza eta informazioa emateari dagokionez, Jaurlaritzako sailek, erakunde autonomiadunek eta ente publikoek egindako 184 kontsultari erantzun zaie. Bestalde, proiektu zehatzak gauzatzen lagundu da; batez ere, materialak berrikusten eta prestatzen edota genero-ikuspegia barnean hartzen duten sektore-ekintza berritzaileak abian jartzen. Gainera, berdintasunerako politiken plangintza, kudeaketa eta ebaluazioa hobetzeko proposamenak egin dira.

Hauk dira Emakundek Sail arteko Talde Teknikoaren alorrean 2012. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- Sail arteko Talde Teknikoko kideei aholkularitza eman die, urteko programa-dokumentuak egiteko.
- Jarraibideak eta laguntzeko materialak egiten parte hartu du, Berrikuntza Publikoaren Planeko praktika-komunitateen bidez.

1 Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

- Emakumeen eta gizonen berdintasun-adierazleen sistema bat diseinatzeko parte hartu du. Emakunde bera da sistema horren bultzatzailea.
- Ekarpak egin ditu entitate publikoen artean truke-sare bat sortzeko, haien erakundeetan berdintasun-politikak aplikatu dituzten. Emakunde bera da truke-sare horren bultzatzailea.
- Eusko Jaurlaritzako sailek eta haien erakunde eta sozietate publikoek eta Estatu osoko beste erakunde publiko batzuek, enpresa pribatuak eta emakume-elkarteek berdintasunaren alorrean egindako jardunbide egokiak biltzeko eta kontsultatzeko aukera ematen duen aplikazio informatikoa egiten jarraitu du. Emakundeko teknikariek osatutako talde batek ezarri ditu jardunbide egokia zer den zehazteko irizpideak, eta Sail arteko Talde Teknikoan, Erakunde arteko Talde Teknikoan eta enpresa homologatuetan aurkeztu dira, ekarpak egin dituzten.
- Administrazio Orokorreko eta haren Erakunde Autonomiadunetako Langileentzako Berdintasunerako Prestakuntza Planari dagozkion prestakuntza-beharak aztertzeko eta edukiak proposatzeko lantalde tekniko bat eratzea proposatu dio Sail arteko Batzordeari. 2012ko uztailaren 5eko bileran onartu zuen Batzordeak proposamena.

Honako hauek dira lantaldearen helburuak: sail guztien prestakuntza-behar komunak identifikatzea; prestakuntza-edukiak proposatzea; Berdintasunerako Prestakuntza Planaren garapenaren jarraipena egitea; Berdintasunerako Prestakuntza Planaren ebaluazioaren jarraipena egitea; eta Prestakuntza Plan hori berriro diseinatzea, aipatutako jarraipen horietan oinarrituta.

Honako hauek egongo dira lantaldean: pertsona bat, sailetako berdintasunerako unitate administratibo bakoitzetik; giza baliabideen ataleko edo prestakuntza-ataleko pertsona bat, sail bakoitzetik eta haien erakunde autonomiadunetatik; pertsona bat, HAEEko prestakuntza-ataletik; eta beste bat, Emakundetik.

Sail arteko Talde Teknikoarekin egiten den lanaz gain, bi aldeko lana egiten du Emakundek sail jakin batzuekin, sail horiek proiektu eta zeregin zehatzen harian egiten dituzten eskakizunei erantzuteko, batik bat. Alde horretatik, jarduera hauek egin ditu 2012an:

- Bi lantaldetan parte hartu du; bat emakume etorkinei eta genero-indarkeriari buruzkoa zen, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak eta Immigrazioko eta Aniztasuna Kudeatzeko Zuzendaritzak sustatua, eta bestea, emakumeak sexu-esplotaziorako salerosotari buruzkoa, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sustatua.

- Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak sustatutako «Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistaren Euskal Behatokiaren informazio-sistemak» lantaldean parte hartu du.
 - Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren «Gizarteratzerako III. Euskal Plana (2011-2015). Gizarteratze Aktiboaren Euskal Plana» lanari buruzko txosten teknikoa egin du.
 - Bestalde, «Emakumeak jasangarritasunaren alde» lehiaketa antolatzen jarraitu dute Emakundek eta Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak eta Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Sailak. Lehiaketa 2011n hasi zen, eta EAEn Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza egiten duten ikasleentzat da. Helburua da nabarmentzea zer-nolako ekarpena egin duten emakume zientzialariek, soziologoek, pedagogoez eta ingurumenaren alorrean lan egiten duten emakumeek, planeta iraunkorra izan dadin.
- Urte honetan zehar, aurkeztutako lan guztiak jaso eta aztertu ditu. Azkenik, sari-banaketa antolatu du.
- Horretarako, 2012. urtean, koordinazio-bilerak egin ditu proiektu honetan parte hartzen duten sailetako teknikariek eta sari-banaketako ekitaldia antolatzeaz arduratu diren enpresekin, eta jarduera osoa ebaluatzeko azken bilera bat egin du.
- Beldur Barik programa (emakumeen aurkako indarkeriari buruzkoa) aurkeztu dio Kultura Saileko berdintasunerako unitate administratiboari, 2012ko programan lankidetzan aritzeko jarduera batzuk zehazteko, eta hurrengo edizioan Kultura Saila erakunde laguntzaile izateko oinarriak finkatzeko.
 - Aholkuak eman dizkio Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko berdintasun-teknikariari, genero-ikuspegia txertatzeko Lanbide Heziketaren curriculumean.
 - Lan egin du Lanbiderekin eta Ekonomia Zuzendaritzarekin, egitura-funtzen esparruan (ikusi «Europako erakundeak eta programak», 3.1.3 atalean).
 - Lan egin du Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko berdintasunerako unitate administratiboarekin, EJI Eren jardunaldia diseinatzeko Berdintasunerako Gunearen esparruan. Helburua izan da berdintasunaren aldeko erakunde publikoen sare bat sortzea, lankidetzarako on line plataforma moduan, Berrikuntza Publikoaren Planaren (BPP) babespean eta jakintza elkarri adierazteko JAKINGUNE gunearen barruan. Behin hori egindakoan, erakundeak atxikitze deialdiak eta dokumentuak prestatu dira, sarearen helburuak eta haren funtzionamendua gehituta.
 - Landa Eremuko Emakumeen Batzordean parte hartu du, eta plan estrategiko berriaren barruan Batzorde horrek berak lehentasunezkoztat jo di-

tuen ekintzak gauzatzen lagundu dio. Lankidetzak horren harian, laguntza eman zaio emakume nekazarien estatutua prestatzeko eta Landa Eremuko Emakumeen Batzordea bera arautuko duen ordenamendua egiteko.

- Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Adinekoen Batzorde Iraunkor Sektorialean parte hartu du.
- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailari atxikitako Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzaren baitako Boluntarioritzaren Euskal Kontseilua- rekin lan egin du, boluntarioen lana ezagutarazteko aukera ematen duten jarduera-ildo estrategikoei babesa emanez.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako Kontseiluan parte hartu du, Gizarte Zerbitzuen Euskal Kontseiluaren esparruan.

3.1.2. Foru- eta toki-administrazioak

Erakunde arteko Batzordea arautzen duen dekretuak xedatutakoarekin bat², eta Autonomia Erkidegoko administrazioek eta foru- eta toki-administrazioek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egiten dituzten politikak eta programak koordinatze aldera, 2010ean abian jarri zen Erakunde arteko Talde Teknikoa. Talde horren xedea da Batzordeko kideei laguntza eta aholkularitza teknikoa ematea. Horretarako, bere esku uzten diren gaiak aztertu, horiei buruzko txostenak egin eta proposamenak aurkeztuko ditu.

Emakundek Taldea sustatzen eta koordinatzen du, bai erakunde arteko bileren bidez, bai lantaldeen bilera espezifikoaren bidez.

Hauek dira Emakundek Erakunde arteko Talde Teknikoaren alorrean 2012. urtean egindako ekintza zehatzak:

- Bilerak antolatu, prestatu eta koordinatu ditu, baita horien jarraipena egin ere.
- 2011. urtean martxan jarritako hiru lantalde teknikoetan egindako lana eta sortutako dokumentuak aurkeztu ditu.
 - Sektore publikoaren hitzarmen, diru-laguntza eta kontratuaren berdintasun-neurriak aplikatzeko irizpideak eta bitartekoak.
 - Generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egin eta aplikatzeko irizpideak.

2 Ikusi Emakunderi atxikitako batzordeak, 2. atalean.

- Hezkuntzan berdintasunaren aldeko lan bateratua egiteko neurriak.
- Erakunde arteko Batzordeak lantalde teknikoen lanarekin lotutako konpromisoak hartzeko proposamen bat egin du.
- Berdintasunerako Jardunbide Egokien Bankua proiektua aurkeztu du.

Bestalde, informazioa eta aholkularitza eman zaie EAEko udalei eta foru-aldundiei, eta, guztira, 264 kontsultari erantzun zaie.

Emakumeen aurkako indarkeriari dagokionez, Bizkaiko Foru Aldundiaren Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokia parte hartu du Emakundek.

Immigrazioaren alorrean, etxeko lanetan diharduten emakumeen egoera eta baldintzei buruzko adituen taldean parte hartu du Emakundek. Bilboko Udaleko Immigrazio Gaietarako Bilboko Kontseiluak zuzentzen du taldea.

Erakunde arteko Batzordean egindako lanaz gain, udalekin lan egiteko eta haiei laguntzeko beste jardun-ildo batzuk ditu Emakundek:

Berdinsarea - Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea

Sare hori Emakunderen bultzadarekin sortu zen, eta 2005ean EUDEL-Euskadiko Udalen Elkartearekin sinatutako lankidetza-hitzarmen baten bidez jarri zen martxan. Hitzarmen horren bidez, Emakundek hitzeman zuen sarea dinamizatuko zuen berdintasun-eragile bat kontratatzeko finantzaketan parte hartuko zuela eta EUDELek hitzeman zuen sare hori sortu eta kudeatuko zuela, bai eta hura garatzeko beharrezko jarduerak gauzatuko zituela ere.

2005eko otsailaren 24an sinatutako hitzarmena Eusko Jaurlaritzaren egitura eta funtzio berrietara egokitzeke, 2010eko irailaren 1ean lankidetza-hitzarmen bat sinatu zuten EUDELek, Emakundek eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzak, Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea) garatzeko.

Sareak organo hauen bidez funtzionatzen du:

- Jarraipen Batzordea: EUDELeko, Emakundeko eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako ordezkariak osatuta dago, eta honako ardura hauek ditu: hitzarmenaren jarraipena egitea, Berdinsarearen jardura gidatzen duten jarraibideak finkatzea eta haren lehentasunak azaltzea lan-plana egitean, Jaurlaritzaren eta gainerako erakundeen politikekiko koherentea izan dadin eta koordinatuta egon dadin.

- Osoko Bilkura: Berdinsarearen gobernu-organoa da, eta sarea osatzen duten udal guztietako tokiko hautetsiz osatuta dago.
- Batzar Teknikoa: udalerri bakoitzak izendatutako berdintasun-teknikariek, Berdinsarearen idazkaritza teknikoaz arduratzen den teknikariak eta Emakundeko eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzako teknikari batek osatzen dute.

Hauek izan dira, zehazki, Emakundek 2012an egindako ekintzak:

- Beste hitzarmen bat sinatu du EUDELekin eta Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin, Berdinsarea garatu eta finantzatzeko.
- Udaletan berdintasun-politikak sustatzeko ardura duten politikariek eta teknikariek lan egin du.
- Jarraipen Batzordearen bileretan parte hartu du, eta hartu diren erabakien jarraipena egin du.
- Berdinsarearen batzar teknikoetan parte hartu du, eta hartutako erabakien jarraipena egin du.
- Udalerriek Berdinsarean sartzeko egindako eskariak aztertu eta ebaluatu ditu. Lau udalerri sartzea onartu da (Lezama, Loiu, Derio eta Sestao). Sareko udalerrien kopurua 57ra iritsi da horrela.
- Maiatzaren 30ean Bilbon egin zen «EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza» jardunaldian parte hartu du, eta martxan jarri du Aholkularitza Batzorde bat, Gizon eta Emakumeen Berdintasunerako Udal Ordenantza bat egiteko interesa duten udalerrien zat.
- Virginia Woolf Basqueskola izeneko eskola jarri du martxan emakumezko politikarientzat, eta haren programa zehazteko eta jarraipena egiteko sortutako batzordean parte hartu du.
- Indarkeriaren biktimei diren emakumeei laguntzeko protokoloen lantaldean parte hartu du.
- Emakundek generoaren araberako eraginaren ebaluazioak trukatzeko aurkeztutako Berdintruke jardunaldian parte hartu du.
- Azaroaren 25eko kanpainaren barruan (Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna), Beldur Barik diseinatzeko lan-batzordeak eta lan-saioak kudeatu eta koordinatu ditu, eta haietan parte hartu du.

Udalerri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuari laguntzea

Berdinsareak lan handia egin du berdintasun-politikak sustatzeko, batez ere jende ugari bizi den udalerrietan. Nolanahi ere, sare horretan sartzeko beharrezkoa denez zenbait baldintza betetzea langileen kontratazioari, berdintasun-planak egiteari eta berdintasun-politiketarako aurrekontu jakin bat erabiltzeari dagokionez, biztanle gutxiko udalerri gehienentzat zaila da Berdinsarean sartzea.

Ikusita udalerri txikiek arazoak dituztela emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean aurrera egiteko planak, programak eta ekintzak lantzeko, hiru foru-aldundiek lankidetzaz hitzarmenak sinatu zituzten 2009an eta 2010ean EUDELekin, udalerri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuak martxan jarri ahal izateko. Hauek dira zerbitzu horien helburuetako batzuk:

- Aukera ematea udalerri txikiei emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak martxan jartzeko, Berdinsarearen ildoarekin koherenteak izango diren estrategiak erabiliz. Horren bidez, epe ertainean Berdinsarean sartzeko bidea zabaldu nahi zaie.
- Udalerrietan, mankomunitateetan, eskualdeetan edo kuadrillean elkarrengana hurbil daitezen, esperientziak truka ditzaten, koordina daitezten eta elkarrekin jarduerak egin ditzaten erraztea.

Jarduera hauek egiten dira, adierazitako helburuak betetzeko:

- Laguntza teknikoa ematen zaie udalerri txikiei, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna sustatu eta emakumeen aurkako indarkeria desagerrarazteko programak eta ekintzak egin ditzaten.
- Topaketak eta bilerak antolatu eta koordinatzen dira mankomunitate, eskualde eta kuadrillean, udalerri txikietan esku hartzeko estrategiak ezartzeko, esperientziak trukatzeko eta egindako lanaren jarraipena egiteko. Horren guztiaren xedea da parte hartzen duten udalerrien arteko sinergiak sortu edo indartzea.

Horren guztiaren harian, 2011. urtean Emakunde prest agertu zen, Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin eta EUDELekin batera, udalerri txikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzuari laguntzeko. Hori dela eta, hiru erakundeek hitzarmen bat sinatu zuten, eta udalerri txikiek dinamizazioko eta aholkularitzako prozesu horren baitan egiten dituzten ekintzak finantzatzeko zituztelako konpromisoa hartu zuten. 2012an beste hitzarmen bat sinatu da, konpromisoa berritzeko.

Zehazki, honako ekintza hauek egin ditu Emakundek 2012an:

- Lankidetza-hitzaumen bat izapidetu eta sinatu du Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin eta EUDELekin batera, udalerritxikietan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzua bultzatu eta finantzatzeko.
- Hartu diren erabakien jarraipena egiteko bileretan parte hartu du.

Udalerriei, kuadrillei eta mankomunitateei diru-laguntzak ematea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren diagnostikoak egiteko eta/edo berdintasunerako planak egiteko, ebaluatzeo eta moldatzeko

Diru-laguntzen deialdiak dira Emakundek udalerriei laguntza tekniko emateko erabiltzen duen beste tresna bat. Tokiko erakundeei ematen zaizkie diru-laguntza horiek, emakumeek eta gizonak udalerritan bizi duten egoeraren diagnostikoak egiteko, eta tokiko planak egiteko eta ebaluatzeo, EAErako Esparru Planaren³ ildo nagusiei jarraituz. 2012an, 299.000 euro erabili dira helburu horretarako. Gainera, udalerritxikiek eta berdintasun-politikak garatzen ibilbide laburrena duten udalerriek diru-laguntza horiek eskuratu ahal izateko estrategiak garatu dira, eta prozesu sistematiko bat abiarazi da horretarako.

2012. urtean, 29 proiektu lagundu dira diruz, 26 udalerritan eta 3 mankomunitatetan. 15 udalek egingo dute, lehenengo aldiz, berdintasunerako diagnostiko eta/edo plan bat. Gainerako proiektuak diagnostiko berriak, berdintasun-plan berriak eta haien ebaluazioak egiteko edo diagnostiko eta plan sektorialak garatzeko dira.

3 Gaur egun, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana.

UDALERRI, KUADRILLA ETA MANKOMUNITATE ONURADUNEN ZERRENDA

GUZTIRA: 299.000,00 euro

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	ZENBATEKOA
Aramaioko Udala	Emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa	5.841,00 €
Burgeluko Udala	Evaluación del plan de Igualdad	6.726,00 €
Abanto-Zierbenako Udala	Diagnóstico y elaboración del III Plan Local para la Igualdad	4.090,50 €
Arantzazuko Udala	Diagnóstico y I Plan para la Igualdad de mujeres y hombres	6.195,00 €
Barakaldoko Udala	III Plan de Igualdad de mujeres y hombres	6.637,50 €
Berrizko Udala	Evaluación, diagnóstico y adecuación del III Plan para la Igualdad al V Plan de Igualdad de la CAE	11.250,00 €
Bilboko Udala	Diagnóstico sobre la situación de las mujeres mayores	13.500,00 €
Busturiko Udala	Diagnostikoa eta I. Berdintasun plana	8.850,00 €
Erandioko Udala	II Plan para la Igualdad de mujeres y hombres	7.232,22 €
Galdakaoko Udala	Evaluación, diagnóstico y diseño del II Plan para la Igualdad de mujeres y hombres	15.000,00 €
Gorlizko Udala	Diagnóstico de Igualdad	8.850,00 €
Lemoako Udala	Lehenengo berdintasun planerako diagnostikoa	15.000,00 €
Mungiako Udala	III Plan de Igualdad de mujeres y hombres	11.250,00 €
Otxandioko Udala	Emakume eta gizonen berdintasunerako plana	10.725,00 €
Portugaleteko Udala	Diagnóstico de la participación de la ciudadanía en el tejido asociativo y plan de mejora	7.869,46 €
Arratiako Udalen Mankomunitatea	Evaluación y elaboración del I Plan para la Igualdad	15.000,00 €
Lea Ibarra Udal Mankomunazgoa	Emakume eta gizon berdintasunerako lehen diagnostikoa eta plana	14.368,50 €
Ataungo Udala	Emakume eta gizon berdintasunerako lehen diagnostikoa	10.295,20 €

ERAKUNDE ONURADUNA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	ZENBATEKOA
Errenteriako Udala	Emakume eta gizonen Berdintasunerako planaren ebaluaketa	7.180,00 €
Ibarrako Udala	Emakume eta Gizonen egoerari buruzko diagnostiko integrala	6.192,00 €
Irurako Udala	Emakume eta gizonen Berdintasunerako Plana	7.987,12 €
Lazkaoko Udala	Emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa eta I. Berdintasun Plana	11.097,75 €
Oñatiko Udala	Emakume eta gizonen berdintasuna Oñatiko udalean	15.000,00 €
Ordiziako Udala	Emakumeen eta gizonen berdintasunerako I. Planaren ebaluazioa	6.726,00 €
Orioko Udala	Emakume eta gizonen berdintasunerako diagnosia eta I Plana	9.735,00 €
Segurako Udala	Emakume eta gizonen arteko egoeraren diagnostikoa	3.750,00 €
Tolosako Udala	Emakume eta Gizonen arteko berdintasunerako II. Planaren ebaluazioa	14.227,00 €
Urnietako Udala	Emakume eta gizonen egoeraren diagnostikoa eta Berdintasunerako 1. Plana	15.000,00 €
Urola Garaiko Mankomunitatea	Plan de Acción otorgando el protagonismo socio-político a las mujeres que trabajan en los cuidados	23.424,75 €

3.1.3. Beste instituzio eta erakunde batzuekiko lankidetza

Unibertsitateak

2012an ere, aurreko urteetan bezala, Euskal Herriko Unibertsitateak (EHU) antolatutako Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterrean laguntzen jarraitu du Emakundek. Master horren helburua da profesionalak gaitzea, berdintasun-eragile gisa lan egin dezaten, bai administrazioan bertan, bai erakunde eta entitate pribatuetan. Lankidetza horren jarduera batzuk izan dira diru-laguntza izendun bat ematea, irakaskuntzan parte hartzea eta Emakunden praktikak egiteko aukera ematea; zehazki, pertsona batek Berdintasunerako Defentsa Erakundean egin ditu praktikak, eta beste batek, Gizonduz programan.

Horrez gain, Deustuko Unibertsitatearekin lankidetzan jarraitu dugu, gizarte-alorreko esku-hartzearen eremuan eman dituen bi masterretan: «Familian esku har-

tzeko eta bitartekotza egiteko unibertsitate-master ofiziala» delakoan, batetik, eta «Gizartean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko unibertsitate-master ofiziala» delakoan, bestetik. Lankidetzaren helburua izan da profesionalen prestakuntza ematea, familietan eta adingabeen artean gertatzen diren genero-desberdintasunak jabe daitezen, beren esku-hartzeak generoan zer-nolako eragina izan dezaketean jakin dezaten, eta esku-hartze horiek berdintasun-ikuspegi batetik egin ditzaketela jakin dezaten. Bi master horietako seigarren edizioako ikasleei bekak ematea izan da, zehazki, lankidetzaren muina.

Europako erakundeak eta programak

Eskualde Garapeneko Europako Funtsari (EGEF) eta Europako Gizarte Funtsari (EGIF) dagokienez, Emakundek bi funts horien jarraipen-batzordeetan parte hartzen jarraitu du. Izan ere, ekarpenak egin dizkie urteko txostenei, eta parte hartu du bi batzordeen urteko bileretan; hau da, EGIFen Euskadira 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen eta EGEFen Euskadira 2007-2013 Programa Operatiboaren Jarraipen Batzordearen.

Bi funts horien laguntzaz finantzaturako programak egiten dituzten erakundeek berdintasunaren alorrean dituzten estrategiak indartzeko, bai egungo 2007-2013 programazio-aldian, bai hurrengo 2014-2020 programazio-aldian, lankidetzan jarraitu da Lanbiderekin (EGIFen bitarteko erakundea) eta Ekonomia Zuzendaritzarekin (EGEFen bitarteko erakundea). Lankidetzaren esparruan, beste lan-saio bat egin da; orain, berdintasun-teknikarientzat. Bi helburu ditu horiek: batetik, egun indarrean dauden EGEFen eta EGIFen programa operatiboaren edukia eta funtzionamendua ezagutaraztea berdintasun-teknikariei; eta, bestetik, identifikatzea zer ekintzetan egin dezaketean lan elkarrekin berdintasunerako unitateek eta organismo kudeatzaileek 2013an, emakumeen eta gizonen berdintasunerako estrategia indartu ahal izateko funts horien laguntzaz finantzatzen diren jardueretan.

Horrez gain, Emakumearen Institutuak eta EGEF eta EGIF kudeatzen dituzten agintariek sustatutako Red de Políticas de Igualdad en los Fondos Estructurales y Fondo de Cohesión 2007-2013 sarearen kide den aldetik, Emakundek sare horren 5. osoko bileran parte hartu du 2012ko maiatzaren 10ean eta 11n Bartzelonan, eta parte hartu du, halaber, sare horren barruan sortutako lantaldeetan. Lantaldeek aurrez aurre nahiz modu birtualean egin dute lan.

Estatuko berdintasun-erakundeak

Hezkuntzaren eremuan, Emakumearen Institutuak eta Hezkuntza Ministerioak sustatutako INTERCAMBIA sarean parte hartzen jarraitu du Emakundek. Berdintasun-politikak sustatzen dituzten erakundeetako pertsonen eta autonomia-erkidego guz-

tietako hezkuntza-sailletako pertsonak osatzen dute sare hori, eta sareak egindako urteko bileran izan da Emakunde.

Beste erakunde batzuk

Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari (UNMS) Laguntzeko Euskal Sarean parte hartzen jarraitu du Emakundek. Elkarre-mugimendu batek sustatu du sare hori, eta Saharako emakumeek UNMSren esparruan egiten duten lanari eta abian jartzen dituzten ekimenei laguntzea du helburu.

Bestalde, KCD gobernuz kanpoko erakundeak antolatutako Zinema Ikusezinaren Jaialdian laguntzen jarraitu du, epaimahaikide izan baita kulturartekotasunaren kategorian eta emakume batek egindako lanik onenaren kategorian. Horrez gain, emakume batek burututako lanik onenari saria eman du Emakundek.



Saharako Emakumeen Batasun Nazionalari Laguntzeko Euskal Sarea (SEBN)

3.1.4. Etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko erakundeen arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordearen Erakunde arteko Talde Teknikoa eta harrera-baliabideen lantaldea

2009ko otsailaren 3an, etxeko tratu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei harrera hobea egiteko Erakundeen arteko II. Akordioa sinatu zen. Akordio horretan, ezarri zen Jarraipen Batzorde eratuko zela, bai eta Erakunde arteko Talde Tekniko (ETT) bat ere, laguntza teknikoa emateko Jarraipen Batzordeko kideei, beren eginkizunak behar bezala bete ditzaten. Erakundeen arteko II. Akordioak ezartzen duenez, Akordioa sinatu duten erakundeak ordezkatzten dituzten eta horretarako izendatuak izan diren teknikariek osatuko dute ETT, eta talde horretan Emakunde ordezkatzten duen pertsona izango da taldeko koordinatzailea. Bestalde, Erakundeen arteko II. Akordioak adierazten du Emakundek emango diola ETTri lan egiteko behar duen laguntza tekniko eta administratiboa.

Horrenbestez, Jarraipen Batzordeak 2010eko azaroaren 18an egin zuen bilkuran, Akordioko kide diren erakundeek teknikari batzuk izendatu zituzten (kideak eta ordezekoak) ETTko kide izan zitezen. Talde hori 2011ko otsailaren 25ean eratu zen, eta hauek izan ziren izendatutako kideek ordezkaturako erakundeak: Botere Judizialaren Kontseilu Nagusia, EAEko Fiskaltza Nagusia, Arartekoa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Saila, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila, Justizia eta Herri Administrazio Saila, Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila, Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila, eta Osasun eta Kontsumo Saila, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako Foru-Aldundiak, EUEDEL - Euskadiko Udalen Elkartea, Legelarien Euskal Kontseilua, eta Euskadiko Sendagileen Kontseilua.

ETT 2011ko otsailaren 25ean eratu zen, eta urte horretan egindako lanarekin jarraitu du. Zehazki, 2012. urtean, hiru bilera egin dira: ekainaren 29an, urriaren 5ean eta azaroaren 26an. Behin ETTk eta Jarraipen Batzordeak diagnostikoaren dokumentua eta proposamenak onartutakoan, zenbait lehentasun finkatu ziren, ikuspuntu teknikitik, diagnostiko horretan eta proposamen bakoitzean adierazitako alderdietan. Urte honetarako eta datorren urtearen hasierarako helburua da alor bakoitzeko lehentasunak adosten dituen dokumentu bat sortzea, 2013rako konpromisoak jarri eta bete ahal izateko.

Bestalde, 2011ko ekainaren 3an eratu zen etxean tratu txarrak jasaten dituzten emakumeentzako harrera-baliabideen lantaldea, eta erakunde hauek dira haren partaide: Emakunde; Eusko Jaurlaritzako Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritza; Eusko Jaurlaritzako Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila; Arabako,

Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiak; EUEDEL - Euskadiko Udalen Elkartea; eta Abanto-Zierbena, Barakaldo, Bilbo, Donostia eta Gasteizko udalak.

Lantalde horrek, 2011. urtean, Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako harrera-baliabideen mapa bat egin zuen, alderdi hauek adierazteko: zenbat baliabide dauden eta zer ezaugarri dituzten; zein den plaza-kopurua eta haien okupazioa; zer programa egiten diren eta zer teknikarik jarduten duten programa horietan; zein den beste arazo batzuk ere badituzten emakume biktimen eta emakume immigranteen errealitatea eta zer behar dituzten; eta zenbat emakume biktima bideratzen diren beste erakunderen bateko harrera-baliabideetara.

2012. urtean, lantaldeak mapa lantzen jarraitu du, eta uztailaren 22an bilera bat egin da, etxean tratu txarrak jasaten dituzten biktimak beste erakunde batzuetako baliabideetara bideratzen dituen protokolo bat egiteko hurrengo bilerarako. Une honetan, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaren Prestazio eta Zerbitzuen Zorroa arautzen duen dekretua indarrean sartu eta martxan jartzeko zain gaude, dekretu horrek aldatu egingo baitu egungo baliabide-mapa.

3.2. Generoaren arabeko eraginaren aurreko ebaluazioa

4/2005 Legearen azken xedapenetan zortzigarrena betez, Jaurlaritzaren Kontseiluak generoaren arabeko eraginaren aurreko ebaluazioa egiteko jarraibideak onartu zituen 2007an, bai eta emakumeen eta gizonen arteko berdintasun-ezak desagerrarazteko eta berdintasuna sustatzeko neurrietarako jarraibideak ere.

Kontuan hartuta esperientzia lortu dela jarraibide horien aplikazioan eta gogoe-ta-prozesu bat ireki dela, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2010eko otsailaren 9an xedapen orokorrak egiteko arau-esparruaren gainean hartutako erabakiari jarraituz (gardentasun eta parte-hartze handiagoa lortzea eta prozedurak bizkortzea zen erabakiaren helburua), 2012an jarraibide berri batzuk egin eta izapidetu dira. Azkenik, Jaurlaritzaren Kontseiluak abuztuaren 21ean onartu ditu jarraibide horiek, eta honako honen bidez argitaratu dira: 40/2012 Ebazpena, abuztuaren 21ekoa, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendaria-rena (EHAA 187 zk., 2012ko irailak 25).

Jarraibide berriak errazago aplikatu ahal izateko, batez ere generoaren arabeko eraginaren txostenak egitean, zenbait laguntza-material egin dira, Eusko Jaur-laritzako berdintasunerako unitateekin lankidetzan eta praktika-komunitate baten ba-rruan. Emakunderen webgunean eta Emakundeko Intraneten kontsulta daitezke, eta honako hauek dira:

- Generoaren arabeko eraginaren txostenak egiteko gidaliburua.
- Gida osatzen duten material sektorialak. Material horien bidez, azter-tzen da zer desberdintasun dituen emakumeen eta gizonen egoerak alor hauetako bakoitzean:
 - Kirola
 - Landa Garapena eta Nekazaritza
 - Herritarren Segurtasuna
- Alderdi juridikoak, berdintasunaren alorreko arau-esparruaren eta inda-rrean dauden agindu juridikoen aplikazioaren berri emateko.
- Ohiko galderak.
- Adibide praktikoak.
- txantiloak.
- Glosarioa.

Jarraibide berriak eta jarraibide horien aplikazioa errazteko materialak ezaguta-razteko, 2012ko urriaren 24an aurkezpen bat egin zen Europa Jauregian. EAEko administrazio publikoetako 65 bat pertsona izan ziren bertan.

Bestalde, Emakundek 2007an sailek generoaren araberako eraginaren txostenak ongi egin zituztela egiaztatzeko eta hobekuntzak proposatzeko hasi zuen lanari dagokionez, administrazio-arauen eta -ekintzen 96 proiekturi buruzko txostena egin du Emakundek 2012an. Hurrengo taulan ikus daitezke proiektu horien xehetasunak:

2007-2012KO DATUAK

	LEGEAK	DEKRETUAK	AGINDUAK	EBAZPENAK	GUZTIRA
2007	6	25	12	1	44
2008	19	46	51	2	118
2009	3	49	35	4	91
2010	9	36	29	1	75
2011	18	54	14	1	87
2012	11	67	15	3	96
Guztira	66	277	156	12	511

Bestalde, generoaren araberako eraginaren txostenak erregistratzeko aplikazio informatiko bat egiten jarraitu da. Aplikazio horren bidez, ebaluatu daiteke emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko zer neurri sartu diren araudian, generoaren araberako eraginaren ebaluazio-prozesuaren ondorioz.

Horrez gain, Emakundeko langile batzuek irakasle-lanak egin dituzte, gai horri buruzko berariazko ikastaroaren laugarren edizioan. HAE Erekin elkarlanean diseinatu zen ikastaro hori, Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomia-dunetako langileentzat prestatutako 2008-2018 Berdintasunerako Prestakuntza Planaren baitan.

3.3. Berdintasun-planak: txostenak, aholkularitza

Emakunde sortzeko legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak ezarritakoaren arabera, Emakundek EAEko berdintasun-politiketarako jarraibide orokorrak jasotzen dituen plan orokor bat egin behar du, legegintzaldi bakoitzaren hasieran. Lege horrek berak agintzen duenari jarraituz, sail, erakunde autonomiadun, foru-aldundi eta udal guztiek beren planak egin behar dituzte, adierazitako plan orokor horretan xedatutako jarraibideen arabera.

Gainera, 4/2005 Legearen 15.4 artikulua ezartzen duenez, Eusko Jaurlaritzako sailtako eta foru- eta toki-administrazioetako berdintasun-planen txostena egin behar du Emakundek, plan horien edukiak Jaurlaritzaren plan orokorreko esku-hartze ildoetara eta jarraibideetara egokitzen diren edo ez ikusteko.

txosten horiek egitean, Emakundek zenbait irizpide hartzen ditu kontuan, planak Legearen edukietara eta Jaurlaritzak onartutako plan orokorraren helburu eta estrategietara ahalik eta gehien egokitzen direla bermatzeko: erakunde bakoitzaren beharrei buruzko diagnostiko batean oinarrituta egon behar dute; teknikoki eta ekonomiaren eta denboraren ikuspegitik bideragarriak izan behar dute; eta diagnostikoan adierazitako gizarte-errealitatea aldatzeko egokiak diren estrategiak, helburuak eta ekintzak jaso behar dituzte.

Foru- eta toki-administrazioei dagokienez, emakumeen eta gizonen berdintasunerako 6 plani buruzko txostenak egin ditu aurtan Emakundek.

LEHENENGO PLANAK	BIGARREN PLANAK	HIRUGARREN PLANAK	LAUGARREN PLANAK
GUFEn Emakume eta Gizonen arteko Berdintasuna Sustatzeko 1. Plana (2012-2015)	Gipuzkoako Foru Aldundiaren Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako II. Foru Plana 2012-2020	Abanto-Zierbenako Emakume eta Gizonen Berdintasunerako III. Plana 2012-2016	Bizkaiko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako IV. Foru Plana 2012-2015
Zeanuriko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Diagnostikoa eta I. Plana 2012-2015		Zallako Aukera Berdintasunerako III. Plana 2011-2015	

3.4. **Sektore-planei buruzko txostenak**

Politika orokorretan genero-ikuspegia txertatzen laguntzeko, Emakundek aholkuak eman ditu eta txostenak egin ditu, 2012. urtean, Eusko Jaurlaritzako sailek bul-tzatutako sektore-planei buruz:

- Immigrazioaren, Herritartasun eta Kultura arteko Bizikidetasunaren Plana 2011-2013
- Euskadiko III. Gazte Plana 2020 eta urteko plana.
- Ijito Herriaren Erabateko Sustapenerako eta Partaidetza Sozialerako II. Euskal Plana.
- Kulturen aldeko Herritartasun Kontratuaren programek generoan, kulturar-tekotasunean eta belaunaldien artean duen eraginaren azterketa.
- «Gizarteratzerako III. Euskal Plana (2011-2015). Gizarteratze Aktiboaren Euskal Plana», Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailarena.

3.5. Prestakuntza

4/2005 Legeak ezarritako betebeharrak zehatzak alde batera utzita, Emakunde sortu zenetik, profesionalen prestakuntza oinarritzeko estrategia izan da genero-ikuspegia kontuan hartzen duten politikak egiteko. Europako instituzioek prestakuntzaren garrantzia onartu eta gogorarazi dute, eta «EAEko Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako Jarraibideak» planean ere estrategia egokia dela planteatu da, aurreko planetan bezalaxe. Alde horretatik, prestakuntzak lehenetsuneko estrategia izaten jarraitzen du Emakunderentzat.

Prestakuntzarekin lotutako jarduerak zenbait jarduera-ildoren inguruan egituratzen dira Emakunden:

3.5.1. Aholkularitza espezializatua

Beste instituzio batzuei prestakuntza-jarduerak antolatzeko aholkuak ematen dizkie, eta edukiak diseinatzen, irakasleak eta materialak bilatzen eta erakundeak koordinatzen laguntzen die. Zeregin hori gero eta garrantzitsuagoa bihurtzen ari da azken urteetan.

Eginkizun hori betetzeko, 2012. urtean, HAEErekin batera lan egin da Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat prestakuntzako 2008-2018 Berdintasunerako Prestakuntza Planaren barruan. Plan hori Emakunderen zuzendaritzapean diseinatu zen, HAEEren eta Funtzio Publikoaren Zuzendaritzaren laguntzarekin. Alde horretatik, aholkuak eta laguntza eman zaizkie HAEEri eta Jaurlaritzako gainerako sailei, 2012rako pentsatutako prestakuntza-ekintzak diseinatzean eta gauzatzean. Zehazki, honako prestakuntza-ekintza hauetan hartu dugu parte:

- «Lengua y género: para un uso no sexista de la lengua». Administrazio Orokorreko langile guztientzat izan da, 16 ordukoa, eta 2012ko azaroaren 14tik 22ra bitartean egin da.
- «Gestión de los planes departamentales de igualdad». Jaurlaritzako sailek sailetako talde teknikoetan parte hartzeko izendatutako pertsonentzat izan da, 20 ordukoa, eta 2012ko maiatzaren 10etik 18ra bitartean egin da.

- «Diagnóstico y análisis de la realidad desde la perspectiva de género». Diagnostikoak eta azterketak egiten dituzten teknikarientzat izan da, 20 ordukoa, eta 2012ko otsailaren 6tik 9ra bitartean egin da.
- «Evaluación previa de impacto de género». Jaurlaritzako sailetan generoaren araberako eraginaren ebaluazioak egiten dituzten langileentzat eta berdintasunerako unitate administratiboetako langileentzat izan da, 20 ordukoa, eta 2012ko urriaren 15etik 18ra bitartean egin da.

HAEErekin batera egindako lan horretaz gain, generoari eta berdintasunari buruzko prestakuntza-ekintzak diseinatzeko aholkularitza teknikoa ere eman du Emakundek, Eusko Jaurlaritzako sailek eta foru- eta toki-administrazioek hala eskatuta.

Bestalde, aholkuak eman zaizkie hala eskatu duten ikastetxeei eta hezkuntzaren alorreko beste eragile batzuei, bai eta enpresei, profesional-elkarteei eta bestelako erakundeei ere, emakumeen eta gizonen berdintasunerako prestakuntza diseinatzeari eta antolatzeari buruz eta gai horretan adituak diren pertsonak eta horrekin lotutako materialak bilatzeari buruz.

3.5.2. Barne-prestakuntza

Prestakuntza-ekintza hauek Emakundeko langileentzat dira. Bi helburu dituzte:

- zenbait gaitan sakontzea eta irizpideak adostea, gai berriak izanik, oraindik nahikoa landu ez direlako.
- berdintasun-politikak sustatzeko erreferentzia egokiak izan daitezkeen esperientziak ezagutzea.

2012. urtean, Emakundeko langileek prestakuntza-ekimen interesgarri batzuetan parte hartu dute, bai HAEEk urte honetarako egindako prestakuntza-planaren barruan, bai eta Emakundek berak antolatutako jardueren barruan ere. Hona hemen prestakuntza-ekimen horiek: NAHIKOrren eta IX. Berdintasunerako Gunearen barruko hainbat prestakuntza-jarduera; EHUrekin lankidetzan antolatzen den udako ikastaroa; «Emakumeak goi-mailako kirolean» jardunaldia; «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko nazioarteko biltzarra. Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan»; eta Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astearen barruan antolatutako jardunaldia.

HAE Eren prestakuntza-planaren barruan, Emakundeko langileek honako ikastaro hauetan parte hartu dute:

- Los actos administrativos: su régimen jurídico y revisión.
- El procedimiento administrativo: el interesado, el silencio y sus fases.
- Régimen jurídico de las subvenciones públicas.
- Los convenios de la administración de la CAE: régimen, tramitación y aspectos presupuestarios.
- Ley de contratos del sector público y reglamento de desarrollo.
- La elaboración y modificación del presupuesto.
- Diagnóstico y análisis de la realidad desde la perspectiva de género.
- Módulo I: Habilidades directivas personales.
- Taller I: Comunicación eficaz.
- Taller IV: Novedades normativas en materias básicas.
- M6-Euskadi.net-gestor web departamental.
- M1-Euskadi.net gestor de contenidos general.
- Innovación dentro de una comunidad de práctica.
- Herramientas digitales de trabajo colaborativo para comunidades de prácticas.
- Ahozko jariora 3HE Gasteiz.
- Idazkuntza tailerra.
- Inteligencia emocional.
- Gestión del conocimiento.
- Bizkar eskola tailerra.
- Eizu estructura organizativa.
- Eizu curso de acción social.
- Eizu gestión de tiempos.
- Eizu gestor de expedientes: tramitación.
- Eizu curso transversal.

- Curso básico sobre administración electrónica.
- Curso avanzado sobre la administración electrónica.
- Gestión documental y administración electrónica.
- Excel 2003 básico.
- Powerpoint 2003.
- Outlook 2003.
- Internet 6.0.
- Formación en emergencias.

Horrez gain, Eusko Jaurlaritzako Berrikuntzaren eta Administrazio Elektronikoko Zuzendaritzako *prestakuntza-adabaki* direlako prestakuntza-jardueretan parte hartu dute. Honako hauetan, zehazki:

- Tramitagune: funcionalidades y manejo. Alta de expedientes.
- Gestión de trámites-tareas y estado de expediente.
- Interfaz de interoperabilidad.
- Proyecto de desarrollo 0.

Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako etengabeko prestakuntzari eta espezializazioari dagokionez, azpimarratu behar da Emakundeko talde teknikoko pertsona batzuek parte hartu dutela EHUren «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra. 2012-2013 ikasturterako ikasketa-plana» delakoan eta Osasun Eskola Nazionalak eta Emakumearen Institutuak antolatutako «Diploma de Salud Pública y Género» diploman.

Emakundek berak edo EAEko, Estatuko edo beste autonomia-erkidego batzuetako erakundeek antolatutako prestakuntza-jarduera hauetan ere hartu dute parte:

- Generoari eta ingeniartzari buruzko «HER TECHNO HOBBY / HER TECHNO JOB» mintegia. Deustuko Unibertsitateko Ingeniaritza Fakultatea. Urtarrilak 20.
- «Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan» mintegia. Emakunde. Bilbo, 2012ko otsailak 2.
- »I Congreso Internacional de Comunicación y Género«. Sevillako Unibertsitateko Komunikazio Fakultatea. Sevilla, martxoak 5, 6 eta 7.

- «Landu berdintasuna enpresetan» jardunaldia. Emakunde. Bilbo, 2012ko maiatzak 7.
- »Herri Administrazioetako Kudeaketaren Bikaintasunari buruzko IV. Kongresua». Q-EPEA (Erakunde Publikoen Elkargune Aurreratua). Barakaldo (BEC), maiatzak 17 eta 18.
- «Osasun laborala eta generoa» jardunaldia. Emakunde. Bilbo, 2012ko maiatzak 28.
- «Inmigrazioa eta indarkeria matxista» jardunaldiak. Herrizaingo Saila eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Donostia, ekainak 6.
- Euskadiko gurasotasun positiboko programen mintegia. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendari-tza, Euskal Herriko Unibertsitatea eta GizaLab. Bilbo, ekainak 8.
- «Polizia-jardunaldia: sexu-esplotaziorako helburuarekin emakumeak sa-lerostea». Herrizaingo Saila. Arkaute, ekainak 19.
- «Retos para la igualdad en las empresas». Emakunde (EHUren udako ikastaroen barruan). Donostia, ekainak 19 eta 20.
- «Genero sistematan sustraituta dagoen indarkeria: begirada bat gazteen errealitateari». EHUren udako ikastaroa. Donostia, uztailak 19 eta 20.
- «Enplegu publikoaren eredu baterantz» jardunaldiak. IVAP. Bilbo, irailak 19 eta 20.
- «Zuzenbidea emakumeen aurkako indarkeria matxistaren aurrean: aurre- rapenak eta erronkak» jardunaldiak. Herrizaingo Saila. Bilbo, irailak 20 eta 21.
- «Emakumeak goi-mailako kirolean» III. jardunaldia. Emakunde. Donostia, irailak 28.
- «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko na- zioarteko biltzarra. Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan». Emakunde. Bilbo, urriak 17, 18 eta 19.
- «Familia-politikak: gizarte-kohesioa lortzeko inbertsioa» kongresua. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Gasteiz, azaroak 6 eta 7.
- Genero-indarkeriari eta zuzenbideari buruzko jardunaldia. EHU. Gasteiz, azaroak 9.
- «XI Business Global Conference». Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo Saila. Barakaldo (BEC), azaroak 12.

- «Soldata-berdintasuna eta enpresako bikaintasuna». Emakunde (XVIII. Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astearen barruan). Bilbo, azaroak 15.
- «Generoa eta osasuna» jardunaldiak. Galdakaoko Udala, ZAINDUrekin lankidetzan (genero-indarkeriaren kontrako osasun-arloko profesionalak). Galdakao, azaroak 27 eta 28.
- «Boluntariotza eta parte-hartze soziala XXI. mendean. Alez ale, mendi bat» Estatuko XV. Boluntariotza Kongresua. Enplegu eta Gizarte Gaietako Saila. Barakaldo (BEC), azaroak 27, 28 eta 29.

Bestalde, Emakundeko langileek euskara-ikastaroetan parte hartu dute, hizkuntza-eskakizunak lortzeko, bai eta ELEBI programan ere.

3.5.3. Kanpoko prestakuntza

Beste instituzio eta erakunde batzuek antolatutako jardueretan hizlari gisa parte hartzea nahiz gure prestakuntza-jarduerak antolatzea hartzen ditu barnean.

Emakundeko langileek zenbait gai landu dituzte, honako ikastaro hauetan:

- NAHIKO programari buruzko hitzaldiak, zenbait erakundek antolatuak (ikusi «3.9.1. Nahiko» atala).
- Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate master ofiziala, Deustuko Unibertsitateak antolatua.
- Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra, Euskal Herriko Unibertsitateak antolatua.
- «Gestión de los planes departamentales de igualdad», EHAAk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Evaluación previa de impacto de género», EHAAk antolatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomiadunetako langileentzat.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak» on line ikastaroaren IV. edizioa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak antolatua, Gizonduz ekimenaren barruan.

- «Toki administrazioa lantoki gisa: berdintasuna bermatzeko betebeharrak eta neurriak», Bergarako Udalak antolatua, Emakundeko Gizonduz ekimenaren lankidetzarekin, Udaleko langileentzat.
- «Gizonak, berdintasuna eta maskulinitateak», Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko Familia eta Komunitate Politikarako Zuzendaritzak antolatua, Emakundeko Gizonduz ekimenaren lankidetzarekin, Zuzendaritza horretako langileentzat.

Beste sentsibilizazio-jarduera batzuetan ere hartu dute parte Emakundeko langileek hizlari gisa:

- «EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantzaren aurkezpena» hitzaldia, «EAEko gizon eta emakumeen arteko berdintasun esparruko ordenantza» jardunaldiaren barruan. Jardunaldia martxoaren 30ean izan da Bilbon, Berdinsarearen barruan.
- «Gizonduz ekimena» hitzaldia, «Familia-politikak: gizarte-kohesioa lortzeko inbertsioa» kongresuko «gurasotasun positiboan dauden praktika onak» gaiari buruzko mahai-inguruaren barruan. Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak antolatu du kongresua, Gasteizen, azaroaren 6an eta 7an.

Emakundek prestakuntza-jarduera hauek antolatu ditu zuzenean:

- Irakasleentzako mintegiak, NAHIKO programaren barruan⁴.
- »Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan» izeneko IX. Berdintasunerako Gunea prestatzeko mintegia. Mintegi hori 2012ko otsailaren 2an egin zen, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan, eta Berdintasunerako Gunean parte hartzeko interesa zuten erakundeentzat izan zen. Bi helburu izan zituen: batetik, jakinaraztea zer presentzia eta parte-hartze duten gaur egun emakumeek ekonomiaren esparruan, bai eta parte-hartze hori zailtzen duten zailtasunak, mekanismoak eta gizarte-oztopoak zein diren ere, eta azaltzea zer aukera eta estrategia dauden emakumeek alor horretan parte-hartze handiagoa izateko; bestetik, erakundeei bultzada bat ematea eta jarraibideak eskaintzea jarduerak egin ditzaten IX. Berdintasunerako Gunearen barruan; zehazki, «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako Jarraibideak» planeko I. ardatzeko (Emakumeak ahalduentzea eta baliok aldatzea) 2.1 (Emakumeen laneratzea, lan-baldintzak eta mailaz igotzeko aukera hobetzea), 2.3 (Baliabide sozialak eskuratzeko aukerak

4 Ikusi NAHIKO programa, 3.9.1 atalean.

hobetzea) eta 3.2 (Erabakiguneetan emakume gehiago egotea) programei buruz. Mintegi horretan, lanbide-orientazioan, prestakuntzan, enpresak sortzeko plan estrategikoetan eta emakumeen ekintzailertzan espezialista den Anna Mercadé Ferrandok bi hitzaldi hauek aurkeztu zituen: «Emakumeak ekonomiaren esparruan» eta «Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan».

- IX. Berdintasunerako Guneari hasiera emateko «Landu berdintasuna enpresetan» jardunaldia. 2012ko maiatzaren 7an egin zen, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan. Egunaren lehenengo zatian, honako hitzaldi hauek aurkeztu ziren: «Produktibitatean eragiten duten faktoreak eta berdintasunarekin duen zerikusia», Ekonomia Ikasketen Tomillo Zentroko (CEET) Leticia Henar Lomeñak eta Elvira González Gagok aurkeztua; eta «Enpresak antolatzeke eredu berriak eta berdintasuna ETEetan» Izaskun Merodio Vivancok eta Silvia Muriel Gómezek aurkeztua. Horrez gain, mahai-inguru bat egin zen hiru enpresaren jardunbide egokiak aurkezteko: Artez Euskara Zerbitzuarenak; GAIA telekomunikazio-industrien klusterrarenak; eta Kahlomediarenak. Egunaren bigarren zatiko jarduerak, berriz, Emakumeen eta Gizonezkoen Aukera Berdintasunerako Lankidetza Erakunde izaera aitortu zaien erakundeentzat soilik izan ziren. Kontraste-taldeak egin ziren lankidetza-erakundeekin; Emakundeko Programak eta Prestakuntza arloko langileek dinamizatu zituzten talde horiek, eta egunaren lehenengo zatian ikusitako gaiak landu zituzten.
- IX. Berdintasunerako Guneari amaiera emateko «Lan-osasuna eta generoa» jardunaldia. 2012ko maiatzaren 28an egin zen, Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan. Beraz, Emakumeen Osasunaren aldeko Nazioarteko Egunean izan zen. Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendari María Silvestre Cabrerak eta Osalan-Laneko Segurtasun eta Osasunerako Euskal Erakundeko zuzendari Pilar Collantes Ibáñezek inauguratu zuten. Honako hitzaldi hauek aurkeztu ziren: «Emakumeak, osasuna eta lanak», Bartzelonako Osasun Analisi eta Programetarako Zentroko (CAPS) Carme Valls Llobetek aurkeztua; «Arrisku psikosozialak lan-harremanetan», Lanaren, Ingurumenaren eta Osasunaren Institutu Sindikala (ISTAS)-CCOO erakundeko Neus Moreno Saezek aurkeztua; «Lan-arriskuen prebentzioa, emakumeen eta gizonen berdintasuna, eta negoziatzioa EAEn», Donostiako Enpresa Ikasketen Unibertsitate Eskolako Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra den Maria Nieves Martínez Gayosok aurkeztua; eta «Lan-arriskuen prebentzioa, genero-ikuspegitik. Osalan», antolamenduko ingeniaria eta Osalaneko Plangintzako KLTko koordinatzailea den Victoria Álvarez Cidek aurkeztua. Horrez gain, «Lan-arriskuen prebentzioa eta generoa. Hainbat erakunderen esperientziak» izeneko mahai-ingurua egin zen, eta Osalanen Arabako lurralde-zen-

troko LOUko sendagile den Arrate Padilla Magunacelayak egin zituen moderatzaile-lanak. Honako hauek hartu zuten parte mahai-inguruan: Eroski taldeko Marta Carazo Españak eta Lourdes Tellería Oyarbidek, Eusko Jaurlaritzako Prebentzio Zerbitzuko Inés Álvarez Vázquezek eta EHUko Iñigo Apellaniz Gonzálezek.

- «Retos para la igualdad en las empresas» udako ikastaroa. Donostian egin zen, ekainaren 19an eta 20an, EHUren udako ikastaroen barruan. Ikastaroak helburu hauek izan zituen: lehenik eta behin, egiaztatzea lotura bat dagoela enpresetan berdintasuna sustatzeko neurriak hartzearen eta adierazle ekonomiko hobeak lortzearen artean; bigarrenik, aztertzea zer kudeaketa-modu berri eskatzen dituzten erronka ekonomiko berriek, eta nolakoak izan behar duten kudeaketa-modu horiek, emakumeen eta gizonen berdintasuna bermatzeko, erakundeetako maila guztietan; eta, azkenik, hausnartzea zer aldaketa egin behar diren egungo ekonomia-ereduan, hazkunde ekonomiko bidezkoago, erantzukideago eta paritarioago baterantz aurrera egiteko. Honako gai hauek landu zituzten: «Economía y empresa: claves para un crecimiento corresponsable, equitativo y paritario», María Pazos Moránek aurkeztua; «Presencia e influencia de las mujeres en la transformación empresarial y económica» Ana Armesto Campok aurkeztua; «Nuevos modelos de gestión empresarial e igualdad de mujeres y hombres», Leire Gartzia Fernandezek aurkeztua; «Organización social corresponsable: corresponsabilidad y relaciones laborales», Amparo Ballester Pastorek aurkeztua; eta «El presupuesto como herramienta para la igualdad: el caso del Gobierno Vasco», Ainhoa Novo Arbonak aurkeztua.
- «Emakumeak goi-mailako kirolean» III. jardunaldia. Irailaren 28an egin zen Donostian, Hegalak kirol-zentroan. Jardunaldi horren helburuak izan ziren, alde batetik, egungo egoerari buruzko informazioa ematea, eta, bestetik, goi-mailako emakumezko kirolarien ibilbideei eta profesionalizazio-prozesuei buruz hausnartzea eta eztabaidatzea. María Silvestre Cabrerak (Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko zuzendaria), María Blanca Urgell Lázarak (Eusko Jaurlaritzako Kultura sailburua) eta Mikel Izaguirre Anabitartek (Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko presidentea) inauguratu zuten jardunaldia. Jardunaldi horretan, Patxi Mutiloa Aldazabalek (Eusko Jaurlaritzako Kirol zuzendaria) «Emeki-emeki, citius, altius, fortius» ikus-entzunezkoa aurkeztu eta proiektatu zuen. Hiru mahai-inguru egin ziren. «Erreferente diren emakume kirolariak» izan zen lehena; Cristina Gallo Suárez kazetariak egin zituen moderatzaile-lanak, eta bertan izan ziren Leire Olaberria Dorronsoro txirrindularia, Naroa Agirre Kamio pertika-jauziko atleta, Tania Lamarca Celada gimnasta eta Maider Unda González de Audicana borroka libreko espezialista. «Teknikariak: emakumeekin lan egiten duten gizonak, gizonekin lan egiten duten emakumeak» izan zen bigarren



«Emakumeak goi-mailako kirolean» jardunaldia

mahai-ingurua; Ainhoa Azurmendi Etxegaray Avento Aholkularitzako kirol-aholkulariak egin zituen moderatzaile-lanak, eta parte-hartzaileen artean izan ziren Diana Hausheer Clemente kirol-medikua, Jacobo Vázquez Altuna kirol-medikua eta Ane Herrero Aspiazu eskubaloi-entrenatzailea. Hirugarren mahai-ingurua «Emakumeak kirol egokituan» izan zen; Amaia Elizondo Martiarena kazetariak egin zituen moderatzaile-lanak, eta parte-hartzaileen artean izan ziren Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioko Alicia Figueroa de la Paz, Salto Bera Berako jokalaria Haizea Erquicia Urtizberea eta Ana García Simón igerilari ohia.

- «Soldata-berdintasuna eta enpresako bikaintasuna» jardunaldia. Emakundek antolatu zuen, XVIII. Kalitate eta Bikaintasunaren Europar Astearen barruan «Euskalitek sustatu du aste hori», eta 2012ko azaroaren 15ean egin zen Eusko Jaurlaritzak Bilbon duen egoitzan. Honako parte-hartzaile hauek izan ziren: Jaime Cabeza Pereiro, Vigoko Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko katedraduna, «Ordainsaria dela-eta sexuen artean gertatzen den diskriminazioa. Diskriminazio sistemikoa» hitzaldiarekin, bai eta Maru Sarasola Anzola, Maru Sarasola Coaching & Leadership enpresako aholkularia, eta Estíbaliz García Cano, Ados Consulting enpresako berdintasun-aholkularia ere, Emakundek soldata-arrailaria buruz egindako ikerketa aurkeztu baitzuten, «Arraila argitzen. Soldata-arraila eragiten duten adierazleak eta faktoreak identifikatu eta hautatzea» izeneko hitzaldiarekin.



Kalitatearen eta Bikaintasunaren XVIII. Aste Europa

Gainera, jardunaldi horretan izendapen-plakak eman zitzaizkien 2012. urtean Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetzaren Erakunde izendapena eskuratu duten zortzi erakundeei.

EMAKUMEEN ETA GIZONEN BERDINTASUNERAKO POLITIKAK BULTZATZEKO NAZIOARTEKO BILTZARRA. GOGOETAK ETA ESTRATEGIAK KRISI, SARE ETA BERRIKUNTZEN TESTUINGURUETAN

Azpimarratu behar da Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeak «Emakumeen eta gizonen berdintasunerako politikak bultzatzeko nazioarteko biltzarra. Gogoetak eta estrategiak krisi, sare eta berrikuntzen testuinguruetan» antolatu duela 2012an. Bilboko Euskalduna Jauregian egin da, urriaren 17an, 18an eta 19an.

Nazioarteko Biltzar horri esker, emakumeen eta gizonen berdintasunerako politika publikoek azken urteetan lortutako aurrerapenei buruz hausnartu ahal izan da; izan ere, eztabaidak egin dira erakundeen, zenbait alorretako administrazioen, mundu akademikoaren eta mugimendu feministaren artean.



Berdintasun Politikak bultzatzeko Nazioarteko Kongresua

Biltzarrean zehar, azken hamarkadetan egindako esperientzia zehatzak aztertu dira, erabilitako estrategiak ebaluatu dira, eta gizartean izandako ondorioen eta emaitzen balantzea egin da. Helburua izan da emakumeen eta gizonen benetako berdintasuna lortzeko politika publikoak sustatzen lagunduko duten proposamenak egitea.

Biltzarrean, erakundeetako ordezkariak, zenbait alorretako administrazioetako arduradunak eta teknikariak, unibertsitateko irakasleak, ikasleak eta aktibista feministak elkartu dira, eta Asiatik, Amerikatik, Afrikatik eta Europatik etorritako hizlari gonbidatuekin batera, berdintasunerako politika publikoen oraina eta etorkizuna aztertzeko topagune bihurtu dute egun hauetan Bilbo.

Biltzarra lau osoko bileraz eta lau komunikazio-panelez osatuta egon zen. Osoko bilerak Biltzarrak iraun zuen hiru egunetan zehar egin ziren; komunikazio-panelak, berriz, urriaren 18ko goizean egin ziren.

Honako hauek izan ziren osoko bilerak:

I. osoko bilera. Mundu globalaren erronkak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko.



Berdintasun Politikak bultzatzeko Nazioarteko Kongresua

II. osoko bilera. Arazo globalei buruzko ikuspegi desberdinak: emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko proposamenak.

III. osoko bilera. Europako berdintasun-politikak eta esku hartzeko estrategiak.

IV. osoko bilera. Mugimendu feminista eta emakume-elkarteak krisiaren aurrean.

Lau komunikazio-panelak, berriz, «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako Jarraibideak» planaren ardatzetan oinarritu ziren.

1. Panela.- Gobernantza.
2. Panela.- Ahalduntzea eta balioak aldatzea.
3. Panela.- Gizarte-antolakuntza erantzunkidea.
4. Panela.- Emakumeen aurkako indarkeria.

Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko María Silvestre Cabrerak inauguratu zuen Biltzarra. Ondoren, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko Gizarte Antropologiako irakasle titularra den Virginia Maquieira D'Angelok «Genero-berdintasuna eta arriskuaren gizarte» izeneko **inaugurazio-hitzaldia** eman zuen.

«Mundu globalaren erronkak emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egiteko» izeneko **I. osoko bileran**, EHUko Historia Garaikideko irakasle titularra den Pilar Pérez-Fuentesek moderatzaile-lanak egin zituen. Osoko bilera horretan parte hartu zuten Amaia Pérez Orozco ekonomialari feministak, Gloria Bonder FLACSO–Argentina fakultateko Genero, Gizarte eta Politika Arloko zuzendariak eta Wassyla Tamzali aljeriar feminista, idazle eta UNESCO erakundeko Emakumeen Eskubideetarako zuzendari ohiak.



Nazioarteko Kongresuko partaideak

«Arazo globalei buruzko ikuspegi desberdinak: emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko proposamenak» izeneko **II. osoko bileran**, honako parte-hartzaile hauek izan ziren: Christine Epoluke, Afrikako (RDC) Emakume Ministro eta Parlamentarioen Sareko lehen presidenteordea; Kate Lappin, Asia Pacific Forum on Women, Law and Development (APWLD) erakundeko lurralde-koordinatzailea; Lorena Guadalupe Peña Mendoza, El Salvadorreko Batzar Legegileko diputatua; eta Roxana Delgado, NBE-Emakumeak erakundeko koordinatzailea El Salvadorren, bai eta «Ciudades Seguras para las mujeres» programaren koordinatzailea ere. Teresa del Valle gizarte-antropologo eta EHUKo ohorezko laguntzaileak egin zituen moderatzaile-lanak osoko bilera horretan.

«Europako berdintasun-politikak eta esku hartzeko estrategiak» izeneko **III. osoko bileran**, honako hauek izan ziren parte-hartzaileak: Paola Villa, Trentoko Unibertsitateko (Italia) Ekonomia irakaslea; María Bustelo Ruesta, Madrilgo Unibertsitate Konplutentseko Herri Politiketako irakaslea; Rosa Escapa Garrachón, Emakumeen Lobby Europarraren Espainiako Koordinakundeko (CELEM) presidentea; eta José Ángel Lozoya Gómez, Hombres por la Igualdad Foroko kidea. Reina Ruiz Bobes berdintasun-teknikariak egin zituen moderatzaile-lanak.

«Mugimendu feminista eta emakume-elkarteak krisiaren aurrean» **IV. osoko bileran**, María de Maeztu Forum Feministako kide den Begoña Gorospe Pascualek egin zituen moderatzaile-lanak. Honako hauek izan ziren parte hartu zuten hizlariak: Begoña San José Serrán, Politika Feministaren Forumeko eta COMPI – Partaide-tzarako eta Berdintasunerako Emakumeen Erakundearen Koordinakundeko kidea; Teresa Maldonado Barahona, bigarren hezkuntzako Filosofia irakaslea eta feministalde taldeko aktibista feminista; Sua Fenoll Flórez, aktibista feminista eta Madrilgo 15Mko Feminismos Sol batzordeko parte-hartzailea; eta Shams Abdi, Tunezeko Emakumeen aldeko Nazioarteko Martxako kidea.

Marcela Lagarde y de los Ríos mexikar antropologo feminista eta gaur egun NBE-Emakumeak erakundeko aholkulariak egin zuen itxiera-hitzaldia. Eta, azkenik, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusi Arantxa Elizondo Lopetegi arduratu zen Biltzarraren ondorioez eta amaieraz.

Komunikazio-panelen koordinatzaileak, berriz, honako hauek izan ziren: **1. panelean** (Gobernantza), Raquel Raposo Acevedo, Emakundeko Programak eta Prestakuntza arloko arduraduna; **2. panelean** (Ahalduntzea eta balioak aldatzea), Carmen Díez Mintegui, antropologoa eta EHUko irakaslea; **3. panelean** (Gizarte-antolakuntza erantzunkidea), Raquel Royo Prieto, Soziologiako doktorea eta Deustuko Unibertsitateko Emakumeen kontrako indarkerian esku hartzeko unibertsitate-master ofizialeko zuzendaria; eta, **4. panelean** (Emakumeen aurkako indarkeria), Mariola Serrano Argüeso, Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazio Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko zuzendaria.

66 komunikazio aurkeztu ziren guztira, eta Batzorde Zientifikoak 34 aukeratu zituen, Biltzarrean aurkezteko: 1. paneletik 9; 2. paneletik 10; 3. paneletik 6; eta 4. paneletik 9. Gainerako komunikazioetatik, 26 aukeratu ziren guztira, etorkizunean argitaratzeko. Honela daude banatuta: 1. paneletik 3; 2. paneletik 15; 3. paneletik 1; eta 4. paneletik 3.

Biltzarrean izan ziren guztiek oso balorazio ona egin dute. Balorazioaren barruan, edukiak, antolaketa eta parte-hartzearen arrakasta hartu dira kontuan.

407 pertsonak eman zuten guztira izena Biltzarrean, kontuan hartzen baditugu hizlariak eta moderatzaileak (27 pertsona), bertaratuak (346 pertsona) eta komunikatzaileak (34 pertsona). Horietatik 42 pertsona ez zirenez akreditatu, bertaratuen benetako kopurua 365 izan zen.

3.6. Jarraipena eta ebaluazioa

Botere publikoek gero eta garrantzi handiagoa eman diote politika publikoen ebaluazioari, eta, gaur egun, funtsezko egitekoa bihurtu da. Eusko Jaurlaritzaren plangintza egiteko jarraibideen dokumentuak adierazten duen moduan, atzean geratu da neurri publikoen ebaluazioari buruzko ikuspegi jakin bat, ekintza publikoa soilik arduradun politikoei eta kudeatzaile publikoei interesatzen zitzaiela ikusarazten zuena, eta, haren ordeztu, gaur egungo ikuspegiak aldarrikatzen du gizarte osoari eman behar zaiola administrazio publikoen jardueraren berri eta aurrez egindako politikak aztertu behar direla, hurrengo erabakiak hartzeko erreferenteak izan daitezkeen. Dokumentu horrek berak nabarmentzen du politika publikoen ebaluazioak zer-nolako garrantzia hartu duen, bai konpromiso politikoaren betetze-mailaren erreferentzia moduan, bai zerbitzu edo jarduera publiko batekin jarraitu ala ez erabakitzeko orduan.

Emakundek 1991n ekin zion berdintasun-politikak ebaluatzeari, eta ezaguna eta aitortua da politika publikoen ebaluazioaren alorrean egin duen lana, bai aldizkakotasunari eta sistematizazioari dagokionez, bai bere deszentralizazio-mailari dagokionez. Gogoratu beharrekoa da euskal botere publikoek, Instituto Vasco de la Mujer / Emakumearen Euskal Erakundea sortarazteari buruzko 2/1988 Legeak eta Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak arautzen dutena betetzeko, berdintasun-politikak egin behar dituztela beren beharrian eta lehentasunetatik abiatuta, eta legegintzaldi bakoitzeko berdintasun-plan orokorrak zehazten dituen jarraibideak bete behar dituztela beti.

Jaurlaritzak, amaitu berri den IX. legegintzaldian, bereziki azpimarratu du horren garrantzia, eta nabarmendu du beharrezkoa dela ebaluazio sistematikoak egitea etengabe plangintza-prozesu guztian; hau da, plana eratzen den unetik hasi (aurreko erreferentziak kontuan hartuta) eta plana gauzatu ondorengo ebaluazioa egin arte, gerora hartu beharrekoko erabakiak ahalik eta ondoen hartzeko.

Printzipio horiek aintzat hartuta, EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planak berariazko atal bat du ebaluazioa arautzeko. Atal horretan adierazten denez, Planaren ebaluazioa egiteko, estrategia pluralista eta malgu bat hartuko da oinarritzat, eta honako hauek konbinatu beharko ditu, planaren ezarpen-urteetan zehar: alde batetik, Plana eta Legea gauzatzearen balorazio sakon eta orokor bat, kontuak emateari eta balorazio orokorrari erreparatuz; eta, bestetik, berdintasun-politikek eragina izan dezaten funtsezkotzat jotzen ditugun eta ikasteko eta hobetzeko erabilgarriak diren alderdi espezifikoaren azterketa fokalizatuak. Ebaluazio-prozesuak estrategia batzuk konbinatuko ditu: betetze-mailaren ebaluazioa, koherentziaren ebaluazioa, prozesuaren ebaluazioa eta eraginaren ebaluazioa.

V. Planak arautzen duen konpromiso horri erantzuteko, bi prozesu abiarazi zituen Emakundek 2010. urtean. Prozesuetako batek Eusko Jaurlaritzako sailek EAEko

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana lantzeko egiten dituzten berdintasun-planen koherentzia ebaluatzea du xede, eta besteak, genero-politikei buruzko informazio-sistema bat sortzea EAEn.

Bi prozesu horiek joan den urtean amaitu ziren, 2011n, dagokion txostenean adierazi zen moduan. Bertan adierazi zen, bestalde, prozesu berri bat martxan jartzeak dakartzan lanen ondorioz (sistema informatikoak egokitzea, parte hartuko duten eragileek ikasi behar izatea...), txosten bakar batean jasoko zela botere publikoek 2010. eta 2011. urteetan egindako jardueren jarraipenaren emaitza.

Beraz, 2012. urte honetan, botere publikoek 2011n EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana gauzatzeko egindako jardueri buruzko informazioa jaso eta tratatu da, eta, jasotako informazioaren azterketaren emaitza nagusiak ebaluatzeko saioak egin ondoren erakunde parte-hartzaileekin, 2010eko eta 2011ko txosten bateratu hori egin da.

Horrez gain, kontuan hartu da Eusko Jaurlaritzako sailek emandako informazioa, Eusko Jaurlaritzak 2010ean eta 2011n emakumeen eta gizonen berdintasunerako egindako jardueren jarraipenari buruzko dokumentua egiteko. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Sail arteko Batzordearen uztailaren 5eko bileran aurkeztu zen dokumentua.

Bestalde, adierazitako informazio-sistema sortu eta martxan jartzeak dakartzan hedapen-aukerak optimizatzeko, erakunde parte-hartzaileen jardueren geoerreferentziatzaile batekin osatu da sistema. Beraz, erakundeek nahiz gizarte osoak eskuragarri izango dute EAEko berdintasun-politiken alorreko jardueren eta egoeraren mapa bat, Internet bidez kontsulta azkar bat egin ahal izateko.

Azkenik, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako 4/2005 Legeak 5. artikuluan Emakunderi atxikitzen dizkion eginkizunak kontuan hartuta, eta EAEn emakumeen aurkako indarkeriaren alorrean dauden programen eta baliabideen eraginkortasuna eta norainokoa ebaluatzeko prozesuarekin jarraituz, ebaluatu egin dira etxeko tratatu txarrak eta sexu-indarkeria jasaten dituzten emakumeei ematen zaien laguntza hobetzeko tokiko protokoloen egoera, ezaugarriak, garapena eta emaitzak.

Azpimarratzekoa da Berdintasun protokolo-taldeak ebaluazio horretan egin duen lana, ekarpen garrantzitsuak egin baititu ikerketa-prozesuan, eta azpimarratzekoa da, halaber, hainbat toki-entitate, elkarte, profesional eta erakunderen lankidetzak, ikerketa egiten lagundu baitute.

ERAGINAREN EBALUAZIOA

Eraginaren ebaluazioa egitea, hau da, politika publikoek dituzten ondorioak neurtzea, gero eta funtsezkoagoa da erabaki politikoak hartzeko garaian. Garrantzi hori are handiagoa da aurrekontu-murrizketen testuinguru batean, politiken eraginkortasuna hobetzea eta haien gaitasun estrategikoa finkatzea ezinbestekoa baita halako egoeretan. Lehen adierazi den moduan, V. Planak berak arautzen du ebaluatu egin behar direla berdintasun-politikek gizartean dituzten eraginak, eta, lan hori egiteko, ebaluaziorako eta jarraipenerako adierazle batzuk zehazten ditu, helburu eta jarduera-eremu jakin batzuekin lotuta. Hala ere, eraginaren adierazleen operatibitatea handitu behar da, prozesua finkatuko bada.

Aurrez aipatu dugun moduan, hori da Eusko Jaurlaritzaren IX. legealdirako EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren ebaluazioaren diseinu orokorrean kontuan hartutako beste ebaluazio-dimentsio bat. Alde horretatik, 2011. urtean lan-prozesu bat jarri zen abian, dagoeneko zeuden adierazleen eta egon zitezkeen aurretiko azterketa sakon bat egiteko. Prozesua aurtan amaitu da, 2012. urtean, berdintasun-politikek EAEen eraginaren ebaluazioa egiteko tresna bat sortu baita.

Proposatutako adierazle estrategikoen helburua da, egoeraren azterketa egiteaz gain, beste luzetarako azterketa konparatu batzuk egitea, jakiteko ea botere publikoek emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean hartutako neurriek betetzen duten helburu hori, eta zer neurritan betetzen duten. Laburbilduz, proposatutako adierazle estrategikoen aukera ematen digute gure gizarteari sakon behatzeko eta Berdintasunerako V. Planean ezarritako helburuak lortzen aurrera egin dugun edo ez aztertzeko.

12 adierazle proposatu dira, zehazki; adierazle horiek aldian behin aplikatuz gero, informazio konparatua eskuratu ahal izango dugu denboran zehar, eta ikusi ahal izango dugu zer neurritan lortu duten berdintasun-politikek berdintasunezko gizarte justuagoak eraikitzea.

3.7. Emakumeen elkarteak eta berdintasunaren aldeko mugimenduak bultzatzea eta indartzea

3.7.1. Aholku Batzordea

Aholku Batzordea Euskadiko elkarteekin hitz egiteko eta komunikatzeko organoa da, eta dagozkion ohiko eginkizunak betetzen jarraitu du. Emakundek, berriz, Aholku Batzordeak EAEko Administrazio Publikoaren maila guztietan sortutako sektoreko partaidetzarako organoetan ordezkaritza izatea sustatzen jarraitu du. Horrez gain, udalerrietan, eskualdeetan eta lurralde historikoetan elkarte guztiekin bilerak egitea bultzatu du.

Sortu zenetik, Emakunderen jardueraren ardatz nagusietako bat emakumeen elkar-te-sarea bultzatzea eta sendotzea izan da, eta, horretarako, emakumeen parte-hartzea bultzatu du, bai politiken diseinuan, bai esku-hartze publikoaren esparruetan erabakiak hartzeko orduan. Lan horren ondorioz, elkarteekin harremana izateko eta trukerako mekanismoak sortuz joan dira, eta elkarte horien arteko trukea eta lan koordinatua ere sustatu eta babestu da. Horren guztiaren emaitza da Emakundeko Aholku Batzordea, eta horren guztiaren emaitza da, halaber, elkarteek gero eta gehiago laguntzen dutela gizartea sentsibilizatzen eta aldatzen, berdintasun handiagoa lortzeko.

Emakundek prozesu hori bultzatzen eta sendotzen jarraitu du; hau da, emakumeek gizartean eta politikan parte hartzeko dinamika eta estrategia berriak abiarazten eta finkatzen jarraitu du, prozesu konplexua bada ere.

Testuinguru horretan, lurralde historikoetan elkarteekin bilerak bultzatzen eta dinamizatzen jarraitu du, elkartearen jarduera-eremua eta elkarte horiek toki- edo lurralde-administrazioekin duten harremana edozein dela ere; bilera horien helburua da sareak finkatzea, koordinazio egonkorra lortzea eta interes komuneko ekimenak eta proiektuak adostea.

Emakundeko Aholku Batzordeko elkarte-ordezkariek lurralde historiko bakoitzean parte har dezaten bultzatu da, elkarrekin lan egitearen kultura sortzeko. Horri esker, ekintza zehatzak martxan jarri dira eta etorkizunerako konpromisoak zehaztu dira, emakumeek parte-hartze aktiboa izateko elkarte-sarearen bidez.

Hona hemen 2012ko jarduerak:

- Lurralde historikoetako aholku-azpibatzaordeen bilerak egin dira, parte-hartzeari buruzko aholkuak emateko eta parte-hartze hori errazteko eta dinamizatzeko, bai eta sareko proiektuak bultzatzeko ere.
- Aholku Batzaordearen barneko batzaordeei eta beste lantalde batzuei laguntza eman zaie eta jarraipena egin zaie. Lantalde horien artean, honako hauek daude:
 - Gizarte-bazterketaren esparruan lan egiten duten elkarteak.
 - Emakume alargunen elkarteak.
 - Komunikabideak eta elkarre-mugimendua.
 - Parte hartzeko prestakuntza-plangintza dinamizatzen laguntzen duten elkarteak.
 - Emakume etorkinen ordezkariak.
 - Landa-eremuetako emakumeen ordezkariak.
 - Ezintasunak dituzten emakumeen ordezkariak.
 - Emakume ijitoen ordezkariak.

3.7.2. Emakume-taldeei emandako aholkularitza eta laguntza

Aholkularitza eta laguntza eman zaie eta jarraipena egin zaie zenbait proiektuari

Parte-hartzearen eremuan genero-ikuspegiz egin diren prestakuntza-proiektuei aholkularitza emateaz gain, aholkularitza tekniko eman zaie hala eskatu duten elkartei ere, genero-ikuspegia barnera zezaten beren proiektuak egin eta ebaluatzean. Honako hauek izan dira, zehazki, laguntza jaso duten elkarteak:

- EAEko emakume alargunen sareak.
- Lurralde historikoetako emakume-elkarteen mugimenduak eta komunikabideak.
- Landa-eremuetako emakumeen elkarteak.
- EAEko emakume ijitoen elkarteak.
- EAEko emakume ezindak; hau da, erakunde mistoetako emakumeen arloko ordezkariak.

- Tokiko, eskualdeko eta lurralde historikoetako sareak finkatzen eta sortzen lagunduko duten proiektuak babestu dira, tokiko administrazioekin batera.
- Erakunde mistoetako emakumeen arloak.

Horrez gain, tokiko sareak, mankomunitatekoak, lurraldeko historikokoak, Autonomia Erkidegokoak eta autonomia-erkidegoen artekoak indartzeko ekintzei eta dinamikei buruzko aholkuak eman dira.

Prestakuntza-jarduerei ere eman zaie laguntza

Emakumeen elkarrekin biltzeko nahiz horiek elkarrekin biltzeko guneak eskaintzen, sustatzen eta finkatzen jarraitu dugu. Gune horietan, besteak beste, elkarteen barneko prestakuntza-beharrak landu dira, bai eta antzeko prestakuntza-interesak dituzten elkarteen artean koordinatutako prestakuntza-proiektuak antolatzekeo estrategiak ere.

Lurralde historiko bakoitzean eta hala eskatu duten eskualdeetan topaketak eta prestakuntza sustatzen jarraitu dugu. Helburua izan da partaidetza aktiboagoaren oinarriak finkatzea, orain arte erabili gabeko ereduarekin eta estrategiekin, bai emakumeen erakundeen barne-dinamikari dagokionez, bai eta emakumeek tokiko, lurralde historikoko, Autonomia Erkidegoko, Estatuko edo nazioarteko sareetan parte hartzeari dagokionez ere.

Bestalde, testuinguru horretan eta Aholku Batzordearen baitan, laguntza eta babesa eman zaie Emakunderekin lurralde historiko bakoitzean partaidetza eta sare-lana sustatzeko erabili beharreko dinamika- eta metodologia-motak eztabaidatzen ari diren lan-batzordeei. Pixkanaka-pixkanaka EAEko emakumeen elkarre-mugimenduen egungo bilakaera adierazten duen ordezkari-tza dinamikoagoa lortzeko urratsak egiten ari dira, ordezkari gehiago izatearen aldeko apustua eginez.

Eusko Jaurlaritzako Industria Saileko SPRI baltzuarekin batera, teknologia berriei buruzko prestakuntza trinkoko bi jardunaldi prestatu ditugu, lurralde historikoetako aholku-azpibatzeordeetako lantaldeetan parte-hartze aktiboa duten emakume-elkarreentzat. Prestakuntza-programa horren edukiak aukeratzean, kontuan hartu dira azpibatzeorde horien helburuak eta zereginak, bai eta genero-ikuspegiari buruz sentsibilizatzekeo eta ikuspegi hori txertatzeko beharra ere.

Gizartean eta politikan genero-ikuspegitik parte hartzekeo etengabeko prestakuntzarakeo guneak finkatzen jarraitu dugu.

Ekimen berriak ere bultzatu ditugu, haiek ebaluatu ondoren prestakuntza-jarduerak berriak sustatzeko. Esperientziatzako ikaskuntzako dinamikak erabili dira horretarako, eta generoaren teoria eta aholku-azpibatzeordeetan egin den prozesuak lana izan dira, besteak beste, prestakuntzaren iturriak. Prestakuntzaren edukia hiru gunetan banatu da: lankidetzari eusten ikasteko; emakumeen lidergoari eta ko-

munikazioari buruz ikastekoa; eta aholku-azpibatzaorde horien lankidetzaren bidez bildutako jakintza kudeatzekoa.

Lankidetzaz-ildo horri jarraituz, aholkularitza eman zaie EAEko emakumeen elkar-teei, udalei eta gizarte-eragileei, sentsibilizazio eta prestakuntzako hitzaldiak, mintegiak eta jarduerak antola ditzaten elkarriketa soziopolitikoaren eta partaidetza-organoen dinamizazioaren alorretan, bai eta herritarren partaidetza genero-ikuspegiarekin bultzatzeko, koordinatzeko eta babesteko lan-metodoen alorrean ere.

Aurten, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen, Lurralde Plangintza, Nekazaritza eta Arrantza Saileko Landa Eremuko Emakumeen Batzordearen antolaketarako eta funtzionamendurako irizpideei eta itunei buruzko dokumentu bat egiten lagundu dugu.

Eusko Jaurlaritzako parte-hartze batzordeekin batera, aholkularitza eta laguntza eman zaie zenbait prestakuntza-prozesuri, genero-ikuspegia txerta dezaten modu etengabea. Kasu batzuetan, batzorde horiek osatzen dituzten emakume-elkar-teen bidez egin da; beste batzuetan, berriz, herritarrentzako prestakuntza- eta sentsibilizazio-jardunaldiak kudeatzeaz eta egiteaz arduratu diren teknikariei eskaintako prestakuntza-prozesuen bidez.

KZguneen sarearekin eta 2015 Agenda Digitalarekin batera, «Emakumeak Sarean» prestakuntza-ekimenaren bigarren edizioa jarri dugu martxan. Helburua da prestakuntza, trebakuntza eta errefortzua ematea informazioaren eta komunikazioaren teknologiak erabiltzen ikasi nahi duten emakumeei, beren gauzetarako nahiz EAEko emakume-elkar-teen eta -kolektiboen barruan erabili ahal izateko.

Trukaketak eta koordinazioa errazten dituzten tresnak eguneratu dira

«Euskal Autonomia Erkidegoko Emakumeen Elkar-teen Gida» banatzen eta eguneratzen jarraitu dugu. Horrez gain, EAEn gizonen eta emakumeen berdintasuna sustatzen duten elkarte mistoen, erakundeen eta taldeen helbidetgia berrikusten eta zabaltzen jarraitu dugu. Helburua da baliabideak koordinatzea eta optimizatzea, eta esperientziak elkarri adierazteko tresna bat izatea, elkarteen arteko sareak sortu eta sendotzeko.

Trukaketa bultzatu dugu Estatuko eta nazioarteko emakume-elkar-tee mistoekin eta eremu desberdinetan lan egiten duten beste elkarte misto batzuekin.

3.7.3. Laguntza ekonomikoa

Emakumeen elkarteak eta federazioak

Aholkularitza teknikoaz eta jarduerak antolatzeke babesa emateaz gain, Emakundek elkarteen jarduera ekonomikoki babesten jarraitu du, diru-laguntzen urteroko deialdiaren bitartez. Irabazi-asmorik gabeko emakume-elkarte eta -federazioentzat da deialdia, bai eta emakumearen sustapena xede eta jarduera-eremu bakartzat duten fundazioentzat ere. Deialdiaren helburua honako hau da: emakumeen parte-hartzea eta prestakuntza bultzatzen duten elkarteak eta jarduerak sustatzea. Emakundek behar duten laguntza teknikoa ematen die, bai proiektuak egiteko prozesuan, bai diru-laguntzak izapidetzeko prozesuan. Gainera, beste administrazio batzuen diru-laguntza deialdiei buruzko informazioa ere ematen die.

Deialdian eskaera aurkeztu duten 124 elkarteetatik, 119k jaso dute diru-laguntza. Guztira, 180 proiektu lagundu dira diruz, eta 320.000 euro erabili dira horretarako. Bestalde, aurkeztutako proiektuen jarraipena egin du Emakundek, bereziki sareak finkatzearekin lotutakoena.

Hona hemen diru-laguntza jaso duten emakume-elkarteak:

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Amañili-Alkizako emakumeen elkartea	- Conferencia de Igualdad: ¿Conoces tus derechos? - Conferencia sobre Corresponsabilidad familiar - Curso: «Hoy voy a ser la mujer, que me dé la gana de ser»	859 €
Andraizea Dimako emakume elkartea	- Dimako emakumeen berdintasunerako sensibilizazio kanpaina (landa giroan kokatuz) - Dimako emakumeen formakuntza eta aisialdia berdintasun alorrean sustatzeko plana (landa giroan kokatuz)	1.074 €
Araldi asociación de la mujer	- Autonomía personal e intercambio de tareas - Fotografía: cambia los valores, elimina roles sociales, mujeres en el trabajo	2.100 €
Araski Arabako emakumeen saskibaloia	- Formación de mujeres deportistas - Jornadas formativas - Difusión y visibilización del proyecto Araski	7.321 €
Arima Karrantza-Haranako emakumeen elkartea	- Escuela de empoderamiento para la mujer de Enkarterri	5.674 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asamma Asociación alavesa de mujeres con cáncer de mama y ginecológico	- Pinceladas que siguen a Frida Kahlo	3.053 €
Asmube	- Fomentar la participación de las mujeres en el ámbito social - Programa de charlas organizado por Asmube	801 €
Asociación Alaitasuna	- Taller: publicidad y sexismo	732 €
Asociación amas de casa Iratzarri	- Aula Mujer 13 - Taller de cocina para la corresponsabilidad	854 €
Asociación Amuska de Eskoriatza	- Formación en género e igualdad: bases para la participación con enfoque de género	6.534 €
Asociación centro social de mujeres Itzatu	- Lo que hacemos nos empodera	4.702 €
Asociación cultural de la mujer Itzartu	- Taller de escritura creativa - Motivación para la búsqueda activa de empleo - Formación en género e igualdad: bases para la participación con enfoque de género	7.321 €
Asociación cultural de mujeres de Repelega «Las amigas»	- Las primeras vanguardias del siglo XX	543 €
Asociación cultural de mujeres Haizea	- Relaciones de buen trato en afectividad y en sexualidad para el empoderamiento de la mujer	2.532 €
Asociación cultural de promoción de la mujer Solastiar	- Cine-forum: La fuente de las mujeres - Café teatro para el IX día del Ama/o de Casa - Cine-forum para el día de la violencia de género - Taller: el papel de las emociones en nuestro crecimiento personal	991 €
Asociación cultural de promoción de mujer Jakaranda	- Proyecto para creación de redes	1.776 €
Asociación cultural Emakumeen Hazkuntza	- Corresponsabilidad y conciliación	375 €
Asociación cultural Emays	- Charlas de igualdad: corresponsabilidad y empoderamiento - Ensayos y actuaciones del coro - No te preocupes, ocúpate e ideas de mujer cómo tomar un espacio para nosotras	802 €
Asociación cultural Eragin	- Ciclo de conferencias – cultura	305 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación cultural grupo teatral Izarraitz-Zuria	- Taller de técnicas teatrales y entrenamiento actoral	124 €
Asociación de mujeres de Lutzana	- Semana cultural	308 €
Asociación de amas de casa de Basauri Ate Zabalik	- Coro - Cursos monográficos - Cultura - Psicología - Autoestima - Corresponsabilidad	366 €
Asociación de amas de casa de Dulantzi	- Fomentando la Igualdad de mujeres y hombres	799 €
Asociación de amas de casa y consumidores Sutondoan	- Ciclo de conferencias - Semana internacional de las mujeres	227 €
Asociación de estudios y centro de documentación para las libertades sexuales Aldarte	- II Parte del Taller de reflexión: transgenerismos, nuevos retos al feminismo - Socializando nuestra memoria histórica: Externalización del pensamiento e historia del lesbianismo y de la diversidad sexual.	3.937 €
Asociación de la mujer Arritokieta	- Proyecto: Sé feliz	366 €
Asociación de mujeres agrarias alavesas Gure Soroa	- Palabras e imágenes para la participación y el empoderamiento	6.534 €
Asociación de mujeres Andre Berri	- Formación en género e igualdad: bases para la participación con enfoque de género - Feminismo versus nuevas masculinidades - Taller género y humor	7.321 €
Asociación de mujeres Argizka	- Proyecto de actividades 2012	488 €
Asociación de mujeres Aspasia	- II Seminario sobre mujer y deporte	4.393 €
Asociación de mujeres Dandai	- Talleres dirigidos a las personas cuidadoras no profesionales	115 €
Asociación de mujeres de Basozelai Enproa	- Mujer y género	384 €
Asociación de mujeres de Las Carreras Emelka	- Gure XX. urteurrena	2.434 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación de mujeres de Mallabia Nahikaria	- Taller: incorporando la perspectiva de género a nuestro cuerpo desde una mirada de la salud - Taller de coaching y liderazgo de mujeres - Video forum en torno al 25N: día internacional contra la violencia contra las mujeres	1.269 €
Asociación de mujeres de Menagarai	- Del entretenimiento a la acción: películas con otras miradas	7.260 €
Asociación de mujeres de Orduña Loraldi	- Taller: inserción laboral en igualdad de condiciones. Restauración de residuos sólidos urbanos	766 €
Asociación de mujeres de San Fuentes	- Educación para la salud	856 €
Asociación de mujeres Ema Hitza	- Seminario de investigación: el desarrollo de la conciencia ciudadana de las mujeres	705 €
Asociación de mujeres Emaisía de Bilbo	- Hezkidetza eta hezkuntza ez formala ikastaroa - Nerabeen artean harreman osasuntsuak lantzeko programa	4.649 €
Asociación de mujeres extranjeras «Voz Colombia»	- Mujeres extranjeras por el empoderamiento	1.757 €
Asociación de mujeres gitanas Sim Romi	- VIII Jornadas de mujeres gitanas Sim Romi - Nuevos pilares para las nuevas construcciones de las Romi: Proceso de empoderamiento de mujeres gitanas. - Tertulias dialógicas: promoción de la mujer gitana	7.321 €
Asociación de mujeres Gure Izarrak	- Taller de lectura - Taller de coaching - Charla taller hablemos de nosotras - Día internacional de la mujer trabajadora - 8 de marzo - Mesa redonda - XVIII Aniversario de la asociación - Jornada de puertas abiertas - Taller de habla hispana - Día internacional contra la violencia de género - 25 de noviembre - III Certamen de relatos de mujer	3.099 €
Asociación de mujeres Hegaldi	- Empoderamiento de las mujeres reclusas desde los trabajos artesanos - Del entretenimiento a la acción: películas con otras miradas	5.723 €
Asociación de mujeres Laguntza, Garapen eta Elkartasuna «LAGAEL»	- De la desolación a la luz propia. Etapas de la vida	5.808 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación de mujeres Lanbroa	- Publicación del numero 29 de la revista Lanbroa. Retos del feminismo en el siglo XXI. Claves de futuro - XXII Escuela de feminismo - Seminario: Análisis feminista de la violencia contra las mujeres	1.788 €
Asociación de mujeres Lankume	- Programa para mujeres en situación de desventaja o exclusión	769 €
Asociación de mujeres Neba-Neba	- Empoderándonos como mujeres, empoderándonos como asociación	1.835 €
Asociación de mujeres Ostadar	- Seminario de reflexión: recuperar la autoestima colectiva de las mujeres como instrumento para la transformación personal y social	726€
Asociación de mujeres para la formación y el desarrollo Eskuz Esku	- Historia del arte femenino y rutas desde una visión de género	2.904 €
Asociación de mujeres Peña de Toloño	- Taller de encuentro de socias. Actividad tradicional: hacer jabones - Monólogo sobre las relaciones de la pareja - Charlas: detección Precoz del Cáncer de mama y mujer y salud	506 €
Asociación de mujeres profesionales y empresariales de Alava	- Organización y realización de encuentros entre empresarias alavesas y mujeres jóvenes con espíritu emprendedor	3.185 €
Asociación de mujeres Safa	- Taller: vivir mejor - Taller: escuchar y hablar - Curso de cocina para la corresponsabilidad	1.770 €
Asociación de mujeres Uztai Belar	- Otras realidades. Mujeres en pantalla - Mujeres en la red: Jornada de las asociaciones de mujeres de Gipuzkoa - Almohada del corazón: apoyos para sanar	3.700 €
Asociación de mujeres viudas de Basauri	- Curso para mantener la salud - Charla para contrastar experiencias	427 €
Asociación de mujeres y familias del ámbito rural Landa XXI	- La mujer en el cine, taller audiovisual de reflexión - Emakumea eta ardoa (La mujer y el vino) - Taller de Imagen dirigido a la mujer rural	1.179 €
Asociación de mujeres Zabala Alaiak	- Psicología de género	577 €
Asociación de mujeres, Mujeres al cuadrado	- Taller de expresión corporal - Taller de desarrollo personal - Taller de sexualidad	1.280 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación de promoción de empleo Gremioak	- Plataformas digitales para la participación sociopolítica de las mujeres. - Técnicas de trabajo y comunicación para el empoderamiento social de los grupos de mujeres	4.978 €
Asociación de teatro Aztiak	- Taller de teatro	488 €
Asociación de trabajadoras de hogar-Etxebarrukoak	- Todos los derechos laborales para las trabajadoras del hogar	2.471 €
Asociación de viudas de Eibar Altzoa	- Curso formativo: habilidades sociales para mejorar la comunicación en la asociación - Talleres artesanales con perspectiva de género	3.416 €
Asociación de viudas de Santurce ASVI	- Seminario formativo sobre legislación vigente que afecta a las pensiones de viudedad y de orfandad	2.143 €
Asociación Emakume Ausartak antzerki taldea	- Antzerki zuzendaritza-Dirección teatral	641 €
Asociación Gizarterako	- Espacios de encuentro	4.318 €
Asociación grupo de mujeres Argia	- Festival de juegos coeducativos	1.243 €
Asociación inserción social Entzutekoa	- Taller de cultura con ojos de mujer	460 €
Asociación Kampazaulo para la integración de la mujer	- Charla: inteligencia emocional - Charla: violencia de género	390 €
Asociación Matxintxu Orozkoko emakumeen elkarte	- Formación en género e igualdad: bases para la participación con enfoque de género	7.260 €
Asociación Mirairi, E.T.	- Cine con perspectiva de género	476 €
Asociación Mujeres con Voz	- Genealogía de los cuidados en Euskadi	6.430 €
Asociación mujeres jóvenes de Euskadi Lilith Euskadiko emakume gazteak elkarte	- Formación en género en jóvenes vascas como eje de cambio.	7.089 €
Asociación para la igualdad entre los sexos Plazandreok	- Feministaldia 2012	7.321 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación psicosocial para la igualdad Aizan	- Panel interactivo: economía+mujer=... - Taller: «Empoderamiento e Igualdad»	1.276 €
Asociación Provincial de amas de casa y consumidores Etxeko-andre	- Jornadas de igualdad - Revista Etxekoandre - Los martes de Etxeko-Andre	2.379 €
Asociación Provincial de amas de casa y del consumo familiar Aranzazu	- Impacto para las mujeres de la reforma del sistema de pensiones	703 €
Asociación socio cultural de mujeres Bagabiltza	- Género y competencias para un empoderamiento personal, social y económico de las mujeres	5.125 €
Asociación socio cultural de mujeres Kimetz	- Berdintasunaren alde eta giza eskubideen alde ekintzak martxoaren 8a ospatzen Emakumeen Nazioarteko Eguna. Acciones en pro de la igualdad y a favor de los derechos humanos: conmemorando el 8 de marzo Día Internacional de las Mujeres - «Gaur zortzi azokan» dokumentalaren difusioa - Escuela Intercomarcal de prevención de las violencias hacia las mujeres. El asociacionismo de mujeres como motor de prevención. Segundo Curso - Historia de las religiones. El papel de las mujeres en las religiones - Acciones para trabajar por la erradicación de la violencia contra las mujeres - Tertulias literarias - Certamen de relatos cortos Kimetz	5.600 €
Asociación socio-cultural «Asamblea de mujeres de Ermua»	- Historia y Genealogía de las mujeres en Ermua: huellas feministas y de género	2.196 €
Asociación socio-cultural de mujeres de Erandio	- Programa de información y sensibilización: tolerancia cero frente a la violencia contra las mujeres	1.098 €
Asociación socio-cultural de mujeres de Zeanuri Mazala	- Berdintasunerako konzepto oinarriak-empoderamiento	406 €
Asociación terapeutica Sanpor	- Cursos de formación	487 €
Asociación Zoko Maitea	- Sesiones de difusión de los derechos que el ordenamiento jurídico reconoce a las mujeres	610 €
Asociación I Romi	- Proyecto joven 85 - «Nuevos ritmos»	7.242 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Bagabiltza fundazioa/ Fundación Bagabiltza	- Comunicación, asociacionismo y participación sociopolítica - Autonomía en la gestión para la participación asociativa de las mujeres	7.321 €
Barrikako emakumeen hitza	- IV Encuentro de Asociaciones de Mujeres de la Mancomunidad de Uribe Kosta - Saber que sabemos: Los saberes de las mujeres	7.321 €
Centro cultural de mujeres Mamariga	- Las primeras vanguardias del siglo XX - Técnicas para conocer y mejorar - Taller de intercambio de tareas domésticas	1.906 €
Centro cultural y de promoción de la mujer	- Programa de promoción de la mujer Abrilocio	384 €
Centro de formación de la mujer Peñasca	- Actividades en torno al 8 de marzo	220 €
Colectivo de coeducación Emilia Pardo Bazan	- Seminario: Educar para una convivencia sin violencia sexual	1.068 €
Ekin emakumeak elkarte	- Argazki lehiaketa. Gaia: Amatasuna - Etxeko konponketak egiteko ikastaroa - Kosmetika naturalaren tailerra - Denboraren kudeaketa eraginkorra, tailerra	816 €
Elorri-lore andreen elkarte	- Relaciones de buen trato en afectividad y en sexualidad	3.196 €
Emagin emakumearen inguruan dokumentazioa eta ikerkuntza sustatzeko elkarte	- Eskola Feminista: Indarkeria, komunikazioa eta praktika artistikoa aztergai	1.076 €
Emakume- La mujer elkarte	- Ahalduntze pertsonaletik gizarte ahalduntze baterantz - Ahalduntze sarea, gizarteratze zubia	1.415 €
Emakume langilearen defentsan-En defensa de la mujer trabajadora	- Aprendiendo a ver la violencia de género	366 €
Eme komunikazioa	- Glosario Básico Feminista en Lengua de Signos - Pikara Magazine, un proyecto de comunicación feminista para el empoderamiento y la participación de las mujeres	7.321 €
Emeki emakume elkarte	- Lo que el «género» genera: conocimiento y empoderamiento	6.534 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Escuela de mujeres de Durana/Duranako emakumeen eskola	- Taller de lectura - Semana de la mujer trabajadora - Visita cultural para conocer la historia	505 €
Euskal Herriko bilgune feminista	- Hamaika egiteko ari gara, hamar urte hamaika borroka	716 €
Euskal Herriko emakumeon mundu martxarako plataforma	- Conferencia Feminista de Paz	3.441 €
Federación Besarkada	- VI Edición Circuito de Teatro: Mujeres en escena	2.029 €
Federación de asociaciones de viudas del país vasco FEVI	- Proyecto para la dinamización y el fortalecimiento de las bases de las asociaciones.	5.059 €
Federación red de asociaciones de Gipuzkoa-Redagi	- Mujeres en la red: Jornada de las asociaciones de mujeres de Gipuzkoa - Del entretenimiento a la acción: Películas con otras miradas	4.493 €
Gaurko andreak berdintasunaren aldeko elkarte	- Autoestima. Los cimientos de mi empoderamiento	7.260 €
Gizatiar asociación sociocultural de mujeres de las Arenas	- Psicología para la mujer - Lo que el «género» genera: conocimiento y empoderamiento	6.968 €
Grupo de estudios sobre la mujer de Alava-Emakumeei buruzko estudio taldea	- Proyecto de investigación y seminario: Producción estético-política del movimiento feminista en Euskal Herria	5.832 €
Hitzez baserriko emakumeen elkarte	- «Laguntza taldeak», «Grupos de apoyo» - Baserri inguruko aseguruak - La salud de la mujer rural a través de la columna vertebral - Senda belarrekin botikak egin - Generazio aldaketak landa eremuan eta jabego eskubideak	1.604 €
Inola Asociación de mujeres de Urduliz	- Género y salud. Las mujeres y su bienestar integral: Vías para el empoderamiento	5.369 €
Itur Zuri emakume elkarte	- Semana cultural de la mujer	976 €
Izaera asociación de mujeres de Deusto y San Ignacio	- Charlas de igualdad: corresponsabilidad y empoderamiento	256 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Katxalin, Asociación de mujeres afectadas de cáncer de mama y ginecológico	- Conferencias - Taller de autocuidado y crecimiento personal	4.576 €
Killirikupe berdintasunaren aldeko emakumeen elkarte	- Gizon eta emakumearen berdintasuna herrian integratzea	610 €
Lacasiun asociación de mujeres latinas	- Mujeres y derechos básicos - Autodefensa personal feminista - Historia del movimiento feminista	1.462 €
Lilaton taldea	- Carrera popular femenina Lilatón	1.830 €
Mirra asociación para el liderazgo de la mujer	- V World Café de Euskadi para la igualdad: «Innovando en concepto de economía» - Tendencias emergentes en economía - Formación a socias	1.625 €
Munduko emakumeak mujeres del mundo Babel	- Revista cuatrimestral «Mujeres del Mundo - Munduko Emakumeak»	2.196 €
Red de mujeres del medio rural de Alava	- Cursos de autodefensa feminista - Boletín informativo - Publicación del encuentro	5.172 €
Zaratamo andreen elkarte soziokulturala Enarria	- Relaciones de mujeres madres e hijas - La autoestima para el empoderamiento de las mujeres	6.827 €

Gizonen elkarteak eta federazioak eta elkarte eta federazio mistoak

Emakunderen xede eta helburuekin bat datozen proiektu zehatzak egiteko aholkularitza eta laguntza emateko ildo horri berari jarraituz, emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko lan egiten duten irabazi-asmorik gabeko gizonen elkarte eta federazioentzako eta/edo elkarte eta federazio mistoentzako lehenengo diru-laguntza deialdia egin du aurten Emakundek. Lehen adierazi dugun moduan, Emakundek bazuen lehendik ere berariazko diru-laguntza programa bat, berdintasunaren alde lan egiten duten emakume-elkarteentzat. Deialdi horretatik kanpo geratu dira, hain justu, programa berri honen bidez diruz lagunduko diren eta emakumeen eta gizonen berdintasuna sustatzeko jarduera espezifikoak egiteko babesa jasoko duten elkarte mistoak eta/edo gizon-elkarteak.

Deialdian eskaera aurkeztu duten 25 elkarteetatik, 19k jaso dute diru-laguntza. Guztira, 23 proiektu lagundu dira diruz, eta 30.000 euro erabili dira horretarako. Gainera, aurkeztu diren jardueren jarraipena egin du Emakundek, eta hauek izan dira jarduera horien helburu nagusiak:

- Emakumeen autonomia lantzea eta genero-kontzientzia hartzea.
- Balioak aldatzea lan-munduan eta etxean, sexuaren araberako rol sozialak eta estereotipoak desagerraraziz.
- Emakumeek baliabide ekonomikoak eta sozialak eskuratzeko dituzten aukerak eta haiekiko kontrola handitzea.
- Erantzukidetasuna eta zaintzaren etika.

Hona hemen diru-laguntza jaso duten elkarte mistoak eta/edo gizon-elkarteak:

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Asociación Askabide Liberación	Taller de Análisis y elaboración de Propuestas de Actuación ante la realidad de la Prostitución.	1.470,00 €
Asociación Askabide Liberación	La utilización de página web, como herramienta de contacto y de trabajo con las mujeres del entorno de la prostitución.	1.410,00 €
Asociación Clara Campoamor	Publicación de la guía «Pasa de los chicos violentos»	1.380,00 €
Asociación Cultural Gitana Kale Dor Kayiko	ROMIPEN. Programa para la adquisición de Competencias en mujeres gitanas.	1.410,00 €
Asociación Cultural Gitana Kale Dor Kayiko	TERTULIAS DIALÓGICAS. Promoción de la Mujer Gitana	1.380,00 €
Asociación Dordoka	Amar no es dominar. Funciones Institutos. Teatro-concierto.	1.380,00 €
Asociación Dordoka	Taller «Amar no es Dominar».	1.380,00 €
Asociación Goiztiri Elkartea	Taller sobre Igualdad de Género y Nuevas Masculinidades desde una aproximación Feminista.	1.300,00 €
Asociación Susterra	Envuélvete por la igualdad.	1.484,00 €
Asociación Zubietxe	«La mujer y sus Imágenes Contemporáneas. Brújula para navegar en un mar de tópicos (diario visual) ».	1.680,00 €
Bekoz Beko	Taller de Autodefensa.	598,00 €

ESKATZAILEA	DIRUZ LAGUNDUTAKO JARDUEREN IZENA	DIRU-LAG. ZENBAT.
Cáritas Diocesana de Bilbao	No quisieramos hablar de la pobreza. No/Zelan isildu pobreziaren aurrean ?	1.590,00 €
Cáritas Diocesana de Bilbao	Jornada sobre envejecimiento activo / Zahartzaro aktiboari buruzko jardunaldia.	1.380,00 €
Cear Euskadi	Sistematización desde una perspectiva de género del trabajo de CEAR-Euskadi en los procesos de intervención social.	1.378,00 €
Emaku- Emakume eta Eskubideak	Edición de la Revista de Promoción de la Sensibilidad Pública y Reconocimiento Social de las Mujeres Víctimas de la Violencia Machista: Bizi Izaten Ikasiz.	1.288,00 €
Margotu Elkartea	Educación en Igualdad de Oportunidades entre mujeres y hombres con los alumnos de los talleres de electricidad del Centro de Cualificación Profesional Inicial.	468,00 €
Mugarik Gabe	Asesoría en Estrategia de Comunicación en Nuevas Tecnologías del Tribunal de Derechos Humanos de las mujeres.	1.440,00 €
Ong Pausumedia	«Emakumeak aurrean». Talleres comunicacionales. La voz de las mujeres.	1.560,00 €
«Ongiz». Berdintasunaren Aldeko Elkartea	Fortalecimiento del grupo de hombres de Audio mediante la formación y la acción social.	1.410,00 €
«Ongiz». Berdintasunaren Aldeko Elkartea	Dos representaciones del teatro forum «Konprimituak/Comprimidos».	1.372,00 €
Suspergintza Elkartea	Herramienta de transversalización del enfoque de género en Programas socioeducativos con infancia y juventud.	1.470,00 €
Suspergintza Elkartea	Redacción y socialización del Código de Conducta y actualización del Procedimiento de Atención de Acoso Sexual y Sexista.	302,00 €
«Ziprztintzen». Asociación de Hombres por la igualdad de Ermua	HOMBRES+HOMBRES: Divulgación y sensibilización mediante representaciones teatrales.	1.470,00 €

3.8. Enpresentzako aholkularitza eta laguntza

Emakundek alor honetan egiten duen lana da sentsibilizazioa, aholkularitza eta laguntza ematea enpresei, berdintasunerako planak prestatu eta abian jar ditzaten.

3.8.1. Berdintasun-planak: aholkularitza

Emakundek aholkularitza eman die enpresei eta beste erakunde batzuei berdintasunerako legediari buruz eta eskuragarri dauden baliabide material, ekonomiko eta pertsonalei buruz, emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzeko planak, programak eta jarduerak egin ditzaten beren lan-esparruetan.

Berdintasunerako Legea garatuz joan denez eta enpresetan berdintasuna sustatzeko kontzientzia gero eta handiagoa denez, ikusi ahal izan da informazio- eta laguntza-eskaerek gora egin dutela, eta ez diagnostikoak eta berdintasun-planak egiteko soilik, baita plan horiek abian jartzeko ere.

3.8.2. Enpresa eta erakunde pribatuentzako diru-laguntzak

Berritu egin da enpresa eta erakunde pribatuek emakumeen eta gizonen berdintasunerako diagnostikoak eta planak diseinatzeko laguntza teknikoa kontratatu ahal izateko diru-laguntzen deialdia. Hamalau enpresa hauek jaso dute diru-laguntza:

ENPRESA ETA ERAKUNDE ONURADUNEN ZERRENDA

ONURADUNAK	DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA
FUNDACIÓN IZAN	8.500,00 €
ORTZADAR, S.L	4.000,00 €
FEKOOR	7.208,00 €
VIRTUALWARE 2007, S.A.	6.434,50 €
GAZTELUPEKO HOTSAK SL	3.530,00 €
COOPERATIVA DEL PUERTO DE PASAJES	7.500,00 €
FUNDACION TUTELAR GORABIDE	8.075,00 €

ONURADUNAK	DIRU-LAGUNTZEN ZENBATEKOA
ESCUELA PROFESIONAL COMARCAL LEA-ARTIBAI S.COOP	7.000,00 €
ZF LEMFORDER	9.000,00 €
CENTRO CULTURAL ALEMAN. Deutsche Schule San Alberto Magno	6.558,09 €
CENTROS PARA LA FORMACIÓN Y PREVENCIÓN LABORAL	8.000,00 €
ASOCIACIÓN BENÉFICO-ASISTENCIAL ELKARBANATUZ	7.208,00 €
IRRATIBIDE, S.A.	5.750,00 €
REAL SOCIEDAD DE FÚTBOL, SAD	7.236,41 €
GUZTIRA	96.000,00 €

Onuradunen artean, industriaren alorreko enpresa bat, zerbitzuen alorreko hamabi erakunde eta kirol-klub bat daude. Lurralde historikoari dagokionez, bost Gipuzkoan daude, eta zortzi, Bizkaian. Gainera, bat EAEn dago, eta lan-zentroak ditu Estatuan eta EAetik kanpo. Orekatuta daude nagusiki gizonezko langileak dituzten industriaren alorreko enpresak eta nagusiki emakumezko langileak eta erabiltzaileak dituzten hirugarren sektoreko enpresak, elkarteak eta fundazioak. Era askotako erakundeei lagundu zaiela ikusita, pentsatzekoa da era askotako inguruneetara iritsiko dela berdintasun-plan horiek martxan jartzeak gizartean izango duen eragina, eta horrek areagotu egingo duela etorkizunean eragin hori, bai eskaintako zerbitzuen kalitateari eta zerbitzu horietan lan egiten duten pertsonen lan-baldintzei dagokienez, bai gizonen eta emakumeen artean baliabide sozialak eta ekonomikoak eskuratzeko dauden desorekak murrizteari dagokionez.

3.8.3. Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Lankidetza Erakundeak

424/1994 Dekretuak ezarritakoa betetzeko, Lankidetza Erakundeen jarraipena egin da. Izan ere, Dekretu horrek 2011. urteari dagokion jarraipen-txostena eta 2012. urteko lan-plana aurkeztea eskatzen du. Lankidetza Erakunde guztiek bete dute eskatutakoa, eta, beraz, izendapen hori edukitzen jarraitu dute, bik izan ezik: Redox S.A. enpresak, enpresa itxi delako, eta Behargintza txorierri enpresak, hala nahi izan duelako.

Bestalde, aurreko deialdietan Emakunderen diru-laguntza jaso eta justifikatu duten erakundeen jarraipena egin da, eta eskatu zaie lanean jarraitu eta Lankidetza Erakunde bihurtzeko konpromisoa betetzeko. 1.4.2. atalean jaso dira 2012. urtean Lankidetza Erakunde izendapena jaso duten erakundeak.

Horrez gain, 2012. urtean, «Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetza Erakundea» izeneko figura sortzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeko proposamen bat egin da, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikulua ildotik. Aldaketa hori egiteko, figura hori sortu ondoren egindako kudeaketa-lanaren ondorioz egungo arau-esparrurako beharrezkotzat jotzen diren zuzenketak sartuko dira.

3.8.4. Aholkularitza-entitateen homologazioa eta jarraipena

Aholkularitza-entitateei informazioa eta aholkuak eman zaizkie, enpresa eta erakundeek gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko homologazioa jasotzeko deialdiari buruz.

Eskaera egin duten hiru enpresa aztertu dira, eta horietatik aholkularitza-entitate bat homologatu da, enpresa eta erakundeek gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa emateko, 105/2004 Dekretuaren babesean «abendua-ren 28ko 348/2010 Dekretuak aldatu egin du Dekretu hori». Honako aholkularitza-entitate honek lortu du homologazioa:

- UNA Gestión y Comunicación Coop.

Azkenik, homologatutako aholkularitza-entitateen jarraipena egin da, homologazioak eskatzen dituen baldintzak betetzen jarraitzen dutela egiaztatzeko. Behin emaitzak aztertu ondoren, homologazioa kendu zaie 2 aholkularitza-entitateari:

- Neotek Nervión S.L. aholkularitza-entitateari, itxi egin delako.
- Fondo y Forma Consultoría Social, S.L.U aholkularitza-entitateari, ez dituelako bete homologazioa eman zitzaioneko baldintzak.

Gaur egun, 22 aholkularitza-entitate daude gizon eta emakumeen berdintasunaren alorrean homologatuta.

3.8.5. Enpresei laguntzeko beste tresna batzuk

Emakumeak kontratatzeko laguntzen gidaliburuaren eguneraketa

Emakumeen Enplegua Sustatzeko Kontratu-motei eta Laguntzei buruzko Gidaliburua eguneratu da. Tresna horren helburua da aholkularitza ematea enpresei eta erakundeek, emakumeen enplegua sustatzeko indarrean diren kontratu-modalitateen, hobarien eta laguntzen berri izan dezaten.

3.9. Programak gauzatzea

3.9.1. NAHIKO

NAHIKO programa Lehen Hezkuntzarako egindako hezkidetza-programa bat da, eta berdintasuna, errespetua eta indarkeria-eza bultzatzea du helburu. 2003an jarri zen martxan, Lehen Hezkuntzako 3. zikloan (10-12 urte). 2012an zehar, 2010ean hasitako fase esperimentalarekin jarraitu da, eta fase hori amaitu da. Fase berri hori Lehen Hezkuntzako lehen ziklorako izan da; hau da, Lehen Hezkuntzako 1. eta 2. mailetako ikasleentzat. EAEko 29 zentrok eta 1.084 ikaslek hartu dute parte, guztira, fase horretan.

Jarduera zehatz hauek egin dira, aurtén, NAHIKO programaren baitan:

- Irakasleak prestatzea. Bi prestakuntza-mintegi egin dira, 2010-2012 esperientzia pilotuan parte hartu duten ikastetxeetako eta berritzeguneetako irakasleentzat. Mintegi horietan, zenbait adituk hartu dute parte, taldeak gogoeta egin zezan garrantzi handiko gaiei buruz; hala nola, borondateari buruz eta neska-mutilek beren inguruneke beste pertsona batzuekin dituzte harremanei buruz. Horrez gain, irakasleentzako ebaluazio-mintegi bat antolatu da, Lehen Hezkuntzako ziklo horretako esperientzia pilotua ebaluatzeko.



Nahiko Programa

- Ikasleak sentsibilizatzea. Hiru hilean behin unitate didaktiko bat lantzen da; unitateak zenbait lan-koaderno ditu ikasleentzat eta irakasleentzat, material eta jolas osagarriak zenbait formatutan, eta familia-koaderno bat, etxean senideekin egiteko jarduerekin. 2012an, zikloa osatzeko falta ziren unitate didaktikoak diseinatu dira, «borondatea» eta «beste pertsonak» hartuta gai nagusitzat.
- Saio berezia ikastetxe bakoitzean. Irakasleek gelan ikasleak sentsibilizatzeko egindako lana indartzeko, NAHIKO programaren fase experimental osoan zehar, saio bereziak egin dira ikasleekin. 2012an, adibidez, lantegi bat egin da, eta aurrez aukeratu diren eta prestakuntza jaso duten espezialista batzuk arduratu dira parte hartu duten 29 zentroetan saio berezi horiek emateaz.
- Familiak sentsibilizatzea. Parte hartzen duten ikastetxeetako ikasle parte-hartzaileen familiekin esku hartzen jarraitu da; zehazki, bi saio egin dira Lehen Hezkuntzako 2. mailako ikasleen familiekin. Aurrez aukeratu diren eta prestakuntza jaso duten espezialista batzuk arduratu dira saio horiek emateaz. Haietan, berdintasunik ezari buruz eta neska-mutilak berdintasunean hezteko beharrari buruz hausnartu da, bai eta dagozkien unitate didaktikoetako gai zehatzei buruz ere.
- Fase experimental amaitzeko, aurreko esperientzia pilotuekin egin zen moduan, 2010-2012 esperientzian parte hartu duten ikastetxe guztien topaketa bat egin da. Topaketa ekainaren 6an egin da, Barakaldoko BECen, eta programaren fase horretan parte hartu duten ikastetxe, haur eta irakasle gehienak izan dira bertan, bai eta haiekin egon nahi izan duten familia batzuk ere. Bi urte hauetan egindakoari eta ikasitakoari buruzko emanaldi bat prestatu du ikastetxe bakoitzak.
- Horrez gain, Patxi López Lehendakaria programan parte hartu duten ikastetxeetako batean izan da, ikusteko nola egiten duten lan eta zer iritzi duten haurrek eta irakasleek programako materialei eta jarduerari buruz.
- Behin lehen zikloko unitate didaktiko guztiak egindakoan eta aztertutakoan, 100 ale argitaratu dira. Hartara, Lehen Hezkuntzako etapa horretarako materiala osatu da, eta Eusko Jaurlaritzako Argitalpen Zerbitzuan dago orain salgai.
- Aholkularitza eman zaie esperientzia pilotuaren barruan edo beren kabuz NAHIKO! programa aplikatzen ari diren ikastetxeei.
- Programa honen esperientzia aurkeztu da apirilaren 28an Santiago Konpostelakoan, «Orientación, tutoría e construcción dunha identidade libre de estereotipos» izeneko XIII Foro Galego de Educación en Igualdade foroan.

3.9.2. GIZONDUZ

Gizonduz Emakundek bultzatutako ekimen aitzindaria eta berritzailea da. Ekimenaren helburua da gizonen parte-hartze handiagoa izatea emakumeen eta gizonen berdintasunaren aldeko ekimenetan, eta haien artean masa kritiko bat sortzea, adierazitako helburua lortzeko aurrerapen handiagoak egin daitezen.

Helburu hauek lortu nahi dira ekimenaren bidez:

- Gizon gehiago sentsibilizatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde.
- Gizon gehiago prestatzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruan.
- Gizonen etxeko lanetan eta pertsonen zaintzan duten erantzukidetasuna handitzea.

2012. urtean, honako jarduerak egin dira, Gizonduz ekimenaren barruan:

- Berdintasunaren aldeko gizonen arloan espezializatutako webgunea (www.euskadi.net/gizonduz) administratzea. Ekimenari buruzko informazio ugari ematen du webguneak, euskarri asko erabiliz, hala nola, elkarrizketak, dokumentazioa, bibliografia, bideoak eta web-orri interesgarrietarako estekak. Gizonduz ekimenak blog bat ere badu, eta herritarrei irekita dago; hau da, berdintasunarekin, gizonekin eta maskulinitate berriekin lotutako gaur egungo gaiak buruz dituzten iritziak, gogoetak eta iruzkinak adieraz ditzakete herritarrek.
- Sare sozialetan parte hartzea. Gizonduzek Facebooken duen orria eta YouTube eta Vimeo dituen profilak administratu dira, eta aldian behin eguneratu egin dira. Gizonduzek 4.800 lagun zituen Facebooken, abenduaren amaieran.
- Sentsibilizazio- eta prestakuntza-programa bat egitea. 2012ko martxoan jarri zen abian programa honen laugarren edizioa. Zenbait ikastaro osatuta dago; batzuk aurrez aurrekoak dira, eta beste batzuk, Internet bidezkoak. Ikastaroak doakoak dira, era askotako eskaintza zabala dute, eta egokitze modukoak eta malguak dira. Bi ikastaro-mota daude: programatutakoak, hau da, ikastaroaren alderdi nagusiak (edukiak, ezaugarriak, egutegia, non eta zein hizkuntzatan egingo den, etab.) aurrez zehaztuta dituztenak; eta programatu gabeak edo neurritan egindakoak, eskaintzaren arabera antolatzen direnak bai iraupenari eta edukiei dagokienez, bai eta tokiari eta hartzaile diren pertsonen dagokienez ere. Nahiz eta emakumeek ere har dezaketen

parte ikastaro horietan, gizonentzat dira bereziki; hain zuzen ere, bakarka edo taldean, interes pertsonalak bultzatuta eta/edo ikuspegi profesionaletik, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna zer den eta horren alde nola lan egin daitekeen sakonago ezagutu nahi duten gizonentzat. Alde horretatik, gizonen balio eta jarrerekin, berdintasunarekin eta maskulinitateekin lotutako gaiak lantzen dira, eta zenbait gai aztertzen dira, hala nola osasuna, zainketa, aitatasuna, sexualitatea, bide-segurtasuna, emakumeen aurkako indarkeria, toxikomanien prebentzioa, kriminalitatearen prebentzioa... 2012an, bi on line ikastaroz gain (bat 8 ordukoa eta bestea 60 ordukoa), aurrez aurreko 77 ikastaro egin dira, eta 768 gizonak eta 677 emakumeak hartu dute parte ikastaro horietan.

- «Gazteak Berdintasunean 2.0» proiektua diseinatzea. EJIE, SA sozietate publikoarekin lankidetzan, Gazteak Berdintasunean 2.0. izeneko proiektuaren alderdi teknikoak diseinatu eta zehaztu dira. Proiektuaren xedea da nerabe eta gazteen kontzientziazioa eta parte-hartzea bultzatzea, eta, bereziki, gizonetzkoena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde egin dezaten eta emakumeen aurkako indarkeriaren kontra. Horretarako, hezkuntza-tresna berritzaileak erabiliko dira, teknologia berrietan oinarrituak. Proiektua 2013. urtean ezartzea aurreikusten da, eta 3 plataforma izango ditu:
 - Informazio-web edo *erakustoki* bat, proiektuaren garapenari eta faseei nahiz proiektuan lanean ari diren erakundeei buruzko informazioa emango duena.
 - On line abentura grafiko bat (bideo-joko bat). Abentura horretan, erabiltzaileei zenbait egoera adieraziko zaizkie, eta proba batzuk egin eta ebatzi beharko dituzte; hau da, egoera sexistak, homofoboak, indarkeriazkoak eta halakoak izango dituzte, eta zenbait aukeraren artean erabaki bat hartu beharko dute.
 - Komunitate birtual bat, partaidetzarako eremuak sortzeko eta nerabeen arteko komunikazioa indartzeko.
- Berdintasunari buruzko unibertsitate-master eta -graduondokoen eta HAEEn ikastaroen publizitatea egitea, bai eta Berdintasunerako Gunearena ere. Gizonak prestakuntza- eta sentsibilizazio-jarduera horietan parte hartzera bultzatzeko, Gizonduz ekimenak haien publizitatea egin du bere aldizkari elektronikoaren eta webgunearen bidez.
- Mintegiak eta hitzaldiak. Emakundek honako hauek antolatu ditu Gizonduzen barruan:
 - Emakunden azaroaren 30ean gizonak berdintasunaren alde parte hartzeko programa instituzionalen esperientziei eta proposamenei buruz egindako mintegia.

- Daniel Lealek Emakunden azaroaren 30ean emandako «Gizonak eta zaintza» hitzaldia. Irekiak zuzenean eman zuen.
- Sentsibilizatzeko beste jarduera batzuk. Gizonduz ekimena ezagutzera emateko, Emakunde zenbait komunikabidetan agertu da, eta beste erakunde batzuek antolatutako sentsibilizazio-jarduera ugaritan parte hartu du. Adibidez, hauetan:
 - Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailak azaroaren 6an eta 7an Gasteizen antolatutako «Familia-politikak: gizarte-kohesioa lortzeko inbertsioa» kongresuko «gurasotasun positiboan dauden praktika onak» mahai-inguruan.

3.10. Aholkularitza juridikoa

Emakunderi esleitutako eginkizunetan parte hartu du Emakundeko Aholkularitza Juridikoak: zenbait gairen barneko eta kanpoko izapideak egiten lagundu du bereziki diru-laguntzen eta hitzarmenen izapideak egiten, eta arau juridikoak egiteko prozeduretan ere lagundu du; hau da, aplikagarri den araudia berrikusten, haren jarraipena egiten eta eguneratzen. Horrez gain, partikularrei eta Eusko Jaurlaritzako sailei, foru-aldundiei eta EAEko udalei Emakunderen jarduera-eremuko gaiekin lotutako aholkularitza juridikoa ematen jarraitu du.

Zehazki, honako hauek izan dira Aholkularitza Juridikoaren eginkizunak:

- Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundearen egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen dekretua aldatzeko dekretu-proiektua egitea eta izapidetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko den otsailaren 16ko 3/2012 Legearen aginduz.
- «Emakumeen eta gizonezkoen aukera-berdintasunerako Lankidetzaren Erakundea» izeneko figura sortzen duen azaroaren 8ko 424/1994 Dekretua aldatzeko dekretu-proiektua izapidetzea, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legeko 41. artikulua haritik.
- BEGIRA / publizitate eta komunikazio ez-sexista erabiltzeko Aholku Batzordea arautu eta haren funtzionamendua ezartzen duen dekretu-proiektua izapidetzea.
- Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziak, Emakundek eta NBE-Emakumeak erakundeak (Genero Berdintasunerako eta Emakumeen Ahaldunderako Nazio Batuen Erakundea) El Salvadorko Errepublikan «mujeres y políticas municipales a favor de la igualdad» proiektua finantzatzen laguntzeko egindako hitzarmena berrikustea.
- Generoaren araberako eraginaren aurreko ebaluazioaren txostenak egitea, 4/2005 Legeko 21. artikuluan ezarritakoari jarraituz.
- Eusko Jaurlaritzako sailetako, foru-aldundietako eta tokiko erakundeetako berdintasun-planen txostenak egitea, 4/2005 Legeko 15. artikulua betez.
- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa eman dezaketen lankidetzaren erakundeak izendatzeko edo, hala badagokio, izendapen hori kentzeko.

- Txostenak egitea eta ebazpen-proiektuak prestatzea, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean laguntza teknikoa eman dezaketen aholkularitza-entitateak homologatzeko edo, hala badagokio, homologazio hori kentzeko.
- Txostenak eta ebazpenak egitea Emakundeko kontratazioetarako eta kudeaketa-aginduetarako, eta Emakunderen kontratazio-mahaietara joatea.
- Emakundek lehiaketa-bidez ematen dituen diru-laguntzen deialdi, emakida eta bestelako intzidentzien (murrizketak, itzulerak, jarduera-aldateak, etab.) ebazpen-proiektuak izapidetzea. Diru-laguntza horiek izan daitezke:
 - emakumeen elkarrekin sustatzeko,
 - EAEn emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiten duten elkarrekin mistoentzat eta gizonen elkarrekinentzat,
 - udalentzat eta beste toki-erakunde batzuentzat,
 - aholkularitza-entitate homologatuak kontratatu nahi dituzten enpresa eta erakunde pribatuentzat,
 - ikerlanak egiteko,
 - ikerlanak argitaratzeko,
 - familian esku hartzeko eta bitartekotza egiteko masterra eta gizar-tean babesik gabe edo/eta gatazkan dauden adingabeen kasuetan esku hartzeko eta bitartekotza egiteko masterra egiteko.
- Diru-laguntza izendun eta zuzenak izapidetzea erakunde hauentzat:
 - «Maite Albiz Emakumeen» Dokumentazio Zentroarentzat, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko dokumentu-funtsak eskuratu, kudeatu, digitalizatu eta zabaltzeko.
 - «Donostiako Emakumeen Etxea Elkarrekinentzat», teknologia berrie-kin eta generoarekin lotutako sentsibilizazio- eta/edo prestakuntza-jarduerak diseinatzeko, antolatze eta egiteko.
 - Euskal Herriko Unibertsitatearentzat, «Emakume eta Gizonen Berdintasunaren gaineko Masterra» irakasteko on line 2012-2013 ikasturtean.
 - EHUKo Uda Ikastaroak fundazioarentzat, «Retos para la igualdad en las empresas» ikastaroa egiteko.
 - EUEDEL-Euskadiko Udalen Elkarrekinentzat, Berdinbidean (Udalerrri txikiengan berdintasun-politikak dinamizatu eta aholkatzeko zerbitzua) eta Berdinsarea (Berdintasunaren aldeko eta emakumeen

aurkako indarkeriaren kontrako Euskadiko Udal Sarea) garatzen laguntzeko.

- Argiri Emakume Elkartearentzat, Irungo Alarde mistoa antolatzeko.
- 2012ko Emakunde Sariaren deialdia eta ebazpena izapidetzea.
- Jabetza intelektualaren, irudi-eskubideen eta marken erregistroaren gaineko aholkularitza ematea eta gai horiekin lotutako dokumentuak egitea eta izapidetzea.
- Emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako alderdien gaineko txosten juridikoak egitea, administrazio publikoek eta partikularrek hala eskatuta.
- Egoera pertsonalen gai partikularrak lantzea eta bideratzea, honako alor hauetan: lana eta familia uztartzea, lana, gizarte-segurantzaren prestazioak, gizarte-zerbitzuak eta laguntza juridikoa.

3.11. Azterlanak, ikerketak, argitalpenak

Azken urteotan, emakumeen eta gizonen egoeren arteko desberdintasunak hobeto adierazteko aurrerapen nabarmenak egin dira erakundeen estatistiketan eta azterlanetan. Hala ere, Berdintasunerako V. Planaren lehentasunak ezartzeko beharrezko ziren egoera-diagnostikoak egitean, agerian geratu zen lan-ildo horretan sakondu beharra dagoela oraindik. Beharrezkoa da estatistikek eta azterlanek errealitateak benetan nolakoak diren adieraztea; hau da, genero-harremanak aztertzea, eta aztertzea, halaber, zer eragin duten harreman horiek emakumeen eta gizonen berdintasunik eza dakarten egoeretan. Hartara, berdintasun-ez horiek zuzentzeko politikak diseinatu eta gauzatu ahal izango dira, bai eta berdintasun-ezeko egoera eta modu berriak hauteman eta prebenitzekoak ere.

Estatistikek eta azterlanek aukera eman behar dute, bestalde, beharrian bereziak dituzten kolektiboen berdintasun-ezeko egoeretan sakontzeko; batez ere, askotariko bereizkeriaren egoerak edo egoera hori bizitzeko arriskua dakartzaten alorretan. Hori dela eta, V. Planak ezarri du beharrezkoa dela zenbait adierazle zehaztea eta lortzea, plana bera egiteko prozesuan hauteman diren jakintza-premiak estaltzeko. Hautemandako premia horiek emakumeen autonomia pertsonalarekin eta balioak aldatzearekin dute zerikusia.

Gizarte-errealitatea hobeto ezagutzen laguntzen duten beste jarduera batzuk ere egiten ditu Emakundek. Izan ere, erakundeak berak argitalpenak egiten ditu, ikerlanak argitaratzeko diru-laguntzen deialdiak egiten ditu, eta ikerlanak prestatzeko beken deialdiak egiten ditu. Horrez gain, Dokumentazio Zentroaren mantentze-lanez eta kudeaketaz arduratzen da. Dokumentazio Zentro horrek azterlanak eta ikerketak egiteko aholkularitza eta baliabideak ematen dizkie Emakundeko eta administrazio publiko guztietako langileei, bai eta beste alor batzuetan –unibertsitatean edo besteren batean– ikertzen dihardutenei ere.

3.11.1. Azterlanak

Euskadiko emakumeen eta gizonen egoerari buruzko zifrak - 2012

Emakunde sortzen duen 2/1988 Legeak ezartzen du beharrezkoa dela EAEko emakumeen egoerari buruzko txosten bat egitea urtero. txosten horren helburu nagusia da garrantziaren arabera hautatutako zenbait datu jartzea administrazio publikoen, erakundeen eta gizarte-eragileen esku, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasunei buruzko ikuspegi bat emateko eta, hartara, programa publikoak diseinatzea eta planifikatzea errazteko. Beste helburu bat herritarrak informatzea eta sentsibilizatzea da.

Txostenean jaso ditugun adierazleak etengabe eguneratzen direnez, egungo gizarte-egoera azaltzeaz gain, denboran zehar gertatzen diren aldaketa-prozesuen berri izateko ere balio du txostenak. Euskadiko Emakumeen eta Gizonen Egoerari buruzko Zifrak – 2012 txostenak datuak jaso diren urteari egiten dio erreferentzia, eta tarte horretarako argitaratutako azken datuak ematen ditu. Bestalde, txostenean uztartu egin dira ohiko adierazle-sistemaren ordena (biztanleria, hezkuntza, lana, etab.) eta «EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana. IX. Legealdirako Jarraibideak» planean bildutako neurrien arloz arloko antolaketa. Beraz, 6 arlo nagusi hauek bildu ditu: azterketa demografikoa; emakumeen ahalduntzea eta balio-aldaketa, hiru alderditan (baliabide ekonomikoak eskuratzea eta kontrolatzea; gizarte-baliabideak eskuratu eta kontrolatzea; eta parte-hartze soziopolitikoa eta eragina); erantzunkidetasunean oinarritutako gizarte-antolamendua; eta emakumeen aurkako indarkeria.

Txostenean adierazten den informazioa, zenbait erakundek emandako bigarren mailako iturrietatik dator. Hauek dira, zehazki, iturriak: Euskal Estatistika Erakundea (EUSTAT); Estatistikako Institutu Nazionala (INE); eta zenbait administrazioak eta erakundek gai jakin batzuei buruz egindako estatistika eta azterlan sakonak.

Ahalduntzea eta emakume helduak EAEn

Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planaren helburu estrategikoetako bat da emakumeen autonomiaren garapena eta genero-kontzientzia bultzatzea. Helburu estrategiko horren xede zehatza da emakumeen ahalduntze pertsonala handitzea; hau da, eskubide indibidualak eta balio pertsonala eta autoestimua aitortzeko prozesu bat egitea. Horretarako, generoaren sozializazioa deuseztatu behar da neurri batean, eta emakumeek bereizkeria eta berdintasunik eza bizi dituztelako kontzientzia hartu behar da.

EAEko biztanleen ahalduntze-prozesuak sakonago ezagutzeko eta haien bilakae-raren jarraipena egiteko balio diguten adierazleak eduki ahal izateko, nerabeen kolektiboa aztertze lan bat hasi zuen Emakundek 2008. urtean. 2011. urtean, 65 urtetik gorako emakumeen kolektiboa aztertu zuen, eta, aurten, 2012. urtean, bizitzako aro guztiak osatzeko, 18-65 urtekoak aztertu ditu.

Kontuan hartzeko kolektibo horren barruko aniztasuna, bai bakoitzaren belaunaldiaren eta sozializazio-prozesuen ikuspegitik, bai eta bakoitzak une honetan bizi duen bizitza-zikloaren ikuspegitik ere, diseinatutako laginak hiru adin-tarte bereizi ditu: 18-30 urte, 31-45 urte eta 46-64 urte. Adin-tarte bakoitzak ordezkaritza jakin bat du estatistikan. Beraz, esan daiteke txosten honen barruan lau txosten daudela guztira: bat adin-tarte bakoitzeko, gehi emakume *helduen* guztizkoa.

Atzerriko emakume etorkinak EAEn

Adierazleak hobetzearekin jarraituz, eta V. Planak askotariko bereizkeria bizitzeko arriskuan dauden kolektiboen egoeraren eta ekarpenen alorrean hauteman duen beste beharrian bati erantzuteko, EAEko emakume etorkinei buruzko azterlan kuantitatibo bat egin da. Planak berak ematen dituen gomendioen haritik, kolektibo horretako emakumeak hobeto ezagutzen laguntzen du azterlanak, baina ez baliabideen eta beharrianen *eskatzaile* diren aldetik soilik; izan ere, gure gizarteko eragile eta protagonista garrantzitsuak direla ere adierazten du.

Azkeneko hamarkadetan, argi ikusi da emakumeek migrazio-proiektu ugari hasi dituztela. Azken hamar urteetan EAEn finkatu diren pertsonen artetik, adibidez, erdiak emakumeak dira. Azterlan horrek 2011n egindakoa osatzen du. 2011koak zehatz-mehatz deskribatu zituen emakume horien egoera eta ezaugarriak demografikoak, ekonomikoak eta lan-arlokoak, administratiboak, gizarte-harremanak eta gizarte-ongizateari buruz zuten pertzepzio subjektiboa, eta hausnarketarako ildoak proposatu zituen zenbait gairi buruz ahalduntze-prozesuak, alderdi ekonomikoak, kulturalak eta lan-arlokoak, emakumeen errealitatea eta gure gizartean integrazteko egiten dituzten prozesuak azaltzeko eta ulertzeko. Aurtengoak, kolektiboaren azterketa kualitatibo bat egin du, abiapuntutzat hartuta aipatu dugun azterlanean identifikatutako profilak eta funtsezko eremuak, bai eta gure gizarteak kolektibo horri buruz duen ikuspegia ere.

Genero-ikuspegidun aurrekontuei buruzko ekimena

Genero-ikuspegidun aurrekontuei buruzko proiektua amaitu da; proiektu horri aurreko ekitaldian jarri zen abian, Kultura Sailean, Justizia eta Herri Administrazio Sailean eta Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailean. Industria Sailaren aurrekontuak aztertu dira, gastuei dagokienez.

3.11.2. Diru-laguntzen eta beken deialdiak

Genero-ikuspegidun ikerketak eta ikerketa horietarako prestakuntza sustatzeko, bi laguntza ekonomiko mota ematen ditu Emakundek: alde batetik, ikerlanak argitaratzeko diru-laguntzak; eta, bestetik, ikerlanak egiteko beka.

2011ko abenduan egin zen 2012rako diru-laguntzen deialdia. 9 argitalpen-proiektu aurkeztu ziren, eta aurkeztutako proiektuak aztertu eta ebaluatu ondoren, honako laguntza hauek eman ziren:

ESKATZAILEA	PROIEKTUAREN IZENA	ZENBATEKOA
UPV/EHU	Gorputza euskal literaturan	3.687,78 €
UPV/EHU	Feminist Agenda .Euskal narratiba garaikidean	3.387,78 €
Leticia Urretavizcaya Gil	Las mujeres baserritarras: análisis y perspectiva de futuro desde la soberanía alimentaria con enfoque de género. Incidencia y políticas en el marco de la actividad agraria y el desarrollo rural.	3.350,00 €
Asociación Pro Derechos Humanos-Argituz	Necesidades, obstáculos y buenas prácticas en los itinerarios de salida de la violencia de género, desde la perspectiva de mujeres en el área rural de Álava	3.940,00 €
Universidad de Deusto	Representación de las mujeres políticas en prensa	5.634,44 €

2012. urtean eman diren diru-laguntzen erabilera justifikatzeko dokumentuak eta txostenak aztertu dira, eta emaitzak egokiak izan dira. Aurkeztu ziren proiektuetan adierazitako moduan egin dira diruz lagundutako argitalpenak eta haien banaketa, eta gastuen justifikazioa ere behar bezala egin da. Dena den, kasu batean, diru-laguntzaren zenbatekoa murriztu behar izan da, ez delako behar bezala justifikatu gastua.

Bestalde, ikerlanak egiteko beken deialdia 2011ko abenduan argitaratu zen. Bertan adierazi zenez, hiru beka-mota eman behar ziren, eta beken zenbatekoa 23.333 eurokoa zen, iraupena 10 hilabetekoa, eta ikerketa-gaiak, berriz, honako hauek: 1. beka-mota: emakumeen ekarpenak eta aukerak berrikuntza-testuinguruetan, ekonomia-eredu berriak beharrezko dituen mundu aldakor honetan; 2. beka-mota: egoerak eta desberdintasunak aztertzea askotariko bereizkeria jasateko arriskuan dauden emakumeen kolektiboan, eta bereziki, baliabide sozial eta ekonomikoez

baliatzerakoan, eta segurtasunean; eta 3. beka-mota: emakumeen presentzia, eragina eta ordezkaritza informazio eta komunikazio bideetan. Komunikabideetako edukien azterketa, emakumeen eta gizonen berdintasunaren ikuspegitik.

1. beka-motan, 9 eskaera aurkeztu ziren; 2. beka-motan, 22; eta 3. beka-motan, 22. Eskaera denak kontuan hartzen baditugu, emakumezkoek aurkeztu zituzten guztiak, hiru izan ezik. Balorazioak eta elkarrizketak egin ondoren, hiru bekak eman ziren, eta haien jarraipena egin zen, berariaz ezarritako bilera-egutegi baten bidez. Gaur egun, 13 pertsona ari dira prestatzen, eta honako gai hauek landuko dira esleitutako beken bidez:

1. BEKA-MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
Taldea: Teresa Sasiain, Leire Gartzia, Maribel Pizarro, Amaia Arizkuren.	Las mujeres en contextos de innovación: oportunidades, retos y propuestas de acción.	23.333 €
2. BEKA-MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
Taldea: Aurora Urbano, Elisabete Arostegui, Juan Antonio Abeijón.	Estudio longitudinal multietápico sobre el perfil del usuario-a del sistema mental en la red pública vasca-Osakidetza. Análisis de las diferencias por sexos y posibles desigualdades por razón de género	23.333 €
3. BEKA-MOTA	IZENA	ZENBATEKOA
Taldea: Blanca Fernandez, Rut Iturbide, Patricia Oloriz, Amaia Barandica, Patricia Amigot, Paloma Fernandez.	La ingeniería emocional inter géneros en las series con mayor audiencia en la CAE	23.333 €

2011ko beken deialdiari dagokionez, beka-mota guztiak 2012an amaitu dira, aurreikusitakoaren arabera. Balorazio-batzordeak ikerlanak aztertu ditu, eta egokia izan da guztien emaitza.

3.11.3. Argitalpenak

2012an, argitalpen hauek egin dira:

«Txostena 2011 Emakunde»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

«Zifrak. Emakumeak eta gizonak Euskadin. 2011» Txostena

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

27. Txostena:

«Adineko emakumeen autonomia Euskadin eta ahalduztze-prozesuei egin dien ekarpena»

500 ale argitaratu dira paperean, bi hizkuntzatan.

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

28. Txostena:


«Berdintasunak enpresen produktibitatean eta lehiakortasunean daukan eragina»



Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

29. Txostena:

«Soldata-arraila: eragileak eta adierazleak»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.





30. Txostena:

«Erantzukidetasuna, balioak eta generoa»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

31. Txostena:

«Atzerriko emakume etorkinak EAEn»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

24. gida:

«Adierazle-sistema. EAEko emakumeen eta gizonen berdintasuna»

Bertsio elektronikoa dago, bi hizkuntzatan, Emakunderen web-orrian.

3.11.4 Dokumentazio Zentroa

Emakunderen Dokumentazio Zentroak ohiko kudeaketa eta mantentze-lanak egin ditu: funtsak eskuratzea, katalogatzea eta indexatzea, aldizkarien harpidetzak kontrolatzea eta horietatik artikulua hustea... Horrez gain, honako zerbitzu hauek eman dizkie Zentroaren erabiltzaileei:

- Informazio-eskariei erantzun zaie gutunez, faxez, posta elektronikoz, telefonoz edo aurrez aurre.
- Bibliografiaren alorreko aholkularitza eman zaie eta zerrenda bibliografikoak eta bideografikoak egin zaizkie, neurrira, Emakundeko langileei eta kanpoko erabiltzaileei.
- Gai jakin batzuei buruzko prentsako albisteak hautatu dira.
- Liburuak, bideoak eta abar mailegatu dira.

Urtearen bigarren hiruhilekoan, Dokumentazio Zentroak Absysnet programara igaro ditu Absys programa informatikoko bibliografia-funtseko erregistroak. Eusko Jaurlaritzako liburutegi guztiak kudeatzen dituen programa informatikoa da Absysnet, eta, ekainetik aurrera, maileguak eta katalogazioa sarean egin dira. Zentroa barne-mailan nahiz kanpo-mailan Eusko Jaurlaritzako liburutegien sarean sartzeak esan nahi du OPACetik (Eusko Jaurlaritzako liburutegi guztietan kontsulta egiteko pantaila) gure Zentrora sar daitekeela berariaz, edota liburutegi guztietara aldi berean. Beraz, Eusko Jaurlaritzaren liburutegien funtsak kontsultatzen dituzten erabiltzaileek -administrazio publikoko langileak, herritarrak- errazago ikusi ahal izango dituzte gure Dokumentazio Zentroaren funtsak. Lotura honetan egin daitezke kontsultak:

http://www.bibliotekak.euskadi.net/cgi-bin_abnet16/abnetclop

Zentroaren jarduera normala aztertzen badugu, adierazi behar da, Emakundeko langileei emandako arretari eta maileguei dagokienez, 220 kontsulta egon direla (guztira 115 liburu eta 55 ikus-entzunezko dokumentu, DVD, CD-ROM mailegatu dira). Barneko kontsulten kopurua 2011koa (285) baino baxuagoa izan da, eta zenbait aldaketa egon dira mailegatutako material-motan; mailegatutako liburuen kopuruak zertxobait gora egin du, eta ikus-entzunezko materialak (DVDak eta CD-ROMak), berriz, behera.

Kanpoko erabiltzaileei dagokienez, berriz, 230 kontsulta egon dira. Horien %20 (45 eskaera) beste autonomia-erkidego batzuek egin izan da, eta %1,5 (4 eskaera), atzerriko herrialdeek egin. Kasu honetan ere, kontsultak joan den urtekoak baino zertxobait gutxiago izan dira, baina liburuen eta ikus-entzunezko dokumentuen maileguak dezente egin du gora: 132 eta 40 mailegutara iritsi dira, hurrenez hurren.

Azpimarratzekoa da, bi kasuetan -barneko kontsultak nahiz kanpokoak-, posta elektronikoa izan dela berriz ere gehien erabili den bidea (%72), eta gora egin dutela dokumentu elektronikoaren eskaerak ere (Zentroan gordetako artikulua eta dokumentuak edo sarean kontsultatutako baliabideenak). Askotan, Emakundek paperean ere argitaratu dituen liburuak izaten dira, baina banaketarako agortuta daudenak. Tamaina handiko dokumentuak bidaltzeko webgune espezializatuen bidez bidali ohi dira dokumentu horiek.

Sarean eskuragarri dauden beste material batzuei dagokienez, erabiltzaileei Interneten baliabideak edo dokumentuak bilatzen laguntzea edo horretarako jarraibideak ematea izaten da askotan Dokumentazio Zentroaren lana.

Aurrez aurreko kontsulten kopurua aurreko urtekoa baino zertxobait handiagoa izan da, nahiz eta noizbehinka baino ez diren egin halako kontsultak. Izan ere, aurrez aurreko kontsultek behera egin dute 2003tik, nahiz eta 2006an eta 2008an zertxobait gora egin zuten. Beherakada horren arrazoia da gero eta errazagoa dela dokumentu elektronikoak eskuratzea, bai Emakunderen webgunean (lehen mailegatu egiten ziren dokumentuak edo argitalpenak, baina orain webgunetik deskarga daitezkeenak), bai eta gure Dokumentazio Zentroaren katalogoan ere (barneko argitalpenak, kanpokoak...).

Teknologia berrien erabilerak gora egin duela adierazten duen beste datu bat da telefono bidezko kontsultek behera egin dutela azken urteetan -567 izan dira 2012an, eta 606, 2011n-. Aurreko urteetan bezala, kontsulta horiek ez dira modu orekatuan banatu urtean zehar, eta dei gehienak azaroan eta martxoan egin dira, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunagatik eta Emakumearen Nazioarteko Egunagatik. Esan beharra dago maiatzean ere eskaera asko egin direla, unibertsitatearen esparrutik.

Liburutegiko datu-basean, 918 dokumentu-erreferentzia berri sartu dira 2012an (%25 monografiak dira, eta %40tik gora artikulua, dokumentuak...). Azpimarratu behar da, bestalde, dokumentu-erreferentzia berrien %35 euskarri digitalean (DVD) dagoela -351 bidegrabazio-. Emakundek ekoitzitako ikus-entzunezko dokumentuetako asko digitalizatzeko edo formatuz aldatzeko prozesuarekin jarraitu da, bideo formatutik (VHS) formatu digitalera (DVD) igarotzeko.

Katalogatutako materialen erreferentziekin, kaleratu berrien buletinak prestatu dira hilero, eta barneko pertsonen (Emakundeko teknikariak) nahiz kanpokoek (hala eskatu duten dokumentazio-zentroak) banatu zaizkie, posta elektronikoaren bidez. Eusko Jaurlaritzako sailtako berdintasun-teknikariei eta Zentroaren mailegu-zerbitzua erabiltzen duten pertsonen ere bidali izan zaie buletin hori, azkeneko 5 urteetan.

Bestalde, Dokumentazio Zentroak hiru hilez behingo «Emakunde» aldizkaria egiten parte hartu du, eta duela gutxi argitaratu diren eta Dokumentazio Zentroak duela gutxi erosi dituen liburuak edo dokumentuak proposatu ditu aldizkariko «Liburuak» atalean.


Estatuko beste dokumentazio-zentroekin elkarlanean aritzeari dagokionez, nabarmentzekoa da Red de Centros de Documentación y Bibliotecas de Mujeres sarearen jarduera eta proiektuetan parte hartu duela Emakundek; adibidez, aldizkarien katalogo kolektiboaren proiektuan -oraindik aribidean dagoen asmo handiko proiektu bat da, eta kide diren zentro guztietako aldizkako argitalpenen izenburuak biltzen ditu, unean unekoak nahiz dagoeneko argitaratzen ez direnak-, eta *emakume* gaiarekin lotuta dauden indexatze-tresnak (thesaurusa) berrikusteko eta eguneratzeko lan kolektiboetan. Horrez gain, sare horrek irailean Vigon antolatu dituen topaketetan izan da Emakunde.



Dokumentazio-zentroa


Telefono bidezko kontsulta-kopuruaren bilakaera, hilabeteka (2010-2012)

	2010	2011	2012
urtarrila	60	44	40
otsaila	65	58	43
martxoa	72	69	70
apirila	55	45	35
maiatza	80	84	71
ekaina	57	50	48
uztaila	51	18	25
abuztua	2	2	2
iraila	68	52	42
urria	92	50	51
azaroa	89	72	85
abendua	71	62	55




Kanpo-kontsulten kopuruaren bilakaera, hilabeteka (2010-2012)

	2010	2011	2012
urtarrila	30	32	16
otsaila	35	23	18
martxoa	35	30	45
apirila	33	11	26
maiatza	28	25	25
ekaina	19	12	15
uztaila	25	15	20
abuztua	4	5	3
iraila	25	25	10
urria	24	28	15
azaroa	30	32	30
abendua	10	27	12



Kanpo-eskaeren kopurua, erabilitako kontsulta-moduaren arabera (2010-2012)

	2010	2011	2012
posta elektronikoz	221	205	164
aurrez aurre	53	45	50
faxez	1	0	0
postaz	6	2	1
telefonoz	17	13	15



3.12. Gizartearen sentsibilizazioa

3.12.1. Kanpainak

Martxoaren 8ko kanpaina

Emakundek 2012ko martxoaren 8rako diseinatutako kanpainak emakumeek eta gizonen ekonomia- eta enpresen alorrean aukera berdinak izatea landu du, eta emakumeei lana emateak krisitik irteten lagun dezakeela adierazi du. Ideia nagusia izan da berdintasun-politikak krisi ekonomikoaren testuinguruarekin lotzea zentzu positiboan; hau da, azaltzea berdintasun-politikek lagun dezaketela eredu sozioekonomiko berri bat eta ekoizpen-sare berri bat zehazten, eta, horren bidez, gure gizartea krisitik ateratzen.

Martxoaren 8ko kanpainaren helburua izan da herritarrei ikusaraztea berdintasun-politikak gizarte-berrikuntzako elementu bihurtzeko:

- Enpresetan berdintasun-politikak aplikatzea lagungarria izan daiteke etekin hobetzeko, produktibitatea handitzeko, gogobetetzea areagotzeko eta talentua bertan geratzeko.
- Zuzendaritza-postuetan emakume gehiago egoteak ordezkaritza eta aniztasuna sustatzen ditu, eta enpresa kudeatzeko ereduak hobetzen ditu.
- Emakumeen jarduera-tasa areagotzeak emakumeen talentua hobeto aprobetxatzeko balioko du, orain gutxi erabiltzen baita. Hartara, lan-gabezia-tasak murriztuko dira eta hazkundera sortuko da.
- Enpresetako berdintasun-neurriak ez dira emakumeek bizitza pertsonala, familia eta lana uztartzearekin soilik lotu behar; emakumeen eta gizonen erantzukidetasunarekin ere lotu behar dira.
- Enpresetako berdintasun-neurriak plan estrategikoetan gehitu behar dira, eta sindikatuak ados egon behar dute neurri horiekin, sozializatu ahal izateko.

Idea horiek oso lagungarriak izan daitezke ikusarazteko enpresetan berdintasun-politikak aplikatzea ez dela justizia sozialeko kontu bat soilik, baizik eta gizarterako ere onuragarriak izan daitezkeela.

Honako hau izan da kanpainaren goiburua: «Eskubide bat eta krisialditik irteteko neurri bat. LANDU BERTINTASUNA». Enpresetan berdintasun-politikak aplikatzeak emakumeen talentua aprobetxatzen laguntzen du, eta eredu sozioekonomiko berri bat sortzen du, justuagoa eta krisitik irteteko eraginkorragoa.

**Eskubide bat eta krisialditik
irteteko neurri bat**

LANDU BERDINTASUNA

Enpresetako berdintasun-politikek **emakumeen talentua aprobetxatzen dute**, eta krisiari aurre egingo dion **eredu sozioekonomiko berri bat** sortzen dute, justuagoa eta eraginkorragoa.

Martxoaren 8a, Emakumeen Nazioarteko Eguna



Martxoaren 8ko kanpaina

Kanpainan zehar, publizitatea jarri da kanpoan, autobus-geltokien markesinetan, EuskoTrenen eta Metroan. Bestalde, 5.000 kartel inguru banatu dira erakunde publiko, elkarte, ikastetxe, sindikatu, kultura-etxe, osasun-zentro, komunikabide eta gainerako erakunde eta gizarte-eragileen artean. Zenbait aldizkaritan eta webguneetan argitaratu da kanpainaren irudia, eta iragarki laburrak jarri dira zenbait irratan.

Azaroaren 25eko kanpaina.

Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Eguna

2006az geroztik, Berdinsareak kontzientziazio-kanpaina bat egiten du urtero, Emakumeen aurkako Indarkeriaren kontrako Nazioarteko Egunean. EUDELekin, Herrizaingo Saileko Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzarekin eta hiru Foru-Aldundiekin sinatutako hitzarmenaren esparruan, eta EHUreren eta EITBren lankidetzarekin, Emakundek kanpaina hori diseinatzen eta ezagutarazten lagundu du 2012an ere.

Kanpaina gazteentzat izaten da, eta, haren barruan, Beldur Barik programa antolatzen da. Programa horrek zenbait ekimen hartzen ditu barnean. Alde batetik, Beldur Barik Jarrera lehiaketa antolatu da, emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako jarrerak eta proposamenak sustatzeko; lehiaketak erantzun ona izan du, 131 lan aurkeztu baitira. Hirugarren edizio honetan ere, lehiaketaren helburua izan da sustatzea era guztietako arte-adierazpenak egin daitezen, erakusteko nola egiten dioten aurre neska-mutilek emakumeek gaur egun bizi duten berdintasunik ezaren egoerari, errespetuan, berdintasunean, askatasunean, autonomian, erantzukidetasunean



Lakuako kontzentrazioa

eta indarkeria sexistari uko egitean oinarritutako jarreraren eta portaeren bidez. Joan den urtean bezala, hirugarren edizio honen helburuetako bat izan da ikastetxeen parte-hartzea sustatzea. Bestalde, udalek tokiko ekimenak egitea ere bultzatu nahi izan da. Tokiko sariez gain, prestakuntza- eta sentsibilizazio-ekintzak egin dira Beldur Barik programaren barruan; adibidez, komiki-lantegiak, ikus-entzunezkoen lantegiak, eta neskentzako autodefentsa-lantegiak. Horien guztien helburua izan da indarkeriarik gabeko harremanak sustatzea gazteen artean, ahalduz eta autonomian oinarrituta.

Lan hauek izan dira lehiaketako irabazleak: lehenengo kategorian (12-17 urte), «Ez da txiste bat» bideoa, Maurgako ikus-entzunezkoak sortzeko Zinhezba lantegiko neska-mutilek egina; bigarren kategorian (18-26 urte), «Guapa» lana, Gatikako Barezi Caballerok egina; herri-sariaren kategorian, «Ez utzi itzaltzen» lana, Debako Nere Oriak eta Ane Arrizabalagak egina. Aipamen bereziak jaso dituzten lanak, berriz, honako hauek izan dira: lehenengo kategorian, «Ametsak», Bilboko Gallego Gorria ikastetxeko antzerki-taldeak egina, eta «Kanpora etiketak», Abadiñoko Jone Astorkiak, Jone Azpirozek, Laia Gerrikagoitiak eta Elene Quintanak egina; eta, bigarren kategorian, «La rabia», Lorena Condek egina, eta «Izan nahi duzu?, Elorrioko txoko Feministako neskek egina.

Bestalde, azaroaren 24an, Beldur Barik Topaketa egin zen Gasteizko Artiumen. Topaketa horretan, sariak banatzeaz gain, zenbait prestakuntza-lantegi egin ziren (komikiak sortzeari buruzkoa, gorputzaz gozatzeari buruzkoa, aplikazio teknologikoen eta jolas-jardueren bidez sormen feminista lantzeari buruzkoa, eta autodefentsa feministari buruzkoa), eta emakumeek musikan egin duten lanari buruzko Emarock erakusketaz, Gasteizko «Perkuneskak» emakumeen perkusio-taldeaz eta «Ez da kasualitatea» bertsolaritza-ikuskizunaz gozatu ahal izan zen, bai eta lehiaketara aurkeztutako lan guztiez ere.

Horrez gain, Programaren barruan, indarkeria sexistaren kontrako *flashmob* bat egin zen, azaroaren 10ean, EAEko hiru hiriburuetan, Lady Gagaren Telephone abestia-ekin. Udalerrri batzuetan, horma-irudi bat margotu zuten udalerriko horma batean, Beldur Barik iragarkiko istorioan oinarritutako komiki-bineta bat hartuta abiapuntutzat. Azkenik, joan den urteko lan irabazleetan oinarritutako unitate didaktiko bat egin zen, irakasleek, monitoreek eta abarrek ikastetxeetan edo neska-mutilek parte hartzen duten gunetan landu beharreko dinamikekin; programaren webgunean, berriz, gazteen artean berdintasuna sustatzeko eta indarkeria sexista prebenitzeko zenbait gairi buruzko materialak bildu eta garatu ziren (feminismoak, gorputza, mutiletan edo neskatan egitea, Beldur Barik jarrerak, sexu-aniztasuna...). Informazio gehiagorako: www.beldurbarik.org

Beldur Barik programa zenbait ingurunetan eta erakundetan aurkeztu da, hala nola berritzeguneetan, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren bidez.

3.12.2. IX. Berdintasunerako Gunea

Berdintasunerako urteroko gune honen helburua da erakunde publikoek eta kolektibo eta entitate pribatuek EAEn gizonen eta emakumeen berdintasunarekin lotuta egiten dituzten sentsibilizazio- eta prestakuntza-ekimenak bultzatzea eta ikusaraztea. Bederatzigarren edizio honetan ere, ardatz nagusi baten inguruan antolatu dituzte erakunde guztiek beren jarduerak, eta Emakundek Berdintasunerako Gunea prestatzeko mintegi bat antolatu du, gune horretan parte hartu duten erakunde guztien lana ardatz nagusi horren inguruan kohesionatuta egoteko (ikusi «3.5.3. Kanpoko prestakuntza» atala).

Aurten, IX. Berdintasunerako Gunea jarri du martxan Emakundek maiatzaren 7tik 28ra bitartean, erakunde publikoek eta pribatuek emakumeen eta gizonen berdintasunarekin lotutako sentsibilizazio- eta prestakuntza-jarduerak antolatu ahal izateko eremu berean, eta, hartara, Euskadin alor horretan egiten den lana ikusarazteko. »Berdintasun-esperientziak ekonomiaren esparruan» izan da jardueren gai nagusia, eta honako programa hauek landu dira bereziki: EAEko Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Planeko I. ardatzeko (Emakumeak ahalduntzea eta balioak aldatzea) 2.1 (Emakumeen laneratzea, lan-baldintzak eta mailaz igotzeko aukera hobetzea), 2.3 (Baliabide sozialak eskuratzeko aukerak hobetzea) eta 3.2 (Erabakiguneetan emakume gehiago egotea). Beraz, IX. Berdintasunerako Gunean, sakon hausnartu ahal izan da honako gai sozioekonomiko hauei buruz:

- Berdintasunerako Legea ekonomiaren esparruan eraginkorrako bihurtzeko egin daitezkeen arau-garapenak.
- Ekonomia antolatzeko eta kudeatzeko erantzukideagoak, bidezkoagoak eta paritarioagoak diren eredu berriak.
- Zer ondorio ekonomiko dituzten berdintasun-planek eta -neurriek, emakumeak zuzendaritza-postuetan egoteak, emakumeen autonomia ekonomikoak...

54 entitatek hartu dute parte: 14 elkarteak, 11 enpresak, 8 fundaziok, Eusko Jaurlaritzako 5 sailek, 2 unibertsitatek edo ikastetxek, 3 alderdi politikok, 3 enpresari-elkarteak, foru-aldundi batek, profesionalen elkargo batek, 5 udalek eta sindikatu batek. Guztira, 55 jarduera egin dira 15 herritan, eta 4.000 bat pertsonak hartu dute parte. Nabarmenezkoa da aurten eutsi egin zaiola parte-hartzaileen kopuruari, eta horren arrazoia izan daiteke erakundeen eta ikastetxeen zenbait jarduerak parte-hartzaile ugari izan dituztela. Gizonen eta mutilen parte-hartzearen ehunekoak (%23,86) ez du gora egin, baina azken hiru urteetan izandakoaren antzeko maila lortu da. Parte-hartze horren bilakaera historikoari erreparatzeko badiogu, ikus dezakegu 2004an %5 zela, 2009an %14, 2010ean %22, 2011n %29

eta 2012an %23,86. Ikastetxeetako eta gazteentzako jardueri eta gurasoentzat eta seme-alabentzat antolatutako jardueri esker lortu da parte-hartze handi hori.

3.12.3. Emakunde aldizkariaren argitalpena

Formatu digitalaren aldeko apustua sendotu du Emakunde aldizkariak 2012. urtean. Apustu hori egin da, teknologia berriek ematen dituzten abantailez baliatzeko; hau da, ingurumena zaintzeko eta kostu ekonomikoak murrizteko. Hala ere, ez da papereko formatua erabat baztertu, pertsona guztiek ez baitute teknologia berriak erabiltzeko aukerarik. Hori dela eta, aldizkariaren laburpen bat argitaratu da formatu elektronikoko alearekin batera, bereziki gure autonomia-erkidegoko emakume-elkarteentzat. Emakume-elkarteei, liburutegiei eta dokumentazio-zentrotrei bidaltzen zaie paper-formatuko laburpen hori, eta *pdf* formatuan ere deskarga daiteke, Emakunderen aldizkari digitalaren webgunetik.

Aldizkariaren aldizkakotasunari eutsi zaio 2012an, lau aldizkari argitaratu baitira urtean. Nolanahi ere, bertsio digitala etengabe eguneratu da. Hona hemen 2012an argitaratutako aldizkariak:



- **84. zenbakia - 2012ko udaberria.**
Alardezaleak elkarrekin:
«Tradizioak ez du sexurik, eta bizirik irauten badu denbora. Berrietara egokitzen delako da».



- **85. zenbakia 2012ko uda.**
Ermuko Emakumeen Asanblada:
«Berdintasunarekin konpromisoa».



- **86. zenbakia**
2012ko udazkena.
Emakumeak eta teknologia berriak.



- **87. zenbakia**
2012ko negua.
Berdintasun-politikak bultzatzeko Nazioarteko Biltzarra.

Hamabost egunetik behin, aldizkarira harpidetu diren pertsonen newsletter edo buletin elektronikoa bat bidali zaie, azken berriei.

Aldizkaria bi hizkuntzatan argitaratzen da. Euskarazko bertsio osoa eta gaztelaniazko bertsio osoa ditu.

3.12.4. Berdintasunerako Emakunde Saria

Irailaren 12ko 166/2006 Dekretuak sortu eta arautzen du Berdintasunerako Emakunde Saria. Hala ere, 1990. urtean Emakunde sariekin hasitako lanaren emaitza da; sari horiek urtero eman izan dira, 2005. urtera arte.

2006. urtean, 16 urtez Emakunde sariekin lanean aritu ondoren, sari horiek birformulatu egin ziren, eta Berdintasunerako Emakunde Saria sortu zen. Sari horren helburua da azpimarratzea eta jendaurrean aitortzea emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorrean egindako lanagatik nabarmendu diren pertsona fisiko eta juridikoen, publiko nahiz pribatuena, jarduerak. Saria ematen zaie, emakumeen lana aitortzen laguntzeko edo emakumeen ahalduntzea hobetzeko zenbait ekintza, lan edo proiektu egin dituztelako, edota beren jarduerak nabarmen lagundu duelako emakumeen zeregina balioesten eta duin bihurtzen edo EAEko emakumeen eta gizonen eskubide- eta aukera-berdintasuna sustatzen.



Berdintasunerako Emakunde Saria



2012ko urtarrilaren 23an egindako prentsaurreko baten bidez jakinarazi zuen Emakundek 2011ko hautagai saritua, eta 2012ko apirilaren 24an eman zitzaien saria, Donostiako Kursaal, Emakunde Gauaren testuinguruan, Irungo San Martzial Alarde Mistoari eta Hondarribiko Jaizkibel Konpainiari. Alarde Publikoaren Alde ALARDEZALEAK Elkarteak izan zen konpainien ordezkaria. Horrez gain, Emakunde GUA ekitaldian, omenaldi bat egin zitzaion alardeei, azpimarratzeko zeinen lan garrantzitsua egin duten emakume-elkarateek, eta gogorarazteko berdintasunak ezak zer zifra dituen oraindik ere gure Autonomia Erkidegoan. Emakundeko Zuzendari María Silvestrek eta Eusko Jaurlaritzako bozeramaile Idoia Mendiak eman zieten saria alardeen ordezkariari.

Berdintasunerako Emakunde Sariaren 2012ko edizioari dagokionez, berriz, Emakundeko zuzendariaren 2012ko uztailaren 26ko Ebazpenaren bidez egin da deialdia.

Honako hauek izan dira edizio horretako epaimahaiko kideak: Emakundeko Zuzendaritza, hiru Foru-Aldundietako ordezkariak, udaletako ordezkari bat, Emakundeko teknikari arduradun bat, Emakundeko Zuzendariak izendatutako berdintasunaren alorreko hiru aditu, eta Aholku Batzordeko ordezkari bat. Epaimahaia 2012ko abenduaren 13an bildu da, eta saria Bilboko Arreta Psikosozialeko Moduluei (Errekaldeberriko Modulua, Deustu-San Inazioko Modulua eta Iralako Auzolan Modulua) ematea erabaki du. Izan ere, azpimarratu du erakunde horiek 35 urtetik gora daramatzatela lanean, aitzindariak izan direla, eta denboran zehar



Berdintasunerako Emakunde Saria

irautea lortu dutela, baita egungo une zailetan ere, gizarte-aldaketetara egokitze duten gaitasunagatik eta eskariarekiko duten sentsibiltateagatik.

Bilboko modulu psikosozialak 70eko eta 80ko hamarkadetan sortu ziren, emakume-taldean eta auzokide-mugimenduaren ekimenez, zerbitzu publikoek hutsune handiak zituztelako diktaduraren ondorengo lehen urte haietan. Garai hartan, ez zegoen ez emakumeei arreta emateko zentrorik, ez familia-plangintzarako zentrorik, ez eta biktimak diren emakumeak babesteko zentrorik ere. Egoera hori izanik, auzoetako emakumeak talde berezitan antolatu ziren auzokide-mugimenduaren barruan, emakumeen eta gizonen berdintasunaren alde lan egiteko. Honako aldarrikapen feminista hauek zituzten: antisorgailuak eskuratu ahal izatea, abortatzeko eskubidea izatea, beren sexualitatea edukitzeko eskubidea izatea, tratu txarretatik babesteko laguntza legala eta soziala jasotzea eta legearen aurrean berdinak izatea.

1970ean, Errekaldeberriko moduluak sortu zen; 1982an, Iralakoa; eta 1983an, Deustu-San Inaziokoa. Arreta-zerbitzu horiek era askotako laguntza eman dute: laguntza ginekologikoa, 75.000 emakumeri baino gehiagori; laguntza psikologikoa, 12.000 emakumeri baino gehiagori; aholkularitza juridikoa, 12.000 emakumeri baino gehiagori; eta gizartean baztertuak izateko arriskuan dauden emakumeentzako laguntza. Urte hauetan, hezkuntza-psikologiako hitzaldiak, lantegiak eta jardunaldiak ere egin dituzte.

Epaimahaiak azpimarratu du emakumeen ekimenez sortu direla moduluak auzokide-mugimenduen barruan, eta autokudeaketa-eredu bat erabili dutela, erakunde publikoekin lankidetzan. Nabarmentzekoa da ikuspegi oso batetik eta generoaren ikuspegitik eman dituztela zerbitzuak, eta lagundu dutela berdintasunerako fun-

tsezkoak diren gai batzuk normalizatzen; adibidez, emakumeek beren gorputzaren kontrola izaten, harremanak izateko modua erabakitzeke eskubidea izaten, berdintasunik eza ikusarazten eta emakumeen aurkako indarkeria ez toleratzen. Bestalde, epaimahaiak adierazi du aniztasunaren ikuspegia ere txertatu dutela, era guztietako emakumeekin egin dutelako lan, eta era askotako esparruetan jardun dutela, laguntzen, ikertzen eta prestakuntza ematen lan egin dutelako. Azkenik, gehitu du auzoetako bizitzan komunitate bat sortzeko gai izan direla.

3.12.5. Emakunde ataria

Emakundeko atariko edukiak eguneratu eta gehitu dira. Alderdi aipagarrienak: eguneratu egin dira Emakunderen jarduera-eremuetako atal guztien edukiak, atari tematikoak, zerbitzuak eta baliabideak, eta albiste eta berri nabarmenei buruzko atala; halaber, estekak ezarri dira Emakundeko aldizkari digitalerako eta zenbait aplikaziotarako, esate baterako, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako V. Plana ebaluatzeke aplikaziotarako eta emakume profesionalen direktorioaren aplikazio berrirako (azken aplikazio horri esker, hainbat jakintza-eremutako emakume profesionalen direktorioa zabaldu, eguneratu eta gehitu daiteke).



3.12.6. Sare sozialak

Sare sozialen aldeko apustuari eutsi zaio 2012an, Facebook eta Twitter sareetako kontuen bidez. Bi kontu horietan, Emakunde aldizkariko berrikuntzak azaltzen dira, bai eta emakumeen eta gizonen berdintasunaren alorreko artikulak eta dokumentu interesgarriak ere. Gizonduz ekimenerako kontu bat ere badu Emakundek Facebooken.

Gainera, Emakunderen jarduerarekin lotutako bideoak igo dira sarera, eta erakundeak kontu bat dauka dagoeneko YouTubeen.

Azkenik, Emakunderi buruzko albisteak eta eguneraketak agertu dira Irekia atarian.

4

BERDINTASUNAREN ETA SEXUAGATIKO BEREIZKERIARIK EZAREN PRINTZPIOA DEFENDATZEA SEKTORE PRIBATUAN



2012an, Zerbitzu hau gehitu zaio Emakunderen egitura organikoari. Otsailaren 16ko 3/2012 Legeak, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Legea eta Emakunde-Emakumearen Euskal Erakundea sortzeko Legea aldatzeko denak (aurrerantzean, 3/2012 Legea), Emakunderi esleitzen dizkio Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak orain arte egin dituen eginkizunak.

Beraz, Zerbitzu horren helburua izango da emakumeen eta gizonen tratu-berdintasunaren printzipioa betetzen dela bermatzea eta sexu-arrazoiengatik gertatzen diren bereizkeria-egoerak edo -jarduerak zuzentzea EAEko sektore pribatuan.

Horretarako, eginkizun hauek bete beharko ditu Zerbitzuak: ikerketak egitea; negozioazio-bideak jartzea; gomendioak ematea; emandako gomendioen jarraipena egitea; aholkuak ematea; jazarpen sexistaren kasuak errazago konpontzeko bitarteko izatea; bereizkeriaren aurkako arauen betetze-maila aztertzea eta ebaluatzea; bereizkeriaren aurkako legedia eta jurisprudentzia aztertzea; lege-proposamenak eta legeak erreformatzeko proposamenak egitea; egiten dituen jarduerak jakinaraztea; txostenak eta irizpenak egitea; koordinazio-mekanismoak proposatzea; eta lan-administrazioako agintaritzarekin lankidetzan jardutea, emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren alorrean bereizkeriaren aurkako lan-arauak betetzen diren edo ez begiratzeko.

Eginkizun horiek betetzeko, dagoeneko desagertu den Defentsa Erakundean lan horiek egiten zituzten langile berberak daude; hau da, bi aholkulari juridiko eta teknikari laguntzaile bat. Langile horien bidez, laguntza ematen zaie herritarrei sexuagatiko bereizkeriaren egoeretan, eta emakumeen eta gizonen tratu-berdintasuna sustatzen da. Kexak edo salaketak jartzean espedienteak izapidetzeaz eta bideratzeaz gain, eta idatziz egin beharreko txostenak eta kontsultak egiteaz gain, zuzeneko eta berehalako arreta ematen zaie sexuagatiko bereizkeriaren eskumenaren barruan dauden kontsultak egin edo kexak jarri nahi dituztenei, aurrez aurre, posta elektronikoz, telefonoz edo fax bat bidaliz.

4.1. Herritarrei arreta emateko jarduerak

Honako kasu hauek izan ditugu 2012an:

Kontsultak: 85

EXPEDIENTE-ZK.	KONTSULTAREN ARRAZOIA
C20120001	Enpresa bereko bi langilek legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko eskubideari buruz egindako kontsulta.
C20120003	Gizon banandu batek adierazi du haserre dagoela ez diotelako aita-lanak egiten uzten.
C20120004	Kontsultatu du ea zilegi den lanpostu-zerrendan argitaratzea legezko zaintzagatik lanaldia murriztu duten pertsonen izena.
C20120005	Gizarteratzea ikasten ari den pertsona batek informazioa eskatu du, genero-indarkeriaren biktima bati eginiko elkarrizketa bat simulatzeko.
C20120006	Familia eta lana uztartzeari buruzko kontsulta.
C20120007	Legezko zaintzagatik lanaldia murriztearen araubide juridikoari eta aldaketa geografiko txiki bati buruzko kontsulta.
C20120008	Etxeko zerbitzari lanari buruzko informazioa eskatu du.
C20120009	Ama ezkongabe batek bere eskubideei buruzko informazioa eskatu du.
C20120010	Mugikortasun geografikoari eta lanaldi-murrizketari buruzko kontsulta.
C20120011	Dibortzioa arautzen duen hitzarmenarekin lotutako laguntza eskatu du.
C20120012	Ikasleak ikastetxe publikoetan eta itunpeko ikastetxeetan onartzeko prozedura arautzen duen martxoaren 4ko 35/2008 Dekretuari buruzko kontsulta.
C20120013	Haurdun dagoela adierazi ondoren kontratua berritzeari buruzko kontsulta.
C20120014	Bizkaiko Udal batek protokoloari buruz egindako kontsulta.
C20120015	Elkarte gastronomikoei buruzko informazioa eskatu du.
C20120016	Haurdun dagoen eta enplegua erregulatzeko espediente bat duen emakume baten kontsulta.
C20120019	Legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko arauketa juridikoari buruzko kontsulta.
C20120020	Legezko zaintzagatik lanaldia murrizteko eskubidea izateari buruzko kontsulta.
C20120021	Legezko zaintzagatik lanaldia murriztu ahal izateari buruzko informazioa eskatu du.
C20120022	Enpresa batek ez dio janari-txartela eman nahi %33ko lanaldi-murrizketa duen emakume bati.

ESPEDIENTE-ZK.	KONTSULTAREN ARRAZOA
C20120023	Bidegabeko kaleratze bat negoziatu ondoren kaleratua izan den haurdun batek galdetu du ea sexuagatiko bereizkeriarik egon daitekeen.
C20120024	Haurdun dagoen emakume batek informazioa eskatu du amatasunagatik kontratua etetearen izapideei buruz.
C20120025	Etxeko zerbitzari lanari buruzko kontsulta.
C20120026	Udal bateko berdintasun-teknikari batek emakumezko taxi-gidari baten eszedentziari buruz egindako kontsulta.
C20120027	Bularra emateko baimenari buruzko kontsulta.
C20120028	Suhiltzaile zerbitzuko ofizial-plaza baterako aurkeztu den emakume batek proba diskriminatzaile bat salatu du.
C20120029	Haurdun eta bajaran dagoen emakume batek ez du kobratzen, eta enpresak dio ez duela kaudimenik.
C20120030	Enpresak aldaketa geografiko bat proposatu dio emakumezko langile bati, eta langile horrek galdetu du ea badagoen sexuagatiko bereizkeriarik.
C20120031	Presazko laguntza eskatu du.
C20120032	Bularra emateari buruzko kontsulta.
C20120035	STOP DESAHUCIOS plataformak emakume bati laguntzeko eskatu du.
C20120036	Etxeko zerbitzari lanaren arauketa berriari buruzko informazioa eskatu du.
C20120037	Emakunderi buruzko informazioa eskatu du.
C20120038	Lan-erreforma berriaren arauketa juridikoari buruzko kontsulta.
C20120039	Amatasun-bajei, oporrei, bularra emateari eta abarri buruzko kontsulta.
C20120047	Amatasun-bajei, oporrei, bularra emateari eta abarri buruzko kontsulta.
C20120048	Soldatak Bermatzeko Funtzari buruzko informazioa eskatu du.
C20120049	Bularra ematean egon daitekeen arriskuagatiko bajari buruzko epaiak eskatu ditu.
C20120050	Haurdun egotean dituen lan-eskubideei buruzko kontsulta.
C20120051	Eguneko legezko zaintzagatik lanaldia murrizteari buruzko informazioa eskatu du.
C20120052	Haurdunaldiari eta lan-eskubideei buruzko kontsulta.
C20120054	Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari buruzko informazioa eskatu du.
C20120055	Eskola pribatu bateko berdintasun-dinamizatzaileak informazioa eskatu du lana eta familia uztartzeko eta eszedentzietarako eskubideei buruz.
C20120056	Telelanari buruzko informazioa eskatu dute.
C20120058	Lanaldia murriztuta duen emakumezko funtzionario batek galdetu du ea EPEko epaimahaiko kide izan behar duen.

ESPEDIENTE-ZK.	KONTSULTAREN ARRAZOIA
C20120059	Dibortzio-epaia gauzatzeari buruzko informazioa eskatu du.
C20120060	Bularra emateko garaian egoten diren kaleratzeei buruzko informazioa eskatu du.
C20120061	Lanaldi-murrizketa bat ukatu diotela eta, gizon batek eskatu du beraren eta enpresaren arteko bitartekotza egiteko.
C20120062	Banketxe bateko presidenteak egindako adierazpenak egokiak diren edo ez galdetu du.
C20120063	Enpresa pribatu batean sexuagatik gertatu ahal izan den bereizkeriari buruzko informazioa eskatu du.
C20120064	Adierazi du ez dagoela ados Gasteizen emakumeen alde antolatzen den lasterketarekin.
C20120065	Emakume batek legezko zaintzagatik eszedentzien arauketa juridikoari buruzko informazioa eskatu du.
C20120066	Senar ohiarengandik mantenu-pentsioa kobratzeko arazoak dituen emakume batek laguntza juridikoa eskatu du.
C20120067	Segurtasun pribatuko langile baten lan-arazoak.
C20120068	Guraso bakarreko familientzako diru-laguntzei buruzko kontsulta.
C20120069	Emakume ekintzaileentzako diru-laguntzei edo laguntzei buruzko kontsulta.
C20120070	Enpresa pribatu handi bateko hitzarmen kolektiboan zeharka gertatu ahal izan den bereizkeriari buruzko kontsulta.
C20120071	Banandu egin nahi duen emakume batek informazioa eskatu du, egin beharreko urratsei buruz.
C20120072	Udalekuetako begirale batek adierazi du ez zaiola ongi iruditzen 12-14 urteko gazteak sexuaren arabera banatzea logelatan.
C20120073	Berrikuntzarako, Ikerketarako eta Zientziarako Europako Batzordeak emakumeak zientzialari izatera bultzatzeko egin duen bideo bat salatu du, estereotipoetan oinarritzen dela uste duelako.
C20120074	Laneko jazarpena bizi duten emakumeek laguntza eskatu dute.
C20120076	Senar ohiarekin duen arazo batean laguntzeko eskatu du.
C20120077	Salatu du emakumea objektu gisa erabiltzen dela txirrindularitza-izulietako sari-banaketetan.
C20120078	Dibortzioei buruzko informazioa eskatu du.
C20120079	Arazoak izan ditu «gela-zerbitzariak» ikastaroko praktikak egitean, Bilboko hotel batean.
C20120081	Legeszko zaintzagatik eszedentzia hartzeari buruzko kontsulta.
C20120082	9 hilabetetik beherako haur bati bularra emateko baimenari buruzko kontsulta.
C20120084	Galdetu du nola jokatu behar duen ustez lan-esparruan bere ohorearen eta irudiaren aurka egin den delitu baten aurrean.

ESPEDIENTE-ZK.	KONTSULTAREN ARRAZOIA
C20120085	Adierazi du haserre dagoela, Eusko Jaurlaritzak lanaldia murrizteko ematen dituen laguntzak besterentzat lan egiten duten langileentzat direlako, eta ez autonomoentzat.
C20120087	Galdetu du zein den opor-egunen kopurua, oporraldirako eszedentzia bat eskatu ondoren.
C20120089	Galdetu du zer egin dezakeen bere nagusiarengandik bizi duen sexu-jazarpena dela eta.
C20120092	Bularra emateari buruzko kontsulta.
C20120093	Kooperatiba bateko giza baliabideen zuzendariak laguntza eskatu du, sexu-jazarpeneko gai bati buruz.
C20120094	Emakume batek adierazi du haserre dagoela, atletismo-klub batek proposatu duelako emakumeei kuota bat kobratzea, entrenatzaile bat kontratatzeke.
C20120096	Emakume bat lanera itzuli da eszedentzian egon ondoren, eta enpresak enplegua erregulatzeko espediente bat proposatu dio. Emakumeak zer eskubide dituen galdetu du.
C20120097	Arazo judizialak senar ohiarekin.
C20120098	Gipuzkoako udal bateko berdintasun-teknikariak hizkera ez-sexistari buruz galdetu du.
C20120099	Bizkaiko udal batek ezetz esan dio gurasotasun-baimena eskatu duen langile bati.
C20120100	Lan-eskaintzako iragarki bat jarri zuen emakume batek erantzun sexistak jaso ditu, eta zer egin jakin nahi du.
C20120102	Bularra emateko eskubidea kalkulatzeari buruzko kontsulta.
C20120103	11 urteko neska batek futboleko jokatu nahi du bere kategorian, eta ezin du, ez dagoelako talderik. Amak galdetu du nola lagundu diezaiokeen.
C20120104	Bikote bat duela urtebete banandu da. Semeak galdetu du nola lagundu diezaiokeen amari.
C20120108	Enpresa pribatuan legezko zaintzagatik lanaldia murrizteari buruzko kontsulta.
C20120109	Etxeko zerbitzarien kontratu-motei buruzko kontsulta.
C20120114	Amatasun-bajari buruzko informazioa eskatu du.
C20120116	Adierazi du haserre dagoela, haurra izateko adinean dauden emakumeak diskriminatu egiten direlako lana emateko orduan.

Kexak: 12


ESPEDIENTE-ZK.	KEXAREN ARRAZOIA
Q20120018	Iragarki matxistak dituen blog bat salatu du.
Q20120033	Sindikatu batek kexa bat jarri du, enpresa pribatu bateko langileen izenean eta haien ordezkari gisa.
Q20120034	Sindikatu batek kexa bat jarri du, Vitoria-Gasteizko merkataritza-gune batean ustez gertatutako bereizkeria-tratuagatik.
Q20120042	Ustezko bereizkeria, bidaia-agentzia batean.
Q20120043	Emakume bat kexatu egin da, Arabako kirol-federazio batek ez diolako utzi probintziako txapelketetan parte hartzen.
Q20120046	Ustezko bereizkeria, aurreikuspeneko erakunde bateko aseguru-poliza batean.
Q20120075	Emakume bati ez diote utzi elkarte gastronomiko batean sartzen.
Q20120080	Administrazio publikoko bulego batean jasotako arretagatiko kexa.
Q20120086	Auzoko arazoak.
Q20120101	Emakume batek arazoak ditu diru-sarrerak bermatzeko errentaren eta prestazio osagarriaren izapideak egiteko.
Q20120105	Emakume batek kexa bat jarri du, bere herriko eskolaz kanpoko kirolaren eskaintzagatik.
Q20120106	Emakume batek salatu du irregulartasunak egon direla, bere espedientearen izapideak egitean administrazio publiko batean.

Salaketak: 20

ESPEDIENTE-ZK.	SALAKETAREN ARRAZOIA
D20120002	Auzokide bat salatu dute, proxeneta izateagatik.
D20120017	Interneteko mentalitate matxista salatu du.
D20120040	Salatu du komunikabide batek hizkera sexista erabili duela.
D20120041	Salatu du jatetxeen alorreko multinazional batek sexuaren arabera egiten dizkiela opariak haurrei.
D20120044	Salatu du sexuagatiko bereizkeria egon daitekeela enpresa bateko zuzendaritza-kotetan.
D20120045	Sektore jakin bateko Bizkaiko hitzarmen kolektiboa salatu du.
D20120053	Iragarki bat salatu du.
D20120057	Salatu du uniformeak modu sexistan erabiltzen dela merkataritza-gune handi batean.
D20120083	Salatu du hizkera sexista erabili dela fundazio bateko dokumentu batean.
D20120088	Salatu du bereizkeria positiboa erabili dela bola-jokoaren txapelketetan.
D20120090	Sindikatu batek enpresa bat salatu du, ez duelako berdintasun-plana bete; izan ere, ez ditu plan horretan adostutako jarraibideak txertatu lan-eskaintza batean.
D20120091	Unibertsitatekoak ez diren ikasketetarako bekak emateko eskatzen diren baldintzak salatu ditu.
D20120095	Emakumeen kultura-elkarte batek abesti bat salatu du, emakumeak iraintzen dituela uste duelako.
D20120107	Salatu du fundazio batek ikusezin bihurtu duela emakumea.
D20120110	Kirol-sozietate batek antolatutako herri-kros batek sari desberdinak ditu gizonentzat eta emakumeentzat.
D20120111	Salatu dute tratu iraingarria jaso dutela zentro mediko batean, Bilbon sexu-eraso bat jasan ondoren.
D20120112	Jostailuen katalogoak salatu ditu, Gabonetako kanpainakoak bereziki, baina baita urte osokoak ere.
D20120113	Arropa-marka baten iragarki sexista salatu du.
D20120115	Nyotaimori izeneko jarduera salatu du, emakumearen gorputza modu iraingarrian erabiltzen duelako.
D20120117	Surf-txapelketa batean bereizkeria egon litekeela salatu du.

2012an, Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako Defentsa Erakundeak 117 eskaerari erantzun die. Eskaera horietatik 85 kontsultak izan dira, 12 kexak, eta 20 salaketak.

Espedienteen tipologia (117 espediente)



4.1.1. Espedienteen esparrua eta arrazoia

Eskaera gehienak lanarekin lotuta egon dira, eta, lanaren barruan, familia eta lana uztartzeari eta amatasunari dagozkienak izan dira nagusi. Bestalde, urtetik urtera, gero eta eskaera gehiago jasotzen dira komunikabideekin lotuta eta, batez ere, publizitatearekin lotuta; zehazki, emakumearen irudiaren erabilerarekin, estereotipoetan oinarritutako irudiekin eta haurrentzako iragarkietan rola esleitzearekin lotuta egoten dira. Azkenik, pixkanaka-pixkanaka, kirolaren esparruko eskaerak ere iristen ari dira. Eskolaz kanpoko kirolari buruzkoak azpimarratu behar dira.

Herritarrek hala eskatuta, egungo arauketak eragin ditzakeen sexuagatiko bereizkeriekin lotutako txostenak egin ditugu. Honako hauek dira azpimarragarrienak: hidrokarburoen sektoreko enpresa handi bateko enpresa-batzordeak hala eskatuta, laneko igoeren arauketan sexuagatik egon daitekeen bereizkeriari buruz egindako

txostena; Bizkaian likoreak eta ardoak egiten dituzten enpresen eta langileen sektoreko hitzarmen kolektiboari buruzko txostena; eta, azkenik, suhiltzaile-zerbitzuko hiru ofizial-plaza eskuratzeko hautaprobei buruzko txostena.

4.1.2. Beste erakunde batzuetara bideratutako espedienteak

18 eskaera beste erakunde batzuetara bideratu behar izan dira, gaiagatik edo eskumen-esparru geografikoagatik. Esparru publikoari dagozkionak, adibidez, Arartekoarengana bideratu ditugu. Eremu geografikoagatik Euskal Autonomia Erkidegotik kanpo geratzen direnak, berriz, dagokion Emakumearen Institutura bideratu ditugu.

4.1.3. Telefono bidezko eta aurrez aurreko arreta

Zerbitzuak zuzeneko eta berehalako arreta ematen dio aholkua eskatzen duen edozein herritarri. Alde horretatik, azpimarratu nahi dugu 280 kontsultari erantzun zaiela telefono bidez edo aurrez aurre, eta, beraz, sektore pribatuan berdintasunaren eta sexuagatiko bereizkeriarik ezaren printzipioa defendatzen duen zerbitzu honen lehentasunezko lana bete da.

Kontsulta horiek era askotakoak izan dira, baina egia da aurten asko areagotu direla krisi ekonomikoarekin eta haren ondorioekin lotutakoak; adibidez, langabezia-presazioaren, laguntzen eta diru-laguntzen izapideei buruzkoak, diru-laguntzak bermatzeko errentari buruzkoak... Horrez gain, etxeko zerbitzariaren lanaren alorreko legedia aldatu denez, arauketa berri horrekin eta haren aplikazioarekin lotutako galdera asko jaso ditugu.

Azkenik, adierazi behar da, Emakundek ematen duen zuzeneko arreta pertsonalizatu honen bidez, genero-indarkeriaren kasu ugari aurkitzen direla, eta, horiek lantzeko, laguntza espezializatua eskatzen zaiola Genero Indarkeriaren Biktimei Laguntzeko Zuzendaritzari.

5

EMAKUNDE-EMAKUMEAREN EUSKAL ERAKUNDEAREN IX. LEGEGINTZALDIRAKO KOMUNIKAZIO-PLANA



IX. Legegintzaldirako Komunikazio Plana (2009-2013) Emakunderen barneko nahiz kanpoko komunikaziorako lan-tresna bat da, eta helburu hauek ditu:

1. Erakundearen irudi positiboa sustatzea, Emakunderen xedeen eta helburuen araberakoa, bere historiarekin bat datorrena, eta adierazten duena erakundeak berdintasunean oinarritutako etorkizuna lortzeko lan egiten duela etengabe.
2. Barneko nahiz kanpoko komunikazioari dagokionez, lan egiteko prozesuak, bideak, tresnak eta harremanak sustatzea eta, hala badagokio, hobetzea, Emakunderen xede eta helburu orokorrei laguntzeko.
3. Emakumeen ahalduntzea eta komunikabideetan duten presentzia sustatzen jarraitzea.

Horretarako, Komunikazio Planak adierazten du zer irizpide bete behar dituzten IX. legegintzaldian barneko eta kanpoko komunikazioak, eta zer programa jarri behar diren martxan urte bakoitzean.

Bestalde, komunikazioaren alorreko jarduera arautzen duten lan-irizpideak edo -printzipioak ezartzen ditu. Honako hauek dira printzipioak: lehenetasuna, garden-tasuna, eskuragarritasuna, kalitatea, iraunkortasuna eta ingurumen-gaiak.

Komunikazio Planak 8 programa ditu, eta lehenengoa barneko komunikazioarekin lotuta dago.

Komunikazio Planak oinarritzat hartzen du barneko komunikazioa funtsezkoa dela antolamendurako eta kudeaketarako, eta eragin handia duela laneko helburuak lortzeko orduan. Horregatik, honako helburu hauek ezarri ditu Komunikazio Planak barneko komunikaziorako: Emakunden lan egiten duten pertsonen artean komunikazioa sustatzea, pertsona horien garapen pertsonala eta profesionala bultzatzea, lan-taldeak elkartzean sor daitezkeen barne-gatazkak murriztea eta iritziak adierazteko eta parte hartzeko guneak sortzea. Barneko komunikaziorako zenbait neurri ezartzen ditu, hala nola barneko buletin elektronikoak prestatzea eta bidaltzea («Albisteak» buletina, izaera dokumental eta juridikoko buletina), Emakundeko Intranet hobetzea, lanerako barne-egiturak eta parte hartzeko beste gune batzuk sustatzea...

Kanpoko komunikazioari dagokionez, Komunikazio Planak honako helburu hauek ezarri ditu: hartzailerik diren publiko desberdinentzako komunikazio-guneak eta -bideak zaintzea, hobetzea eta berriak sortzea, Emakundek ingurunearekin duen harremana sustatzea, eta pertsonekin, elkarteekin, gizarte-eragileekin, erakundeekin eta instituzioekin dituen elkarrizketa eta lankidetzak kudeatzea. Horren guztiaren xedea da pertsonak eta erakundeak sentsibilizatzea, informatzea eta pertsona eta erakunde horiek berdintasun-politiken garapenean parte hartzea, Emakunderen lan-helburuak betetzen lagunduko baitu horrek.

Komunikazio Planak zortzi programa ezarri ditu, kanpoko informazioa eta komunikazioa hobetzeko:

1. Lehena, herritarrak sentsibilizatzeko kanpainak nahiz publizitate-kanpainak egiteari buruzkoa.
2. Bigarrena, Emakunderen web-ingurunea hobetzeko eta teknologia berriak erabiltzeko programa bat.
3. Hirugarrena, emakumeen eta gizonen berdintasunaren esparruko pentsamendua eta ezagutza transmititzeko programa bat.
4. Laugarrena, emakumeen elkarre-mugimenduarekiko komunikazioa eta mugimendu horrekin komunikatzeko bideak hobetzeko programa bat.
5. Bostgarrena, instituzioekin komunikazioa eta lankidetzaz izatea sustatzeko programa bat.
6. Seigarrena, Eusko Legebiltzarrarekiko komunikazioari buruzko programa bat.
7. Zazpigarrena, komunikabideekin informazio- eta komunikazio-jarduerak egitea ezartzen duen programa bat.
8. Eta azken programa, emakumeek oro har bizitza publikoan eta bereziki komunikabideetan parte hartzea sustatzen duena.

Plana legegintzaldi osorako diseinatu denez, bertan adierazitako jarduerak pixkanaka-pixkanaka egin dira. Dokumentu honetako ataletan azaldu da zer jarduera egin diren 2012. urtean, Komunikazio Planaren baitan.